

ALTUNA TAR JOSEBA

UME EUZKELDUNEN

**LAGUNA**



IRAKURTEKO BIGAREN IDAZTLIA







# **UME EUZKELDUNEN LAGUNA**

---

**(Irakurteko bigařen idaztija)**



M-54892  
F-55636

AT5  
25379

# UME EUZKELDUNEN LAGUNA

(IRAKURTEKO BIGAREN IDAZTIJA)



---

BILBAO

EUZKO-ARGITALDARIA B. I.

1920



## MUTIKO-NESKATO EUZKELDUNAI

---

*Bařiro natorkixube, ene umiak, irakurteko bigařen idazti edo liburu au eskintzen.*

*Igaz bat eskiñi neutzuben: aurten beste bat.*

*Igaz mutiko-neskato txikijak zintzazan-eta, ozta-ozta baño etzekijen irakurten. Eta jakiña, urdaña txikija ta samura daukanari ezin jateko andi ta sendorik emon; ostera, txiki ta biguna emon biař. Oregatik gauza txikitxubak, gauza ariñak emon neutzubezan igaz nire idazti lenenguan.*

*Baña onezkerot mutiko-neskato andijkak zarie-ta, parada dakixube irakurten ¿ezta?*

*Tira, ba. Emen daukazubez ainbat gauza polit, zubek irakurteko alagalakuak. Igazkuak baño anditxubago ta gogořtxubaguak dira geyenak, baña ezta ardura. Zubek lako mutiko-neskato bizkorak eztabe oregatik atzerarik egingo.*

*Idazti au irakurtiaz asko ikasiko dozube ta noxian-bein sendo baře-egin be.*

*Ekin, bada, arluari, enetxubok.*

**Egilia**

## LUGIÑAREN ESANAK

---

Oso Jaungozale ta aberatsa zan lugiña (basefitaŕa).

Erijotz-aldi ja eldu yakonian seme-alabeai oeon dora deťu ta esan eutsen:

—Lenen - lenen mate-egixube Jaun - goikua, Atarik maťagaŕijena ta onena Bera da-ta. Bera-gandik datorkiguz gogo ta gorputzaren ogasun gustijak. Beraganantz zuzendu egunoro zuben asmo ta otoyak. Gogoz ikasi ta zaindu Bere agindubak, oŕetan dagolako gixonaren zorijona. Baťa zaindu egixubez asabakandik (auŕekuandardik) aŕtu dozubezan ekandu onak. Eurotan igarí daikezube asabaen gogua, gogo sendo-zindua.

Ez saldu, ezelan bē, belaunik-belaun datorki-xuben etxaguntzarik. Gure gurasuak esaten eben lez, antxe, etxe-ondorengo soluan dago, luŕ-pian, diru asko balijo daun ogasuna. Nik ez-takit ziur nun dagon diru-toki ori, baňa ezta ar-dura. Luŕa irauli, sakon-sakondu, ta gauŕ ezpa-da, bijarí auŕkituko dozube.

Aŕa il zan. Eta semiok asi ziran bein atxuŕka-tu, bein layatu solua, bazteŕik itxi-barik. Artua

ta garija aſtzen eben ugari, baña etzan bein be  
agertzen atak esandako ogasuna.

Bein seme nagusijak igarí eban atak esan gura  
ixan ebana, ta anai-aſebeak sukaldian batzaldur-  
ik, esan eutsen:

Goikuaren matasuna

Ta egunoroko lana:

Aoř gure ogasuna.



## PLATON'EN GIXONA

---

Platon, antziñeko gixon jakintsu - ospetsuba ixan zan.

Bein bere ikasliai esan eutsen: «gixona da anka bi ta lumarik eztau kan aberia».

Dúgen bañegarrijak orixe entzun eban. Eta bein Platon'en ikastolean sartuta, luma-bako olasko bat artu ta mai-ganera bota eban, esanaz:

—¡Ora ora Platon'en gixona!

Zuzen egulan Dugen. Olasko a luma-bakua ta anka bikua zan. ¿Baña gixona? ¡Ez!

Ofegatik, geruago esan biañ ixan eban Platon'ek:

—«Gixona da zentzuna ta gurea (borondatia) daukazan aberia».

Tira, ori ondo dago esanda.

## B I D A Z T I J A

---

Negu gogoréko gabian gastelu baten atian jo eban bidaztijak. Baña etxeko jaunak (áfua ta ankerá zan-eta) erantzun eutson:

— Nire gasteluba ezta iñorentzako ostatuba.

Orixentzunda, esan eutson bidaztijak:

— Jaunori, esan: ¿nor bixi zan gastelu onetan zeu jayo baño lenago?

— Nire ata.

— ¿Eta zure ata baño len?

— Nire atíta.

— Eta zeu ilda gero



¿nor bixiko da bertan?

— Nire semia.

— Órezkero, ¿zegatik diñozu zure gasteluba eztala iñorentzako ostatuba? ¿Eztozu ikusten

zenbat senide bixi ixan diran bertan eun urte onetan ?

Gasteluko jaunak, aŕituta, ezekijan zer erantzun. Bidaztijak, orixe igaŕita, jaŕatu eban:

— Geu gustijok luŕian gagoz bidaztijak osta-tuban egoten diran letxe. ¿Eta zegaŕik alkaŕi ez egin al-dogun on gustija, donokija (zeruba) ira-bazteko?

Itz (berba) onek ikutu eban gasteluko jaunaren bijotza. Eta beronek atia zabaldu ta bidaztija aŕtu eban etxian.



## G E I D I A

---

— ¿Zein da niretzako geiderik (lagun-urkorik) onena? — itandu eutson lagi-gixon batek Josu-Kisto gure Jaunari.

Eta Josu'k erantzun eban ipuintxu au esaten:

— Gixon bat joyan eri batetik bestera. Bat-baten lapur zitalak bidera urten eta diruba os-tuta gero jo ta zaurituta itxi eben bide-onduan. Gerotxubago igaro (pasau) zan andik beste gi-xon bat. Au lufian etzunda eguana ikusi, baña jaramonik egin-baga, auéra juan zan. Gero abade bat igaro ta bardin : jaramonik ez ta auéra. Azkenez, mutil gaste bat juan zan bide atatik. Eta lufian eguanagaz erukituta, zaldi-ganetik ja-tsi ta zaurijk garbitu eutsozan orijo ta ardauaz. Gero zaldi-ganera jaso ta bideko lenengo osta-tura eruan eban, emen gustiz osatu eten. Gexuak egin eban gastu gustija berak ordaindu eban. ¿Iru gixon onetarik zein ixan zan onena?

Lagi-gixonak erantzun eban :

— Irugafena, zauritubagaz eruki ixan zalako.

Josu'k orduban :

— Zeuk be ofetara egixu beti

*Jarduna.—¿Zer esan eutson Josu-Kisto'k lagi-gixonari?*

## E U Z K O T A R A

---

Euzkotara da euzko - odolduna, euzko - odola zanetan daukona. Euzkotara da guraso euzkotarakandik jayua dana.

Nor dan euzkotara ta nor ez jakiteko, abixen edo apelidubai begiratu biañ. Onek euzkerazkuak ba-dira, euzkotara da; euzkerazkuak ezpadira, ezta euzkotara.

Euzkotara ixateko ezta biañ Euzkadi'n jayotia.

Esaterako, Agirre ta Errazti apeliduak daukazana euzkotara da, naiz Euzkadi'n naiz erbestian jayua ixanda be. Bañiz, Lopez Cordero abixenduna ezta euzkotara Euzkadi'n jayo-añen.

Beraz, euzkotara ixateko auxe bakañik biañ da: euzko-dola euki. Eta nok daukon euzko-odola ta nok ez, abixenak (apeliduak) erakusten dabe.

Asko ta asko dagoz, Euzkadi'n jayo añen, euzkotarak eztiranak. Eta, bañiz, banaka batzuk, erbestian jayo-añen, euzkotarak diranak. ¿Zegatik ori?

Lenenguak euzko-odolik, euzkerazko abixenik eztaukelako. Bigañenak euzko-odola, euzkerazko abixenak daukezalako.

—Eta euzkotára ixateko abixen gustijak ixan biaŕ dira euzkerazkuak?

—Esango dautzut. Esaterako, Agirre ta Calvo abixenduna erdi - euzkotára baño ezta. Abixen-enparabak euzkerazkuak ba-dira, esan leike ija euzkotára dala. Baña apeliduok euzkerazkuak ezpa-dira, euzkotára eztala esan lei.



## A X I A

Axia (aidia) biaŕ-biaŕezkua yaku bixi-ixateko.  
Axe-barik ezin bixi.

Axia eginda dago «oxigeno» ta «nitrogeno» 'gaz batez-bere.

Oxigenua da arnasia nasai ta ondo aŕtzeko. Oxigeno askodun axiak ederito nasafuten daus-kuz birijak.

Ostera, nitrogenua da oxigenuari indarā kentzeko. Oxigenua utz-utza ba'litz, on-egin-biaŕian kalte-egingo euskun.

Oxigenorik aŕtzen eztauna itota ilten da.

Axerik ezpa'geunko, ezin arnasarik aŕtu. Eta arnasarik aŕtu-eziñik, il-biaŕ.

Eta ez geu bakaŕik. Aberiak eta landareak be ezin-bixi axe-barik.

Axe-barik ezin ezer entzun, gitxi ikusi ta ortzia (zeruba) baltz-baltz ageftuko yakun.

Itxura baŕegaŕijan bixiko giñian Jaun - goikua'k axerik emongo ezpa'euskun.

## S U G I A

---

Pantzezka Deuna joyan bein Lion Aba jaungozale andijaz.

Bat-baten aurkitu edo topau eben, Bari eritxon uritik urtetian, uŕez ta zidaŕez beteriko zoŕua.

Lion abeak ar̄tu gura ixan eban zoŕuoī, baña Pantzezka Deunak galerazo eutson.

Lion abea atsekabez beterik lotu zan ainbeste diru itxi biaŕ ixatiaz, ta noxian-bein atzera egin buruba ta gozaro begiratzen eban. Azkenez, Deun-Pantzeska'ri esan eutson:

—Itxi nagixu, afen, eskekuentzat uŕe-zoŕua aftuten.

Deunak (Santubak), baña, ezetz eta ezetz.

Alako baten, Pantzeska Deunak, ezezka asperiturik, bayetz esan eutson.

Pozáren juan zan Lion abea diru - zoŕuaren biŕa, bere abotik uŕe-goŕi edeŕa paŕa-paŕa uŕtengo zalakuan. Baña berau ar̄tzeko makuŕtu zanian, suge ixugaŕija uŕten yakon zoŕotik.

Jaun-goikua'ren zigoŕ ori Deunak ikusita, esan eutson Lion abeari:

—¿Eztakixu zeuk diruba lekaide edo pralien-tzako suge ta diabru berberea dala?

\* \* \*

Ez lekaidientzako bakařik. Ostantzekuentzako be diabrua da. Ofatiño, geu beti diru-bila, gogua diabruaren eskubetan jaŕten dogula jakinda be.



## ERDEL - ERITIK.....

Erdel - eritik saŕtu ya-  
[kun, bai,

Suge bat zorigaiztuan;  
Bere berba leun gazte-  
[laŕakaz

Danok engańau gindu-  
[zan.

Suge zikin au buruban  
[jo ta

Il ba'gendu lenenguan,  
Euskaleŕi'ko libertadia  
Gauŕ bixiko zan mundu-  
[ban

**Afese-Beitia.**



## KIPULA TA ARBIJA

---

Negu gogoña.

Basua zuri-zuri, edurez estalduta agiri zan.

Arbi gaxua baso-erdijan eguna biloxik eta otzez dardaraz.

Bat-baten esan eutson ondoko kipulari:

—Zu, kipula: ¿emongo ete - daustazu zeure azaltxu bat, ni jantzi ta otza ez ixateko? Zeuk olako asko daukazuz-ta...

Baña kipula ederlo eguna estalduta. Eta ezeban gura janzkirik erantzi arbijari emoteko.

—Orain ezin dautzut emon. Bijar-edo emongo dautzut eskatzen daustazuna.

Bijaramoneko eguna eldu zan. Eta beragaz batera uŕeratu zan solora etxeko anderea. ¿Eta zer jazo zan?

Arbija ta kipula ar̄tu ta bijok alkafegaz egosten ipiñi ebazan.

\* \* \*

Gerorako eztogu itxi biaŕ orain egin daikegun ona. Uŕengo egunerako iztiaŕen, ezeutson arbijari kipulak egin, egin al ixan eutson ona.

## LATARIJA TA BASERÍTARA

---

Latari (lege-gixon) bati esaten eutson baserītafak:

—Zubek, urijan, eztozube lanik egiten. Lepuan ez berorik ez otzik aŕtu-barik, jezaŕleku nasai ta astiñetan jezaŕita, ¿ipiñi gura ete-dozube zuben lana geuriaren aldian?

—Zuzen zagoz—erantzun eutson latarijak—; neketsuba da, benetan, baserītaŕen lana, ta uriko bixikerea (bixi-moduba) atsegin ba-yatzu, gauŕtik auŕera neure moŕoya ixango zara.

—¿Eta zetan iñarduko dot, irakuŕten bez ezta-  
kit-eta?—esan eban baserītafak.

Idazti (liburu) bat emongo dautzut, eta, jezaŕ-  
lekurik astiñenian jezaŕita, banan-banan pasau-  
ko dozuz orijak, gustijk amatu arte, ta gero  
baŕiro asiko zara lan berberari ekiten. ¿Bixibide  
au gura-dozu?

Bijaramonian jezaŕi zan geure baserītaŕa je-  
zaŕlekurik onenian. Asi zan, banan-banan, inguŕ-  
ijak igaroten. Pasau ebazan liburubaren gusti-  
jak. Baŕiro ekin eutson lanari, baña, egun gitxi  
juanda, gogait-egin zan. Besuak minduta euka-

zan, soluan lan-egiten ebanetan baño geyago. Nekatu zan ainbeste ordu jezaríta egotiaz. Jateko goguak be iges-egin eban beragandik, eta eguzkijaren epeak eta euri-zapañadeak bañiro artu gura ebazala, urten zan latarijaren etxetik, oni esanda:

—Olako biximodurik eztot gura niretzat. Basora juan gura dot bañiro, luña iruli ta mokiñak austeko: luzaruago emen ba'nengo, ziuf-ziuf ilgo nintzake.

\* \* \*

Bakotxari ondoen datorkiguna da, egiten ofuta gagozan lana.



## U M I A K

---

Josu-Kisto geure  
Jaunak zintzoro mañe-  
dauz umiak.

Kalian umerik ikus-  
tēn ebanetan gelditū  
ta pozáren itz-egiten  
eban beragaz.

Eri andi baten ema-  
kume asko egozala,  
umiak artu ta Josu'ga-  
na eruan ebezan, Jau-  
nak onetsi edo bedein-  
katuteko.

Josu'ren ikashiak  
asañatu ziran ainbeste  
ume Josu-ganantz jo-  
yazala ikusita. Eta ber-  
tatik alde egiteko esan  
eutsen emakumiai.



Baña Josu'k, orixe entzunda, esan eban:

—Itxi egixubez umiak nigana etoŕten, Jaun-  
goikua'ren bakala (eŕeňua) eurentzako da-ta. Egiz  
dirautzubet, ume otzan eta apal onen lakuak ixan  
biaŕko dozubela donokijan (zeruban) saŕtuteko.

*Jarduna.*—Zeuk esan bafiro Josu-Kisto geure Jaunak esan ebana.

## JAKITUNA TA UMIA

---

Bai-ebilan bein itxasertze baten gixon bat atzera ta auéra, Irukoitz Deuna (Trinidadē Santea) zelan ixan ete-litēkian asmau-eziñik, buruba ausi-biařian.

Alako baten ikusi eban umetxu bat txirlakozkol bategaz itxaso-ura aŕtu, berau bete ta bota ondaŕtzan egindako potxolo batera, aŕtu ta bota, aŕtu ta bota ekiñian.

—¿Zetan asi az oŕ, ume?—esan eutson gixonak.

—Ona—erantzun eutson umiak—; itxasoko urgustija potxolo onetantxe saŕtu biaŕ dot.

—¿Eztakik, baňa, ezin leikela ori?

—Eziñagua da zeure buru-adimenagaz, oŕako buru ofetan biraka dabińan mataza ori azkatuta ariltzia.

Augustin Deuna (San Agustin) ei-zan gixon jakituna, ta umia irudijana zeruko aingeru bat.

\* \* \*

Jaun-goikua'k gauza asko ta asko daukaz

eskutauta, Berak daki zegatik. Eta eztogu euron jakin-gura lañegikorik euki biar. Ezagutu ta autoñtu dagigun, apal-apalik, geure txatxañtasun eta itxutasun andija, ta aintzaldu bere jakindasun amaibakua.

**Altube'tar Seber.**



## EUZKELDUNA

---

Euzkelduna da euzkeraz dakijana.

Euzkelduna ixateko ezta biaŕ euzkotar a ixatia, euzkeldun geyen-geyenak euzkotar ak ixtan a en. Euzkelduna ixateko ezta biaŕ besterik Euzkerea jakin ba o.

Euzkotar  askotxu dagoz euzkeldunak eztiranak. ¿Zegatik? Euzkerarik eztakijelako.

Eta, ba iz, euzkotar  eztiran euzkeldunak be bai-dagoz. Onek banakaren batzuk ba o eztira.

Salamanca'ko karabi ero bat euzkelduna ixtan dateke euzkeraz ikasten ba-dau. Onetariko batzuk bai-dagoz geure Bizkaya'n. Ostera, Euzkadi'ren edozein seme ezta euzkelduna euzkerarik ikasi ezpa-dau. Onetariko asko dagoz, zoritxa ez, geure aberijan.

Euzkelduna ixateko ezta biaŕ euzkeraz «baka ik» jakit a. Euzkelduna da, len esan dogun lez, euzkeraz dakijana, naiz beste edozein ele edo berbeta jakin a en.

Beraz, gixonak euzkeldunak eta erdeldunak ixtan datekez batera. Euzkelduna, euzkeraz dakijalako; erdelduna, erder az dakijalako. Euzkel-

duna ixateko ezta biaŕ, ba, eŕderarik ez jakitia. Euzkeraz jakitiaz naikua da.

Euzkeraz ta eŕderaz dakijanari «euzkelduna» eristen dautsogu. Euzkeraz bakaŕik dakijanari, «euzkeldun utza». Euzkerarik eztakijanari, «eŕdelduna».

¿Gusti au ulerŕtu dozu, euzkeldun umiori?



## ESAN, BAI, BAÑA.....

Aguretxu bat joyan  
bein baso-ziaŕ, lepuan  
eguŕ-zama (karga) aztu-  
na ebala.

Iibili ta ibili, nekatu  
zan gustiz: ezeukan in-  
darik kargia eruateko.

Eguŕa luŕera bota ta  
bere ganian jezaríta,  
esan eban asafez:

—¡Au da bixitxa go-  
gaikaŕija! Beti lanian,  
buruba jaso-eziňik. ¡Eri-  
jotza elduko al-yat, len-  
bait-len ilteko! Bai, olan  
bixi baño il gurago dot-

Erijotzak, orixe etzun-  
da, aguariagana juan eta  
esan eutson:

—Emen naukazu, ba. ¿Zer gura-dozu?

Bañá aguria, erijotzaren itxuria ikusita, ikar-  
atu zan gustiz. Eta dardaraz ta zer erantzun  
ezekijala, esan eutson erijotzari:



—Didar-egin dautzut egur-eskuta au nire lepora jasoten lagundu nagixun, neuk bakarik ezin-dot-eta.

—¿Oretarako baño ez? Tira, ba; lagunduko zaitut.

Eta egurfa eskubetan artu, aguriaren lepora jaso ta bertatik alde-egin eban, esaten:

—¡Aguir, ikusi-arte!

Aguria egurfa lepuan artu bariro ta bide-egiten asi zan, bere kolkorako esaten ebala:

—Gauza bat da asafe-aldijan erijotzari defu ta beste bat il gura ixan.



## J A K I N - E Z A

Idazle (eskritore) afoputz batek esan eutson  
andera bati:

—¿Zenbat emongo zeunke nik dakidana zeuk  
jakiteko?

Eta andereak erantzun eutson:

—¿Zenbat emon? Ori baño geyago emongo  
neuke zeuk eztakixuna jakiteko.

France'ko Bakaldunak (erregiak) itandu eutson  
bere idaztegi-zañari (bibliotekarijuari) onek eze-  
kijan gauza batetzaz:

—Nik eztakit zer erantzun, ba.

—Neuk ordainduten (pagetan) dautzut, ori ta  
beste gauza gustijak jakin dagixuzan.

Orduban erantzun eutson idaztegi-zañak:

—Zeuk ordaintzen daustazu neuk dakidana  
bakafik. Eztakidan gustija ordaindu gura ba'  
zeunstan, etzeunke biaŕ dan diruba eukiko.

\* \* \*

Onek esan gura-dau eztagola ludijan gusti-  
gustija dakijanik. Eta geuk, jakitun-jakitunak  
ixanda be, dakiguna baño geyago daukagula  
ikasi-barik.

## ASTAKILO TA ALKATIA

---

Astakilo ezti-saltzalia zan.

Esan-biařik eztago, ba, beti ebiltzala bere atzettik eřiko euli gustijak. Onen zirijaz bixi-eziňik egoten zan geure gixona. Eta ezekijan zer egin eurakandik alde-egiteko.

Bein otu yakon Alkatiagana juan zeozer eska-tzen eulijak iltzeko.

—¿Eulijak iltzeko gauzarik gura ete-dozu?— itandu eutson alkatiak. Nik eztakit, bada, zegaz ilten diran ařanuok. Egin daikedana da baimena edo permisua zeuri emotia eskuban daukazun makiliaz euli gustijak iltzeko, edozein lekutan dagozala be.

Orixe esan eta euli bat etorí yakon bekokira Alkatiari.

Ezeban geyagorik biař gure Astakilo'k. Makilia esku bijakaz aſtu ta gogoř jo eutson Alkatiari bekoki-bekokijan.

Eulija il eban..... il biař..... Baña Alkate gixa-xua be, zirkiňik egin-barik, ilda lotu zan bertan.

## EZ BURUBA GORALDU

---

Gixona otzan eta apala ixan biaŕ dala erakus-teko auxe esan eban bein Josu-Kisto'k:

«Gixon bi saŕtu ziran txadonan (elexan) otoi edo efegu-egiten.»

«Euretarik batek, zutik jaŕita, onetara iñuan:

«—Eskaŕik asko, Jaunori, beste gixonak baño obia ixan natela gura ixan dozulako. Ni enaz gaiztua ta ankeŕa, nire ondoko gixon onen la-kua: nik astian bifitān barau-egin eta Zeure agindubak ziatz-ziatz betetan dodaz.»

«Beste gixona, baŕiz, lufian auzpeztuta eguna, eta buruba makuŕ-makuŕ eginda, onetara esaten eban:

«—¡Ene Jauna, ene Jauna! ¡Nigaz efukitū zaŕe, obendi (pekatari) andija naz-ta!»

«Egiz dirautzubet—esan eban Josu'k—bigaŕ-en gixon au ta ez lenengua biguŕtu zala etxera obenak (pekatubak) parkatuta. Buruba goralduten dauna betuba ixango da ta buruba betuten dauna, goralduba.

*Jarduna.—¿Zer esan gura dau Josu-Kisto'ren esanak?*



## B E G I J A K

---

Begi bi daukadaz arpegijan: bata eskumal-dian; bestia eskeñaldian.

Begijakaz dan-dana ikusten dot.

Ikusten dodaz etxeko gauza guštijak, baña gixonak, aberiak eta zugatzak.

Ikusten dodaz baratzak eta bertan jayo ta azten diran landara ta lora politak.

Gora begiratu-ezkero, ortze oztinā (azula) ikusten dot. Eta gabian ixar argijak.

Nire begijk oztinak dira, baña bai-dagoz baltzak eta ařiak be.

Pozik egoten nazanian argi-argi eukiten dodaz begijk. Itun edo «triste» jaŕten nazanian lanuak estalduten daustez begijk.



Miñik aítzen dodanian negaŕ-malkuak ageŕ-tzen yataz begijetan.

Gaberako nekatuta egoten naz, begijak zabalik euki-eziñik.

Oŕezkero oian etzun, begijak itxi ta lo.

Úrengo goxian begijak zabaldu ta itxaŕtuteneaz.

Ikusi ezin dabenak itxubak dira.

Bat baño geyago, zaŕ-zaŕ eginda, itxututeneaz.

¡Itun-ítuna da itxuba ixatia!

Itxubak ilunetan bixi dira beti. Eurentzako eztago argirik, betiko gaba baño.

Geuk, Jaun-goikua'ri eskaŕak, ondo ikusten dogu ta bai-dakigu zer dan argija.

¡LENAGO IL!

---

¿Ze ikusten dabe  
 Neure begijak?  
 Au danau dakust  
 Galduta;  
 Berezi, baso,  
 Muru ta mendi,  
 Uri, baseři  
 Ta dana.....  
 Motzak saftuta,  
 Saloberiok,  
 Ara bifindu  
 Dabela!  
 ¡Il nayago dot  
 Ikusi baño  
 Abeřijaren  
 Amaya!

. . . . .

. . . . .

. . . . .

¡Eři gaxua!  
 ¿Jazo nintzan ni  
 Zeure il-orduban  
 Eltzeko?

¿Zegatik, Ama,  
 Zeure semiok  
 Eztira itxaftzen  
 Ondiño?  
 ¿Ama, ilgo zara  
 Motzen azpijan?  
 ¿Ilgo zara zeu  
 Betiko?  
 ¡Itxaron, Ama;  
 Jarijon biot  
 Neure odol au  
 Lenago.

**Arana-Goiri'tar Sabin**



## ITURITXUBA

---

Udako egun bero-beruan mendirik-mendi eibilan Anastasi mutikua ardi-atzetik. Mosuba gorri-gorri eukan eta estafija legoñ (siku): egañi-egañija zan gixaxua.

Jo batera jo bestera, topau egin eban zugatztantai batzuben onduan jayoten zan ur otz eta garbidun ituritxuba.

Gure mutilak entzunda eukan ixerditan ur otza ugari edatia txañ-txañ zala osasunerako. Baña bape ardura-barik, joranez ta atseginez edan eban ituritik ara, asetu-aŕte.

Aldi gitxi juanda luñera jausi zan konortabarik. Konorteratu zanian etxerako bidia aŕtu eban. Bertara elduta, oyan saŕtu ta gurasuai esan eutsen mutikuak:

—¿Nok esango eban ur garbi atsegintsu oŕek ainbeste kalte egin leikenik?

Orixentzunda, esan eutson aŕtak:

—Ire gexuaren sorburuba eztok ixan edan dokan ur garbi-osasungañija, ire leya ta arinkerija baño. Jaun-goikua'k egin yuazan gauza gustijak geuretzako dozak; baña geuk ezpa-yakiguz eur-

ok erabilten, ondo egin-biafian kalte egingo yauskubek. Berauxe ixan dok iri jazo yakana.

\* \* \*

Goguan saŕtu, ene umiak, emen irakuŕi dozubena ta ez aiztu iñoz.





## KATILUBA TA LAPIKUA

---

Katilu polit eta lirain bat lufera jausi ta apur-apur eginda geratu zan.

Etxeko neskamiak zatijok aítu ta saramara bota baño len, esan eutson gure katilu gaxuari lapiko zaír batek:

—¿Zer jazo ete-yatzu itxura negaígarí ofetan egoteko?

Beste bein katilu polit-lirañak ezeutson lapi-kuari jaramonik egingo, beragaz aítu-emonik ezeukalako (ta euki gura bez), baña orduban, buruba apúrtuta eguan-eta, apal-apalik erantzun eban:

—Erukizakidaz, lapiko aizkide ori, erukafirik ba-dago neu naz erukafija-ta. Zeuk dakixun lez, katilu lirain-liraña nintzan, ufe-koloriaz apain-

duta. Beti erabilten ninduben zidañezko bandejtan. Eta gixon aberatsen esku ta ezpan-añtian bakarik ibilten nintzan. Nik uste-neban ludijan (munduban) ezeguala neu-lakorik.

Baña ibili ta ibili, leyañezko edontzi (kristalezko baso) bategaz jo ta mustuñak ausi yataz. Ofa ofazalera urten dala buztin-luñaz eginda egon nazala, ¡Eta nik uste-neban urñezkua nintzala gitxijenez!

\* \* \*

Orixo jazoten yake gixon afuai: eurok uste ixan zeozer dirala ta gero ikusi ezer eztirala.

Ez aiztu katilu onen ipuña.



## OSASUN ONA EUKITEKO

---

Ez lañegi jan, ez lañegi edan.

Jaten dozubena astirotxu ta ondo mamuñtu agiñakaz. Ostantzian, kalte andija aítuko dau zuben urdalak.

Jatekua ondo mamuñtzeako agin onak euki biañ. Oñetarako egunian bein, gitxijenez, garbitu biañ dozubez agiñok.

Gauza ona da ordu berberetan jan eta edatia.

Zuben etxia ondo axeztu. Leyuak zabal-zabal itxi, kanpoko axia, axe garbija, bañura saítu daten.

Lo-gelian ez euki-estufarik ez olako gauzarik. Tramankulu őnek txaf-txañak dira: itoteko be naikua.

Janzki edo soñekuak nasai euki biañ dozubez, ez estu.

Janzki estubakin ezin arnasia ondo aítu, ez nasai ibili. Janzki estubak kaltegarrijak dira osasunerako.

Arpegija, belarrijak, eskubak eta ostantzekuak euki beti garbi-garbi. Garbitasuna da osasunaren zaindarija. Sañi baño sañijago loikerijak sortutent dauz gexuak.

Ixeŕditān zagozenian ez urik edan ez axetara  
egon, eŕaz gexotu zatekez-ta.

Tabako ta alkola txaŕ-txaŕak dira. Ez tabakor-  
ik eŕe ez alkilik aŕtu gixonak ixan zatezenian be.

Gorputz sendua eukíteko askotxu ibili biaŕ,  
ez laŕegi baňa. Ibilteko eztago gauza soberík  
mendija ta basua baňo.

Esan dautzubedazan gauzak goguan aŕtuten  
ba-dozubez, euroi jaŕatubaz, osasun ona eukíte-  
ko bidian jaŕiko zarie.

Eta ez aiztu iñoz Jaun-goikua'k emon dausku-  
zan gauzaetarik onenetaikua osasuna dala.



## IRU A M A Y A K

## (IPUÑA)

Ata aberatz batek bere iru seme - ártian zatitu ebazan etxaguntza, diruta ogasun gusti-gustijak, erestun (anilo) eder bat ixan-ezik.

Seme bakotxari beria emonda gero, iruroi batera esan eutsen:

—Erestun au ixango da iruretatik egiñenik one-na egingo daunarentzat.

Iru anayak etxetik uŕten eta andik lau ilabetera bigurtu ziran atagana.

Eldu yakon lenengua ta esan eutson:

—Ata: atzeritaŕ batek itxi ninduban bere uŕez beteriko etxe-jabole (gordetzale), ostu al ixan neuskijola uŕe gusti-gustija, ezeren bilduŕ-barik. ¡Betiko aberaztuteko eraberean nenguan! Ofatiño, zintzo-zintzo ta osorik uŕe-piluak ugazabari jagon (gorde) neutsozan.



—Ondo egin dozu, seme — erantzun eban aṭak —, baña ofegaz zeure eginbiaŕa bete baño eztozu egin. Ostu ba'zeuntso uŕe-pilua, gixon dolor ta dongia ixango ziñan, iñoren gauzarik bide txafetik norberagandu biaŕ eztalako.

Bigaŕenak saŕtu ta esan eutson:

—Bein, ibai zabal-sakon baten ondotik niñuela umetxu bat jausi zan ibaira. Bertan itoko zan lagundu ezpa'neutso. Arin-arin juan eta atara neban. ;Eztago zetan esan bere bixitxa neuri zoŕ daustala!

—Edeŕa da zure egiñena — erantzun eban aṭak —. Oŕatiño, aŕiskubetan batak bestiari lagundutia, orixe da gustijok egin biaŕ doguna.

Irugaŕena eldu ta asi zan esaten:

—Atxondo batetik nentorála, neure arerijorik amuŕatubena leza ixugafí baten eŕtz-eŕtzan lotan eguala ikusi neban. Zirkińik egin ba'leu, bertara jausi ta ondatuko zan. Baña aŕa; aizkiderik zintzoena ixan ba'litz lez zaindu ta atara neban aŕisku atatik.

—Ara neure semerik onena — erantzun eutson aṭak —. Eta laztan gozua emonda, esan eutson:

—Eutsi erestuna, zeuk irabazi dozu-ta. Geure arerijuai eurai ondo egitía egiñenik onena da.

\* \* \*

Ez aiztu, ume euzkeldunak, ipuin au.

## ORDU BATEK BALLJO DAUNA

---

¿Gogoratu dozu iñoz zenbat balijo daun ordu batek?

Gabeukatzak (erlojuak) orduba joten daunian, zure kolkorako esaten dozu bein baño sañijago: «Ordu bat igazi edo pasau da.» Eta besterik ez.

Ofatiño, jolastuten edo ezer egin-barik pasau dozun ordu oretan jamaika gauza jazo dira ludijan (munduban)!

Jakiñunen ustez, ordu bakotxan lau mila ume jayo ta iru mila gixon ilten dira ludijan.

Igazi dan ordu oretan jamaika lan eta amaika neke jasan (sufridu) dabez gixonak!

Erlojuak joten daun ordu bakotxan itandu burubari: «¿Ordu onetan gauza on asko egin eteyuadaz?»

Idaztijk (liburubak) beso-pian ekazala, eskolatik etxera etorfan mutiko batek esan eban: «¡Ordu onetan amaika gauza on ikasi yuadaz!»

¿Igarsten dozube zegatik ordu baten ainbeste gauza ikasi ebazan? Irakaslarijari (maisuari) adi-adi egon zalako aldi oretan.

Gixonai sañi damututen yaku ordubak alperfik galtzia.

«Galdu dira—iñuan bein jakitun batek—uŕezko ordu bi. Bakotxak eukazan diamantezko irurogei iroiren (miñuto). Eurok bilatzeko ezta ezer emoten, galdu-ezkero ezin leikez bilatu-ta.»

\* \* \*

Ez astirik alperik galdu, ume onak.

«Astija uŕia da» esan eban iñok eta ondo esan eban.



*Jarduna.—Esan astija galtzetik datozan kaltiak.*

## ZUGATZAK MATE

---

Zugatzak (arbolak) mañagaríjak dira basuan gauza mañagarírik ba-dago.

Zintzoro mañe biaŕ doguz zugatzak.

¿Zegatik, baña?

Ara.

Zugatzak orí ta lora polit-usaindunak emoten dauskubez udabaríjan, gerixa eder- atsegintsuba ta igali edo fruta gozuak udean. Eta neguban berotzeko egúra.

Ofez ganera, zugatzak beste onura (probetxu) asko egiten dauskuz: euren bidez eurijk ugari etorí ta luŕa bustíten dau. Zugatzik eztagon tokijan euririk gitxi ixaten da.

Euri-sapaŕada andijk diranian be zugatzak eutsíten dautso uyolari.

Zugatzetan txorijk ibilten dira alai ta abeslari. Zugatzik ezpa'geunko, ezkeunke txorijen abesti samuŕik entzungo.

Zugatzak be axia garbituten dauskube. Eta geure birijetarako gauza osasungafija da au.

Zugatz asko dagozan lekuban egazti, erbi, koneju ta olako asko egoten dira. Eta au atsegin-

gaŕija da ixan be eiz edo kaza-zaliak diranentzat.

Oŕegatik, ba, maŕe-materik euki biaŕ doguz zugatzok.



*Jarduna.*—Esan zeintzuk onura edo probetxu ekaſten dauskubezan zugatzak.

## E G A R I Z

---

Arabitar (arabe) bat lekarozia (basamortuzia) joyan lagun eta zaldi batzukin.

Bat-baten eta igaři-bařik galdu zan. Ezekijan nun eguan, bere buruba baño ezeban ikusten-eta.

Iibili ta ibili, egari andija ixan zan.

Egarrijak ilik eguala, oxin edo pozu txiki bat topau eban. ¡Beria ixan zan poza!

Baña oxiňak ur gitxitxu eukan: ganera, ur txařa, ustelduba zan.

Orařiño, gure gixonak joranez edan eban ur gustija.

Orixo eginda bařiro ekin eutson bidiari. Eta bařiro egafija. ¡Ene! ¡A zan esturia!

Arabitar gixaxuak batera ta bestera begiratu, bazteř gustijak arakatu, baña ur-tantarik topau ez.

Il-aginian eguala, ikusi eban zizku edo boltsa andi bat. Joranez ařtu eban edatekorik eukiko ebalakuan. Baña ez. Zoritxařez, zizkubok ezeukan olakorik: uřez beterik eguan.

Eta gure arabitar gixaxua, uria ugari eukiaren, egariz il biaŕ ixan zan bertan,

\* \* \*

Gixonak ainbeste maŕe-dogun uria etzan gauza ixan arabitararen egaŕija asetuteko.

Gixon ak ura topau ba'leu, ziur gaizkatuko (salbauko) zan. Baña ura aurkitu-biaŕian uregoŕija aurkitu eban. Eta uriaz ezin kendu gorputzeko egaŕirik.

Oregatik il zan.

Ikaspide edo ejenplu ona guretzat.



## J A Y O T Z A K

---

Gabonetan gagoz.

Urtero lez, etxeko umiak egin dabe Josu-Kisto'ren jayotza.

Oñetarako gauza askotxu erosi biañ: txabolak, ardijak, zubijak, artzañak-eta.....

«Kortxuagaz» mendijkak egin dabez, udoldi edo «musguaz» apainduta.

Mendi-onduan, aranak. Eta aranetan, eŕeka-txubak. Eŕekien ura ispiļu-zatijaz eginda.

Txabolak, «kartoyagaz» eginda, poliō dagoz.

Oŕ-emen ikusten dira asto-ganian duazan edo buruban urez betetako pedaŕak daruezan emakumetxubak; ardi zurijk zaintzen dabezan multilak; eiztari edo kazadoriagandik iges, sasi ta

bedar-aftian eskutetan diran konejotxubak; ur-  
etan dabiltsan aratak; efekan janzkijak garbi-  
tzen dabezan neskatilak, eta, ixar batek zuzen-  
duta, Josu-Umia ikusten Belen'era erduten diran  
Bakaldun edo Eŕege Maguak.

Gero uruna aŕtu ta botaten da mendi ta ar-  
anetara, eduraz zurituteko.

Gabez Belen'eko korta-onduan argi bi ixitu ta  
abesten (kantetan) dautsoe samur-samur Jaun-  
goikua'ren Semíari.

Orixo egiten dabe geure etxeko umiak.

¿Orixo egiten dozu zeuk be, umetxu eúzkel-  
duna?



*Jarduna.*—¿Zeuk egiten dozu etxian Josu-Kisto'ren jayotzik? ¿Bai?  
¿Eta zertzuk gauza ipinten dozuz bertan?

## EZ OGASUNIK ITXI IÑOREN ARDURA-PIAN

---

Aberatz bat nasai-nasai, ezetariko ardura-barik bixi zan. Etxeko moñoi-neskamiak diruba paña-paña eralgiten (gastetan) eben. ¡A zan dirutza alper-alperik galdu!

Urtiak juan urtiak etorí, asi zan igañten geruago diru gitxijago eukala. Bai, ba: irabazi baño geyago gastau egiten eban-eta.....

Ezekijan nundik asi diru-eralgitze ofi atiak isten. ¿Eta zer égin eban?

Eriko lekauti (ermitaño) jakintsu bategana juan, zer jazoten (pasetan) yakon esaten.

Lekautijak, aberatzari entzunda, ingi edo papera baten zeozer idatzi, sobrian saŕtu, ta au itxiña emon eutson, esaten:

—Zeure ogasunari ondo eutsíteko auxe egin biárko dozu: egunian-egunian idazki edo karta au aŕtu ta etxeko toki gustijetara eruan, baña zabaldu-barik. Urtebete-baŕu atzera ekaŕten badaustazu idazkijoi emoten dautzudan lez, pozik lotuko zara.

Bijaramonian asi zan gure gixona lekautijak esan ebana egiten.

Upategijan saŕtu ta ikusi eban moñoi bat ar-

dao gozua danga-danga edaten. Kortian uaŕtu eban era edo modu txafian egozala zaldijak. Be-yak be loi-loi ta itxura onik ezeuken. Eskaratzian ikusi ebezan mofoi-neskamiak jatedaten sendo ta ijiji ajaja.

Onetara, etxeko bazteŕ gustijak egunian-egunian arakatuta, okeŕ egozan gauza asko ikusi ebezan. Eta gauzok banan-banan zuzendu euzan.

Urtebete igazit  ezirudijan etxe ak lengo etxia, dana zuzen-zuzen ebil n-eta.

Gauza gustijak zuzenduta, diru gitxijago, asko gitxijago biaŕ eban geure gixonak. O etara ez bakaŕik ogasunari eutsi, ba a ogasuna sendo get  eban.

Aberatza atzera juan zan lekautijagana bere idazkijaz, ta ezekijan zelan erakutsi oni bere es-kaf ona.

— Esango daustazu orain zer eukan zorijoneko idazki o ek, ain lasteŕ ta ain ondo nire etxia atonduteko?

Lekautijak orduban idazkija idegi, ba uko ingija a tu ta auxe iraku i eban:

«Zeure etxia ganoraz ta zuzen ibili daten, zeure begijkaz ikusi bertako arazo ta gauza gustijak. Norberaren etxia norberak atondu ta zaindu biaŕ dau. Gauza oberik eztago.»

Geure ogasuna geuk geronek erabiliko dogu iñok baño obeto. Iñoren eskubetan diruba ta ostantzeko gauzak ipinten dauzan gixona zoritzarekua da.

Ori saři ikusten dogu ludijan.



## GURE TXOMIN

---

Aspaldiko gure Txomin  
 Etoi dok etxera,  
 Guraso ta neba-añebak  
 Gabonez ikeñtzena.  
 Bixigu bi ta lebatza  
 Gabon-mutil-antzena,  
 Ijuika ta ikotika  
 Sañtu dok eskatzena.

---

Eztok, baña, gure Txomin  
 Eskutzian etofi:  
 Atarentzat ekarí dauz  
 Lau libra tabakofi:  
 Amarentzat gozo-opilak,  
 Janzki politak guri.  
 ¡Aupa, gora gure Txomin!  
 ¡Aupa! ori dok, ori!

---

Apaldua gero egin  
 Doguz egitekuak,  
 Ata ta ama dantzan dira,  
 Baña enparaukuak.  
 ¡Ai, an zan soñu, abes  
 Eta bilintxikuak!  
 Zoraturik gaukoz gure  
 Txomin aspaldikuak.

**Enbeita'tar Kepa**

## O G I J A

Ogija da geuretzako jatekorik lenena.

— ¿Egunian zenbat bidaí jaten dozu ogija, ume-  
txueuzkeldun ori? Askotan jezta?

Goxaldutian (almortzuba aritzian) bustiko dozu ogija kafe-esniaz edo txokolatiaz. Bazkaltzian ogi-zati bat eukiko dozu eskuban, zalijari (kolar ari) ta sardeari (tenedoriari) azpileko (platerako) jatekua arituten lagunduteko. Eta bein baño ge-yagotan ogi-zatija airtu, saltsian busti ta jango dozu atseginez jezta?

Áratsaldian be, ikastolatik etoríta, ogija aritu-ko dozu txokolate gordiñaz, eztijaz, laranjiaz edo olako gauzakaz. Eta iñoz ogi utzik, ezer barik jezta?

Gabian, aparítan, baíiro ekingo dautsozu ogi-jari.

Baña ebai-dakixu ogija zegaz ta zelan egiten dán?

¿Ez? Nik esango dautzut, ba.

Ogija egiten da uruna, gatza, ura ta legamijaz (lebaduriaz).

Gero labian saítzen da egosteko.

Legamija da ogija astinduteko.

Ogijaren uruna garitik ataraten da. ¿Zelan, baña?

Garijoi biŕin-biŕin eginda, autsa lez geratzen da.

Urun au zuri-zurija da.

Gure baserí txikijetan eztabe ogirik jaten noxian-bein baño. Ogi-barik, tremesa, artoberoa ta talua jaten dabe.

Tremesa gari-urunaz egiten da, baña ez geure ogijarena baxen zurijaz.

Artoberua ta talua arto-urunaz egiten dira.

Urun au oriya da ta ez garijena baxen «fiña».

*Jarduna.*—¿Zelan eta zegaz egiten da ogija? ¿Zegaz tremesa, artoberua ta talua?

## JUIZIOKO EGUNERAKO EDO.....

---

Bidetik joyan burdi bat zaldi batzuk eruanda.

Bat-baten zaldijok gelditū ziran. Eta burdi-zañak egiñalak egin-ařen, ezin ibili-erain zaldijoi.


—¡Zentelori! ¡Eŕementauko al-dira bat-batez zaldi madarikatubok! Tira, «Orija»; tira, »Malmutza»..... ¡Eup!, ¡eup!

Eta makilia ártu ta zaldijoi lepua ondo berotu. Baña alperik: aberiok geldi-geldi, zirkiñik egin-baga.

Burdi-zain gixaxua asaře baten eguala zaldijai erabili-eziñik, uferatu zan beragana eŕiko atso baritsu bat, esanaz:

—¿Baña zetarako ainbeste txakufkeri esan zaldijai? ¿Uste ete-dozu olako esanakaz beste edozeñegaz baño eŕazago ipiñiko dozuzala zaldijok ibilten? ¿Zegatik berba txařik erabili-biařian eztozu otoi-egiřen edo eŕezetan?

—Bai, ni eŕezetan asi ta zaldijok belaunbikatuten ba-dira..... juizioko egunerako edo juango gara emendik.



## O L U A K

---

Kortako atian ikusi dodaz oluak, luŕian pikua  
inketan.

¿Zer egiten eben?

Luŕa atzaparíkatu, aliak eta arák arápetako.

Txitak be atzaparíka ebiltzan.

Olo ta txítia-arítian olaŕ bat eguan, aŕo-aŕo,  
buruba batera ta bestera erabilten.

Gangaŕ goŕija eukan eta luma edeŕ-luziak.  
Anketan aztalak.

Olaŕa zan luŕa geyen arakatuten ebana. Jateko  
gauzarik topetan ebanian, oluai deítu ta zati  
bat emoten eutsen.

Saŕi jasoten eban buruba, euroi kalterik egi-  
teko ia iñor etorfan ikusteko.

Bera zan txítia ta oluen zaña,

Egun atan txakur bat etori zan olatokira. Olo ta txita gustijak igesi-egin eben karaka. Baña olarā, aŕo-aŕo, buruba jaso ta ku-kuŕ-u-ku asi zan.

Ilunabarrián, eguzkija ostenduten asten danian, lotara juaten dira oluak, uŕengo egunian goiz-goxetik itxaŕtuteko.

Itxaŕtu ta ku-kuŕ-u-ku asten da olarā, eguna zabalduten dala iragaŕteko.

Oluak olarāk baño txikijaguak dira. Ez ain politak, baña onura edo probetxu andijagokuak bai.

Eurak aŕautzak ipińi, ta azi ta zainduten da-bez txitak.

*Jarduna.—¿Zelakuak dira olarāk, oluak eta txińak? ¿Zer egíen dabe batzuk eta bestiak?*

## EGIÑEN ONA

---

Ozanam'dar Perderika ixan zan Pau'dar Bin-gen'en Bazkuna (Konperentzia) soñtu ebana.

Ozanam'en ama, zañ-zañ eginda, nekez igoten zan zurubi edo eskileratik gora, ta sañi, arnasa-añtu-eziñik, gelditu-biaña ixaten zan.

Atsegin yaken gexuak eta txiruak ikustia, bana onek uri andijetan azkenengo oñetan bixi ixaten dira-ta, senañak galerazo eutson laugaren oña baño gorago igoten. Au osalarija edo medi-kuba zan eta zar-zaña eguna, emaztia letxe.

Onegatik eskari berberea egin eutson onek: laugaren oñetatik gora ez igoteko. Bijok alkari egin eutsoen, ba, itun ori.

Bein, gexo bat ikusten eguala, jakin eban osalarijak gorago, seigañen oñian, beste gexo bat oso txañto eguala. Eta bertara igoteko gurarija etorri yakon.

Bijotzagaz buñukan asi zan. Azkenian, bijotzak irabazi ta igon zan, emaztiari ezer ez-esateko asmuaz.

Eldu, atia jo, etxian sañtu ta oyan ikusi eban

gexua..... ta gexo-onduan bere emaztia, berari  
ezer ez-esateko asmoz igon zana.

\* \* \*

Ora orí, umetxu; bijotz ederak, geure Jaunak  
zeruban sariztuko dauzanak.



## AMANTAL BIJAK

---

Leyo (bentana)-onduan eguan amantal loi-loi batek esan eutson eguzkitan eskegitā eguan bes-te amantal garbi ta zuri-zuri bati:

—Gomutetan dozu noz erosi gindubezan den-dian bijok batera?

—¿Gomutau ez? Baña gomutetan dot saneuri edo prezijo berberian salduta ixan gintzazala.

—Baña ¡oi! Toki berberatik eta diru berber-agaz etorri-ařen, ezta nire zorija zeuria lakoxia.

—¿Zegatik, ba? ¿Txaŕto erabilten zaŕube etxian, ala?

—Bai, gustiz txaŕto. Trapu zaŕ bat lez narabi-le, bazteretako autsak kentzen.

—¡Ene bada!

—Gero, loi-loi nagonian, zokondo batera botaten nabe. Eta an egon biaŕ egunak, astiak..... Nire biaŕa daunian garbituten nabe. ¡Baña zelan garbitu gero! Eguzkitan ipinten nabenian len baxen loi egoten naz.

—¡Gaxua! ¡Zeu zara, benetan, erukaríja! Nire andria, ba, uŕia baño garbijagua da. Ondo oŕaz-tuta gero, neugaz janzten da dotore. Eta txairo-txairo ibilten da. Enau loifuko ain laster, ez.

—Zu, esan: zure etxeko neskatilea neuria baño txiruago (pobriagua) da ¿ezta?

—Bai, baña ¿ze ardura ori? Bera garbi-garbija da ta enau ikusi gura loi.

—¡Ai! Dendara baríro juan al ixango ba'neu, buruba saldu baño len begiratuko neban zelan daukon arpegija nire erosle baríjak. Oretara, enintzake beste bein olako neskatil zikin baten eskubetan. jausiko.

\* \* \*

Au irakurten daben neskatil euzkeldunen amantalak berba-egingo ba'lebe ¿zer esango eben? ¿Lengo amantal loyak ala garbijak esan dauna?

Lotsagarria ixango zan neskatila batentzako amantal loyak esan dauna esatia.

Olakorik ixan eztañen iñoz, garbi-zaliak ixan beti, neskatilak.



## BELEN'EKO KORTAN

---

Augusto eritxon Zesar edo bakaldunak agindu eutsen bere menbian egozan gustijoi euren ixenak emoteko.

Agindu au zala-ta bakotxa juan biaŕ ixan zan bere jayoterira ixena emoten.

Miren eta Joseba Deuna Dabita'ren ondorenguak ziran. Eta Belen'en jayua ixan zan au-ta, eri atara juan biaŕ Miren eta Joseba zeregin ori betetan.

Belen'eko ostatu batera eldu ta eskatu eben tokija gaba igazteko (pasetako). Baña ostatuba lagunez bete-beterik eguan-eta, ezin tokirik aŕtu. Eta korta batera juan ziran.

Antxe bertan jayo zan Josu geure Jauna, idi ta asto biren onduan. Jayo ta abere onen askan jaŕi eban amak.

Idi ta astuak arnasiaz berotzen eben umiaren gorputz samuŕa, kanpuan eduŕ ta otz andijk ziran-eta.

Gau atan ardijk zaintzen egozan artzañak iňoiz ikusita ezeukan ixaŕa ikusi eben. Ixaŕ au gotzon (aingeru) bat baño etzan, euroi iragaŕteko Josu-Umia jayo zala.

Gotzon onegaz ainbat gotzon batu ziran gero «jaintza (glorija) Jaunari goyetan eta bakia luŕian gura oneko gixonai!» abesteko.

Artzañok Belen'era erdu ziran. Eta Miren, Joseba ta Umia ikusita, onen aurian auzpeztu ta guŕ-egin eutsoen.

Egun batzuk geruago Belen'era eldu ziran Soŕkaldeko iru eŕege, gixon jakintsubak eurak.

Ortzian agertu zan beste ixafí batek iragaŕi eutsen ludiko bereroslia (munduko salbadoria) jayota eguala. Eta berau idoroteko (topetako) Jerusalen'era juan ziran lenengo.

Bertan egozala, Herodes eritxon orduko bakaldunak iruroi defu ta esan eutsen:

—Juan eta ikusi nun dagon Josu Umia. Idoro dagixubenian etofi atzera nigana, neu be juan naten berari guŕ (adoraziño)-egiten.

Orixo esan, baña Herodes'en asmua etzan Umia guŕtu, il baño.

Eŕege maguak Jerusalen'etik urten eta abi-jau ziran Belen'erantz. Soŕkaldian ikusi eben ixafa euren aufetik joyan. Umia eguan tokira elduta, gelditu zan.

Bakaldunak saftu ziran kortan eta ikusi eben Umia, bere Amarekin eguna. Eta aldian euke-zan kutxatxubak idegita, eskiñi eutsoezan: keda-tza, uria ta abaña (miŕa).

Bakaldun onek amesetan igarí eben etzirala Herodes'gana biguŕtu biaŕ. Eta beste bide batetik atzera egin eben euren eŕira.



*Jarduna.—*¿Nun eta zelan jayo zan Josu-Kisto? ¿Nortzuk juan ziren Berau ikusten?

## BATU TA INDARÁ EUKIKO DOZUBE

---

Gixon īatek eukazan seme batzuk.

Onek ibilten ziran beti bata bestiaz asaŕe. Ezin bakian bixi.

Atak alegiñak egiten ebazan euren aŕtian ba-kia ipinteko; baña alperik.

Orduban gogoratu yakon auxe egitía:

Semai dei-egin eta agindu eutsen zugatz-adaŕ batzuk ekaŕteko.

Adaŕok ekaŕita ta eurekin txorta bat eginda, esan eutsen mutiľai adaŕ-txorta au austeko.

Semiak adaŕ-txortia aŕtu, indaŕ andija egin, baña ezin ausi.

Ori ikusíta, atak txortia azkatu ta adaŕak banan-banan emon eutsezan austeko.

Mutiľak adaŕak aŕtu ta banan-banan ausi ebezan.

Orduban atak esan eutsen:

—¿Eztozube ikusten, ba, eŕfaz-eŕfaz ausi dozubezala adaŕok banan-banan aŕtuta, ta, baŕiz, ezin ixan dozubela adaŕ-txortia bat-batez ausi? Beraulan be, zubek senduak ixango zarie ondo alkaŕtuten ba-zarie, batak bestiari lagun-eginda. Ostera, bakotxa bere aldetik ba-dabil, alkaŕen auŕka, galdubak ixango zarie: edonok egingo dautzube gurako daun kaltia.

## TXORIJAREN ABESTIJA

---



Kayola-baru  
txio-txioka,  
dagon txoritxu  
polita  
ixili-barik,  
dirudijanez,  
bai-dago pozik  
zorijaz.

Ez uste ori:  
bere eresija  
abesti ituna  
bai-da-ta.

Askok kayolan  
txorija ikusten  
gau eta egun  
txioka,  
pozik dagola  
uste dabe, ta  
itun-itunaz  
dago, ba.

¡Eztau abesten,  
ez, negar-dagi,  
espekuaren

negaŕa!  
 Lenago azke  
 zan axietan  
 ta orain dago  
 kayolan;  
 kayola argija  
 eta apainduba,  
 jespexa baltza  
 beretzat!

**Aizkibel'daf Bingen.**



## MOKOLUA TA KAKAUA

---

«Mokolua» da txokolatia.

¿Gure aŕtian nok eztaki zer dan mokolua?

Txokolatia ártzen da goxian, aratsaldian eta gabian. Goxian edonok ártzen dau: naiz txiro naiz aberatsak. Aratsaldian, andikijak edo andiki-usaindunak. Eta gabian, geyenetan, gexo-samá dagozanak.

Umiak be aratsaldian eskolatik etxera etorí ta ártzen dabe txokolate gordiña ogi-zati bategaz.

Mokolua, ona ixateko, «kakao, kanela ta azukariaz» eginda egon biaŕ da. Kakao onagaz txokolate ona; kakao txaŕagaz txokolate txaŕa.

Kakaua baba-antzukua da, baňa gogorá. Bero-erijetan aŕtutene da, zugatzetan (arboletan).

Kakauak diru asko emoten dautso gixonari, baňa ardura andijaz zaindu biaŕ da.

Txokolate-ixena Mexico'tik etorí ei-da. Bertan deŕtutene dautsoe «txokolatl.» Txoko'k esan gura dau kakao ta latl'ek ura.

Amaseigafen sigluan-edo etorí zan gugana txokolatia.

Kakau geyena Fernando Poo ta Guayaquil' etik etor ten yaku. Caracas'kua onena da. Kakao

onegaz egiten dabe txokolaterik onen eta karuena.

Kakaotik ataraten dan koipia on-onā da gure naŕuban egiten diran ziŕitubak osatuteko, baŕa beste gauza askotarako be.



*Jarduna.—¿Zer da kakaua ta zer mokolua? ¿Zegaz egién da mokolua? ¿Nun aŕtzen da kakaua?*

## JOLASAK

---

Jayegunetako jolasak, onak ba-dira, 'edeŕto datorkijoz gixonari.

Lanari lotuta dagonak, noxian-bein bere jolasak biaŕ dauz, gogua nasaŕtu ta lanian galdu dauzan indaŕak baŕiztetako.

Jolasak onak ixan biaŕ dira: ez txaŕak edo pekatu-zorijan jaŕten gaŕuberenak. Onelakuak dira jantza zikiňak, bada-ezpadako zine ta antzeŕki-jak, ordikerija, diruba galtzeko jokuak-eta. Jolas onek geure gogua nasaŕtu-biaŕian, ilunduten dauskube.

Jolasak be neuríz arŕtu biaŕ dira.

Jolasa gatza lakua da: jatekua onduteko alagakua, baňa laŕegi bot-a-ezkero, jatekuoi mingotz biguŕtzen da.

Ezta, ba, umetxu euzkelduna, aste gustija igandeko jolasaren egariz ta amuŕuz egon-biaŕ, gero igande-goxetik asi ta gaberaño jolasik-jolas ibilteko.

Antziňatxuban mutil euzkeldunak bola-lekuban, pelota-tokijan eta onetaiko lekubetan jolas-egin eta astija emoten eben jayegunetan. Gero, aŕastian, neska-mutilak eŕiko plazan edo landa

batian batu ta jantza garbija, alkari oratu-barik, egiten eben, elexako kanpayak «Angelus» joarте.

Baña oin, zoritxařez, jolas ta otura txařak ugari sařtu dira gure ařtian, gastien bijotza ustelduteko.

Jolas ta ekandu txařak inpernurako bidiak baño eztira.

Gogua gaizkatu gura ba-dogu, ba, arin eta bizkoř alde-egin biař dogu eurotatik.

Jolas ta ekandu garbijen zalia ixan beti, ene umiak.



## ABADIAREN ASPEKUNDIA

---

France'ko matxinada-aldijan ixan zan.

Ainbat jaupari (abade) erail (il) ebazan gixon gaizto-gaiztua gexorik eguan, oso txarfo.

Berak iñuan etzala abaderik bere etxian saŕtuko, ta jsaŕtuko zana eŕukaríja!

Berau ondo ezautzen eban jaupari batek jakin eban txarfo eguala gure gixona. Orixo jakin eta beste-barik erabagi eban, naiz bixitxa galdu-agiñian ipiñita be, gixaxuau bide onera ekafteko alegiñak egin.

Eta gexuaren gelian otoz-otuan saŕtu zan.

Gixona, jauparija ikusi ta didárka asi zan:

—¿Zer? ¿Abaderik nire etxian? Izkilubak (armak) ekaŕi agudo!

Iñok jaramonik egiten ezeutsola igaŕita, besuak jaso, jauparijari zuzendu ta asaŕe bixiz esaten eutson:

—¿Ikusten ete-dozak besuok? Jakik, ba, len amabi jaupari ilda yaukezala...

—Ez—erantzun eutson abadiak—etziran amabi ixan, amaika baño zeuk erail zenduzan jauparijok. Amabigaŕena etzan il: zeure aurian dagon berberea da. Ona emen—esan eban bulaŕa

agirijan ipiñita—zeuk egindako zaurijk. Goiko Jaunak, baña, zaindu gura ixan eustan gorputzko bixitxa, zeuri gogo (arima)-bixitxa emon al-ixateko.

Eta orixe esanda, besarkatu, malkuakaz bustita lagundu eutson erijotz ona egiten.

¡Etzan asperkunde (bengantza) txaŕa abadiaren asperkundia!



## EZ ASTIRIK GALDU

---

Idaztegi edo liburu-denda baten saŕtu zan ganorabako bat. Gixon onek astija galtzen eban alperik eta galdu-erazotene eutson edonori be.

Saŕtu ta dendako moŕoyari idazti (liburu) bat eskatu eutson, baŕa moŕoyak laster emon be.

Gixonak, idaztija arŕuta, itandu eutson:

—¿Zegan saltzen dozube idazti au?

—Lauŕleko bitan.

—Ondo dago.

Orixesanda, arki edo sila baten jaŕi ta liburuba arakatuten asi zan. Gero esan eutson moŕoyari:

—¿Ezin merkiagorik emon?

—Ez, bere saneurija (prezijua) orixe da-ta.

—Ondo dago.

Idaztija arakatuta gero itandu eutson:

—¿Etxian ete-dago denda onen jaubia?

—Bai, iraŕkolean (inprintan) dago lanian.

—Berau ikusi gura neuke, ba.

Moŕoya ugazabagana juan zan dendara etor-teko esaten.

Idaztegi-jaubia beriala agertu zan.

—¿Zer gura?

—¿Zenbat balijo dau idazti onek?

—Amaŕ eŕial.

—¿Amaŕ eŕial? ¿Eztaust moŕoyak esan, ba, lauŕleko bi baño balijo eztauzala?

—Bai, baña nik lauŕleko bi ta erdi eskatzen dautzudaz.

Gixona ixildu ta baŕiro asi zan idaztija arakatuten. Idaztegi-jaubia be ixil-ixilik lotu zan. Olan igazi (pasau) ziran miñuto batzuk.

Azkenez, esan eban gixonak:

—Tira; esan zenbat kenduko daustazun idazti onen ordez.

—Iru lauŕleko.

—¡Bai, zera! ¿Eztaustazu lentxubago esan lauŕleko bi ta erditān emongo zeunstala?

—Bai, baña goguan euki biaŕ dozu ordutik ona galdu dodan astija zeuri begira egoteko. ¿Eta denpora onek eztau ezer balijo, ala?

\* \* \*

Bai, astijk txindija (diruba) balijo dau. Ezto-gu, bada, astirik alperik galdu-biaŕ.

## U R A

Urak beteten dau ludi (mundu)-eŕdija baño geyago.

Ura biaŕ-biafezkua da.

Ur-barik ezin bixi.

Urik aŕtzen eztaun landarea igar tu ta ilten da.

Aberiak be ura biaŕ dabe bixi al ixateko.

¿Eta gixonak?

Gixonak be, landareak eta aberiak lez, ezin ur-barik bixi.

Urak on andija egiten dautso gixonari.

Txuŕukiak, coleak eta efotiac bultz-egin eta igitutene dabez.

Ibayak eta kanalak dira batetik bestera zamia (kargia) eruateko bidiak.

Itxasua be alagalakua da eŕi batekuak beste-kuakin aŕtu-emonak softu ta erabilteko. Berau da biderik erosuena oŕetarako.

Ba a urak on andija egiten dausku eduŕ-itxuri-iaz be.

Eduŕak, neguban basua estaldubaz, gorde ta zainduten dauz eder to baseŕit rak udagoyenian erein dauzan azijak. Eduŕagaz eztabe azijok

ixozte-bildufik. Ostantzian, kalte andija ar̄tuko eben.

Ur-luŕuna da buzkiñai (makiñai) eragiteko.

Itxas-ontzi ta bultzi (trena) geyenak ur-luŕunaz ibilten dira. Onek bultz-eragin eta inđaŕa emoten dautse.

¿Eta zelan softuten da ur-luŕuna?

Galdaria urez bete ta su-emonda. Subagaz ura irakin eta bor-bor asten da. Ór dozu, ba, luŕuna.

\* \* \*

¿Eta urak eztausku kalterik egiten?

Bai; kalterik be noxian-bein egiten dausku.

Ura gogoŕtuten danian txingóra egiten da. Eta txingoŕak, aŕija ba'litz lez, basora jausten danetan, bidian auŕkituten (topetan) dabent gus-tija naŕeztu ta galduen dabe.



## BARATZANA

---



Erdu nigaz.

Baratzanaren (jardineruaren) etxera juango gara.

Baratzana gixon onona da. Eta pozik erakutsiko dauskuz landareak.

Gustitariko landareak daukaz.

Eldu gara.

Ara: ikusi zugatz edo arbola andi orek. Ederto zainduta dagoz.

Batzuk dira zumar-ak eta bestetzuk astigafak. Leřak eta leřtxunak, uřkijak eta gorostijak be bai-dagoz of.

Baña ikusi loreak. ¡Lora eder-politak benetan!

Ara lařosak, klabeliňak, zitorijak (azuzenak)-eta.

«¡Lirio» onek dauke margo edo kolore polita!  
Baratzañak loreak aítu, txortiak egin eta saltzen dauz. Landareak be saltzen dauz bere lora ta lorontzijaz.

Guazan orain leyaíezko (kristalezko) etxe txikitxu a ikusten.

¿Igarsten dozube zer dan?

Neguban landareak eukíteko tokija.

Emen saítuta egoten dira landara samuñak. Negu-toki onetan dagozan landara geyenak kanpokuak dira, beruak diran eírijetatik ekañijak. Negu-aldijan toki onetan ezpa'legoz, otzak ilgo leukez.

Leyafetatik ziaír landaraok aítzen dabe argija, otzik ez baña.

Otz andija ixaten danian su-egiten da bertan.

Eguzkijaren argirik aítu-ezik, landara geyenak ilgo litxakez.

Landa-azi batzuk eskatuko dautsoguz baratzañari. Gero ikastetxeko baratzan ereinduko doguz. Simauír ona ipiñi ta egunian-egunian ura botako dautsegu, bizkorí ta lasterí erne datezan.

Loreak jayoko diranian aítu ta eruango do guz ikastolako (eskolako) geure leyora (bentanara). Euren marguagaz gozaítuko dira gure begijak eta geure sufa euren usañaz.

Umiak mate-dabez loreak.

Mate biať.

Batzuk eta bestiak alkařen antza dauke, lor-eak baño eztira-ta.



*Jarduna.—¿Zertzuč landara ta lora dagoz ikusi dogun baratzan?  
¿Zertzuk gauza dagoz bertan?*

## G A S T E T A S U N A

---

Txorijak legez ariña dogu  
 Gastetan ibilketia;  
 Gelditu-baga, juaten yaku  
 Jolasten egun gustija.  
 Itxas-bazter ta mendirik-mendi,  
 Uŕengo eŕekartia,  
 Olako asko, eta ganera  
 Pelotan jokatutia.

—¿Nun ibili az, ene semetxu,  
**Goxetik orańaŕtian?**

—Káramaŕuak aŕapatuten,  
 Amatxu, itxas-ertzian.

—Oŕ dakastazak galtza-baŕenak  
 Kresal ta ondaŕ nastian,  
 Eta oŕelan jolastuten az  
 Beti galbide-aŕtian.

—Soso eder bat abes-egiten  
 Egon da sasi-aŕtian,  
 Ariztegitik mendi-ganera  
 Jaŕaitzen daben bidian.

Nik uste izan-dot egongo zala  
 Umiakandik uŕian:  
 Bost soso-kume idoro dodaz  
 Abija sendo batian.

Aratxubago ota-moltzo bat,  
 Txindoña ota-ganian,  
 Abeslari ta gustiz alaitzu,  
 Pozez dagonen antzera.  
 Bere abija, umetxu bigaz,  
 Dago an, ota-tartian:  
 Oña, ba, amatxu, zorijonian  
 Egon naz aŕatsaldian.

--Jolastutia, beste amesik  
 Eztok ik eure lanetan;  
 Ikastetxia eta ikastiak  
 Bazteftzen dozak benetan.  
 Ene semetxu, asko biaŕ dok  
 Ikasi adin oŕetan,  
 Ixan atian askojakiňa  
 Ludiko arazuetan.

—Ama laztana, baketu zate:  
 Dantzudaz zeuren egijak.  
 Ikastetxian egiten dodaz  
 Gogotsu ikastaldijak.  
 Gastetasunak eruan-aŕen  
 Asterftzen alde gustijak,  
 Goguan dodaz zure agindu  
 Gustiz atseginggaŕijak.

**Etxeita'tar Joseba Imanol.**

## GURE ATEZANA

---

Bilbao'ko etxe bateko atezaña zapatari bařegafija zan.

Atian eguala bein jezaríta, lanari ekin eta ekin, gixon batek uferatu ta esan eutson:

—Egunon, aizkidia. Gauza bat esan gura-dautsot-eta, ¿detu nai-dautsozu bigařen oñeko Artobero'ri?

—Bai, ¿detu ez? (Zurubi edo eskilarara juanda): ¡Artobero!

Baña Artobero'k erantzun ez.

—Itxuraz, eztau entzun. ¿Detu gura-dautsozu bařiro?

—Bai, detuko dautsot. (Eskubak matrañan ezařita) ¡¡Artobero!!

Baña orain be dana ixilik.

—¡Ařayetan! Eztau jaramonik egiten. ¿Mezedez, detu gura dautsozu irugařenez?

—Bai, defukotsat. (Esku bijak matraletan jafita indar andija egiñaz) ¡¡¡Artobero!!!

Baña alperik oin be. Artobero'k eztau erantzuten.

Ori ikusi ta gogait-eginda, itanduten dautso gure gixonak atezañari:

—Zu, ¿baña Artobero etxian egongo ete-da?

—Eztakit, ba, aspalditik etxe onetan ezta bixi-ta...

## IRAKASPIDE ONA

---

Gangeri (kolera)-ixuríte ikařagařija zan Roma'n.

Andiki ta aberatzak, bilduřez, iges-egitēn eben bertatik.

Koldárkeri onen aurka zeozer egin biař.

Merode eritxon jaupari (abade) zinduari gogoratu yakon Doipurubagana (Aita Santubagana) juan.

Gogoratu ta egin.

Doipuru-aurian jaríta, esan eutson:

—Irakaspide edo ejenplu on bat biař dogu emen. Zuaz etxerik-etxe, gangeridunak ikusten.

IX'gafen Pi'k bijotz on-onā eukan. Eta beste barik, lagi ta Merode abadia lagun ebala ikeřtu (bixitau) ebazan banan-banan gangeridun eřukaríjak.

Etxeratu ziranian aurkiřtu eben Antonelli eritxon Jazkořduna (Kardenala).

Beronek ontzat ařtu eban egin ebena, baňa gero agiraka-egin eutson Merode abadiari Doipurubaren bixitxa galduřek zorijan ipiňi ebalako.


Merode'k ixilik entzun eban agirakia, ta Antonelli'k amatu ebanian, esan eutson:

—¿Eta zer?

—¿Eta zer, diñozu? Gangerijaz ilgo ba'litz Doipuruba?

—;Doipurubak ilten jakin biaŕ daben lez ilgo litxake!—erantzun eutson Merode jaupari azkarak.





## KATUBA TA AZERIJA

---

Katubak.—Egunon, andrea. ¿Zelan bixi?

Azerijak.—¿Nor az i, katu madarikatu ori, ni lako andera andi bategaz itz-egiteko?

Katubak.—Entzunda daukat zeu andera zuña ta ganora andiduna zarala. ¿Baña etzara txakuŕ-en eta eiztarijen (kazadorien) bilduŕ?

Azerijak.—¡Ze txakuŕ ta ze txakuŕ-oste! Nik gauza asko yakidazak txakuŕ ta eiztarijakandik iges-egiteko. Eta euk, katu ga xuok, zenbat dakinak?

Katubak.—Bat bakaŕik dakit. Txakuŕak nire atzetik ba-datoz, zugatz edo arbola batera igon... eta kitu. An nasai-nasai ta bilduŕ-barik egoten naz. Baña jzain, ene andria, txakuŕak eta eiztarijak oŕtik datoza...!

Txakuŕak.—¡Guau, guau, guau! ¡Grrrr! ¡Guau, guau, guau!

Katubak.—Igon, igon, ene andrea, nigaz zugatzera.

Azerijak.—¿Zelan igoñ, baña, nik etxa kijat zugatzetara igoten-eta? Arinéketian asi biaŕko nok. Aguŕ, bai-nayuak oŕtik ziaŕ anka-jokuan.

Katubak.—¡Azeri gaxua! Txakuŕak eldu ta oratu dautsoe. ¡Azeri aŕo ta zentzunbakua! Aibeste gauza jakin-biaŕian, zugatzetara igoten bakaŕik jakin ba'leu, ezeban bixitxa galdu ixango.

\* \* \*

Gixonai be saŕi jazoten (pasetan) yake azeri-jari jazo yakona. Biaŕ eztabezan gauza asko jakin eta, ostera, biaŕ daben gauzarik ez. Oŕegatik galtzen dira ain eŕaz.



## EZ BATA EZ BESTIA

---

Koldobika'k dana ikusten dau txarto. Esan gura-dogu beti dagola gauza ilunak oldozten (pentsetan). Beretzako ezin iñoz etorri gauza onik.

¿Hun dago eguna? ¡Txingor te ikaragafija etoriko da!

¿Euri ja ete-da? ¡Ene! Uyol andijak etorri ta kaltiak baño eztauskuz egingo.

¿Eguzkirk dago? ¡Aránua! Legor te ankerá elduko yaku.

Edozein gauzeten kaltia baño eztau ikusten gure Koldobika'k. ¡Auxe da gogo ilundun gixona!

\* \* \*

Mikel'ak, bañiz, gauza gustijak ikusten dauz begi argijaz. Beretzako gauza onak baño ezin leiz etorri edonundik.

¿Berak aítutako asmorik lufera jausten ete-yako? Ezta ardura. Bein-edo-bein asiko yakoz gauziak zuzenduten.

¿Kalian jausi ta buruba apurtu dau? ¿Eta zer? Ori baño geyago jazo al ixango leuskijo.

¿Otza da? Udean ixango da berua.

¿Berua da? Neguban etorriko da otza.  
 Eta oretara dana. Mikeltxu'rentzat eztago gauza txarik. ¡Mutil au da zorijonduna!

\* \* \*

Jon ezta Koldobika ta Mikel-lakoxia. Bakotxari beria emoten dautso.

Munduko gauza gustijk aritutenean dauz eurak diran lez.

Bere arazuak ondo duazanian, kolkorako esaten dau:

—¡Olantxe juango al-dira beti!

Neke-atsekabietan ezta bere gogua gustiz iluntzen.

—Gauza txaren ostez gauza onak etorten dira—oldozten dau. Eta bañuba nasañuten yako.

Eztauz beti ames gozuak egiten, baña oldozkai itunak (pentsamentu tristiak) be eztautsoe bijotza uratutenean.

Jon'ak dauko Koldobika ta Mikel'ak baño zentzun geyago.

\* \* \*

Zubek be, ume euzkeldunok, Jon-lakoxia ixan: ez gogo ilunegi ez gogo argijegi, biañ dana baño.

Gauzak artu eurak diran letxe, onera edo txarera beti-beti jo-barik.



## ONDO ESANDA

---

Lekaide (prale) bat bidez joyan gudari (soldau)-buru bi-onduan.

Onek destañez ta iri-bařeka Uskuřtz edo Erlíjiňuatzaz bařiketan asi ziran.

¡Ene! An ziran guzuř ta kirtenkerijak... Ez bařijak baňa: beti esan oi-diranak.

Lekaidiak ixil-ixilik entzuten eban gustija.

Ixilik egoten aspeſtu zanian, asi zan eurakaz bařiketan. Eta, igari-barik, guda (gefá)-gauzeta jo eban.

Lekaidia asi zan ben-ben onetzaz itz-egiten eta gogo gustijaz kirtenkeri ugari esaten.

Gudarijak baře ta baře egozan.

Lekaidia, be, asařatu-biařian, eurekaz bařeka asi zan. Eta jařařu eban esaten:

—Jakin-ezegafík gudeatzaz diňodazan kirtenkerijak baře-eragíten dautzube, ta ondo egíten dozube.

Auxe jazoten yako, ba, deusik eztakijan gauzatzaz bařiketan diňardunari. Lentxu Erlíjiňuatzaz bařiketan ekin dautsozube ta nik gudeatzaz

esan dodazan tentelkerijak baño andijaguak  
esan dozubez.

\* \* \*

Irakaspide edo leziño ederá emon eutsen le-  
kaidiak soldau-burubai.

Eztogu iñoz berbarik egin biañ deusik eztaki-  
gun gauzatzaz. Zer esan eztakigunian, ixildu.  
Orixe da onena.



## KONTU BIJAK

---

Amaŕ urtedun mutiko batek entzun eban etxian ordaindu edo pagau biaŕ ebezala kontu batzuk.

Gogoratu eutson orduban bere amari aurkeztu (presentau) aspalditik egiten eutsozan lanen kontuba,

Eguberdijan, mayan jezaŕtian, kontu au aurkitu edo topau eban amak:

### **Amak zor-dautso Iñaki bere semiari:**

#### Lauŕleko

Ikatzaren bila sei bidaŕ juan dalako . . . . .	5
Eguŕ-bila batzutan juan dalako . . . . .	5
Agindu batzuk bete dauzalako . . . . .	3
Mutil ona beti ixan dalako . . . . .	3
<b>GUSTIZ. . . . .</b>	<b>16</b>

Amak kontuba aŕtu ta ezeban ezer esan.

Gabian, mayan jezaŕtian, azpilan (plateran) aurkitu ebazan Iñaki'k amasei lauŕlekuok.

Diruba aŕtu ta sakelian pozik saŕtu be. Baňa berrialaxe ikusi eban diru-onduan eguan beste kontu au:

**Iñaki'k zor-dautso bere amari:**

Amaŕ urte zorijontsu etxian egon da-	
lako . . . . .	ezer ez.
Amaŕ urtotan jaten eta edaten emon	
dautsolako . . . . .	ezer ez.
Gexorik egon danetan ondo zaindu dau-	
lako . . . . .	ezer ez.
Amaŕ urtotan beretzako ama ona ixan	
dalako. . . . .	<u>ezer ez.</u>
GUSTIZ. . . . .	<u>ezer ez.</u>

Iñaki'k irakurri ebanian kontu au ikaratuta lo-  
tu zan. Eta begijak negaŕ-malkuaz bustiŕa, ama  
laztandu eban, esanaz:

—Amatxu, azketsi edo parkatu nagixu. Zeuk  
eztaustazu zoŕik. Nik zuri, baŕiz, zoŕ andija dau-  
tzut. Agindu, bada, gura dozuna ta nik atsegi-  
ñez egingo dautzut.

\* \* \*

Egija esan eban Iñaki gure mutilak: gurasuak  
eztauste geuri zoŕik, baña geuk gurasuai, baŕiz,  
zoŕ andi-andija, bai.

## ITXASUA TA BIJOTZA

---

Itxasua zerbaitez ezautzen dogu bere ertzetan bixi garanok.

Zabal, sakon eta urdiña da. Gora-bera andijak daukaz. ¿Nok eskuratu itxasua?

Batzutan dirudi laŕan dagon bildots apala; bestetzutan ofruka jagiten dan otso zakarfa.

Itxasuak leiz, arkaitz eta zuŕunbilo andijak dauz ta noxian-bein agertzen yaku eguzkijari arpegija estalduten, keya dirudijen odehyakin.

Itxasuaren antzeko beste gauzarik aurkituteko ezta eŕaza. Ofrañio, ¿eztozube uste gure bijotzak itxasuaren antzik daukanik?

Gixonaren bijotza zabala, sakona ta ikaragaŕija da: ondorik gabeko oxiña edo pozuba ta luŕeko gauza gustijak ezin bete leikien leiza da.

Noz-nai arrotzen da itxasua baño sutsubago: ekaitz ta olatuz, atxez ta lañoz betetan yaku. Itxasua ezin da geldirik egon: gure bijotza, be, beti ibilten da. Itxasuak askotaiko aŕanak daukaz, ta euretarik batzuk txaŕak. Gixonaren bijotzan, be, asmo ta gogo asko dagoz, ta lixunak geyenak.

Gaiztokira (inpernura) duazan gustijak bijo-

tzañ sortu yakezan ekatxak galtzen dauz; baña ilten diran gustijak eztauz itxasuak iñoten. Nik beintzat itxasuari baño nire bijotzari bilduf geyago dautsot.

Jaunak lagun-bekigu, geugaz daruagun itxaso onetan galdu ezkañezan.



i G O M U T A U   E G I X U.....!

---

Bixitz igazkoñ-onduan dago  
 Erijotz ixugaríja;  
 Beraren esku-atzaparéstan  
 Itxiko dogu bixitxa.

Aberats eta txiro gustijak,  
 Ezeukijak eta altsubak  
 Erijotzaren guda oretan  
 Ixango dira betubak.

Ara gixon bat.... ara bestia....  
 Ara amá.... aneigañena....  
 Ezin leikezan zenbatu-aña,  
 Orok galduen bizmena.

Batzutan ume txiki-txikijak,  
 Polit-politak ¡gaxuak!  
 Jausi ta jausi obi-zulora,  
 Itxitña amaren besuak.

Beste batzutan gastiak dira,  
 Gaste sendo ta zolijak,  
 Ilten diranak jaritsi-barik  
 Euren gurari bixijak.

Orain gixonak lagatuten dauz  
 Emazte samuña alaígun;  
 Seme txikijak umezuítz eta  
 Sendi gustija betilun.

Ikusi gero agure zaírak  
 Obi-onduan dardarez.  
 Jausi-zorijan dagoz, dardarak  
 Adirazoten dabenez.

Gustijak duaz, danak agudo  
 Bixitz ontatik bestera.  
 ¡Autsa ta loya ez ixanikan  
 Beste gauzarik ezkara!

**Efenderi Abea (Bizkayeralduta)**



## GURASUEN AGINDUBAK

---

Gurasuen agindubak bete biañ doguz:

A) Agudo, nagi-barik. Biaña ba-da, esku-añtian darabilgun arazua bertan-bera itxitā.

G) Ziatz-ziatz, gurasuak gura daben letxe eginda.

K) Gogo onaz ta ez betozkoz ta gogo txañaz.

Ixaka'k Abañan bere atari Mori mendira jañatū eutson, lepuan eguna eroyala. Eta gogorik onenagaz, txitik esan-barik, esku ta oñak lotu ta opañ-ganian jañten itxi eutson, aiztuaz (kutxi-luaz) il eta bere bixitxa Jaun-goikua'ri opaldu-teko (eskintzekeo).

Koriolanus, éromatañ guda (gera)-burubak Roma gudariz (soldauz) inguratu eban.

Gixon azkañ onek bere menbian egozan gudarijai agindu eutsen Roma'n sañtu ta euren eskubetan itxiko ebala urija. Ostantzian, berari bixitxa kentzekeo.

Éromatañak bere ama bidaldu eutsoen Koriolanus'i gudari-esija austeko eskatzen.

Bere oñetan belaunbikatuta ama ikusi ebanian, Koriolanus'ak esan ei-eutson:

—Ama, Roma gaizkatu edo salbau dozu, baña semia galdu.

Bai, ba, Koriolanus'ak laster galdu biaŕ ixan eban bixitxa bere gudarien (soldauen) esku-betan.

Oŕa of Ixaka ta Koriolanus seme zintzuak. Gurasuen aginduba betetiaŕen lenengua geŕtu eguna bixitxa galtzeko ta bigaŕenak pozik galdu eban.

\* \* \*

Oratíño, gurasuen agindubak eztoguz bete biaŕ, esaterako Jaun-goikua'ren aginduben aurka (kontra) duazanian.

—Ua lanera—esan eutson aŕa gaitzuak semiari.

—Ezin juan, aŕa. Gauŕ igandia da ta Jaun-goikua'ren lagijak galazoten dau jai-egunetan lanik egitía.

—I andija az: Jaun-goikua'ren lagijak umientzako bakaŕik dozak.

—Jaun-goikua'ren lagijak umientzako bakaŕik ba-dira, eztautzut lotsarik ixan biaŕ, laugareň aginduba be umientzako bakaŕik ixango da-ta.

Erantzun edera gure mutilaren erantzuna.

## BULTZI. TAŔANTA TA EGAZKINAK

---



Bultzijak buzpurdi

Bultzija da eŕi batetik bestera arin - arin juateko.

Bultzija burdin-bide-  
tik dua, beti leku berber-  
atik. Bere auŕetik eta  
oni oratuta buzkiña (ma-  
kinia) dua, kia darijola.

Len, antziñan, ezeguan  
bultzirik. Orduban oñez  
edo zalbuŕdiz (kotxez)  
ibilten ziran gixonak.  
Eta, jakiña, asti andija  
biaŕ ixaten eben batetik  
bestera juateko.

Baňa orain, ez. Bultzi-  
jan saŕtuta, berialako  
baten juaten gara Bil-  
bao'tik Durango'raño  
edo Durango'tik Donos-  
ti'raño.

(bagoi) batzuk eruaten

dauz: geyenak geu juateko ta enparabak zamia (kargia) eruateko.

\* \* \*

Bultzija baño ariñagua tafanta da.

Tarfanta tximista lez ibilten da.

Gure efijetatik ugari ibilten dira tarfantak, oluak eta txařijak zapaltzen, umerik zapaltzen eztabenian.

Lenengoz ikusi genduzanian tarfantok ikaratura geratu giňian. ¡Ene! ¡A zan ikuskarija!

Baña onezkero, ainbeste tarfanta ikusita, oitura gagoz eurakaz.

\* \* \*

Tarfanta bera baño ariñagua egazkiña da.

¿Egazkiña eztakixube zer dan?

Egazkiña txori andija lakoxia da. Eta txorija lez, axian ibilten da.

Egazkiñetan, bultzi ta tarfantetan lez, gixonak ibilten dira. Eta oraingo guda edo gerian kaňoyak eruan dabez bertan, andik su-egiteko.

Egazkin baten saftuta asti gitxigaz juan lei ufunera.

Egazkiña, len esan dogun lez, txorija-lakoxia

da bere itxurazta ibiltez, ¿Eta bai-dakixube gero zelan ibilten diran txorijak?

\* \* \*

Gure asabeak (ata zaŕak) ezeben ikusi ez bultzirik, ez tafantarik, ez egazkiñik. Geuk ikusi ta ezagutu doguz eurok.

¿Zer ikusiko dabe ondiño gure ondorenguak?



*Jarduna.*—¿Zelakuak eta zetarako dira bultzijak, tafantak eta egazkiñak?

## BAKOTXAK BERE USTIA

---

### (IPUÑA)

Baseritār bat bere semiaz joyan periara eur-ekin eroyen astua saltzeko ustiaz.

Bidian topau eben gixon batek esan eban eur-ak ikusīta:

—¡Au da gixon zorua! Bera ta semia oñez duaz, asto-ganian, arkoloka jezarīta, juan-biarīan.

Orixetza, oldoztu edo «pentsau» eban baseritārak zuzen eguala gixon a. Eta semia ar-tuta, asto-ganian jaři eban. Berak oñez jařatuko eutson bidiari.

Iibili ta ibili, beste gixon bat auŕkitu eben bidian. Eta onek, asto-ganian joyan mutilari zuzenduta, esan eutson:

—I, mutil, etxagok ondo i asto-ganian jezarīta juan eta ire aña oñez.

Baseritārak, beste ori entzunda, oldoztu eban gixon a zuzen eguala. Eta semia asto-ganetik eratsi ta bera igon zan.

Iibili ta ibili, beste gixon batek topo-egin eban eurekin bidian. Eta onek esan eutson asto-ganian joyan baseritārari:

—¡Sekuleko gixona zara! Zeu asto-ganian, na-

sai-nasai jafi, ta, bañiz, seme gaxua zeure atzettik oñez ta ibili-eziñik.

Baseritárapak oldoztu eban zuzen eguala gixon a, ta semia airturik, asto-ganian jaeti éban, bere onduan.

Ibili ta ibili, beste gixon bat aurkitu eben bidian.

—Zu, gixon — itandu eutson baseritáfari — zeuria da asto ori?

—Bai, ba.

—Ezeban iñok esango. Asto-ganian juan-barik, obeto egingo zeunkie astua airtu ta eruan zuben lepuan.

—Tira, ba—esan eban baseritárapak.

Eta beste-barik, bijok lufera jatsi ta indar an-dija egiñaz astua airtu eben lepuan.

Itxura onetan joyazan efi-ondoko zubitik, kaleko lagunak bañe-algarak egiten ebezala.

Baña astuak, zentzun andijaz, ezeban gura iñoren lepuan juan. Eta bat-batez, lotuta eukan kordela ausi, zubitik uretara jausi..... ta ito zan.

Baseitári gixaxua asto-barik geratu zan edonoren esanai jaramonik («kasurik») egitiañen.

\* \* \*

Etxako edonori jaramonik egin biañ, gixonak bañiketarako gogua beti dau-ta.

## ANKIA AUSI

---

Tripandi joyan bein asto-ganian, arkoloka jeariña.

Alako baten astua ixutu ta arin-aringa asi zan. Gure gixonak, lufera jausitā, anka bat ausi eban.

—¡Ai ene! — iñuan erdi-negaréz gixaxuak —. Anka bat ausi yat.

Ordubete igazitā (pasauta) ta nekez ba-zan be, zutindu zan. Tripandi, astua bilatu ta bere ganera bañiro igonda, eíko osalari edo mediku-baren etxerantz abijau zan.

—Egunon—esan eban osalari-etxian saítzian.

—Baña zeuri be.

—¿Etxian ete-dago mediku jauna?

—Ez, baña laster juango gara bere biña. ¿Zerdakazu, Tripandi? ¿Ezbiařen (desgraziaren) bat jazo yatzu, ala?

—Bai, ta ez makala gero. Asto-ganian orí beko aldetik nentorala, lufera jausi ta anka bat ausi yat.

—¡Ene bada!

Berialako baten abijau ziran etxeko gustijk osalarija bilatuten.

—Tira, Tripandi—esan eutson onek etxera el-dutian—. ¿Zein da ausi yatzun ankia?

—Itxon pizkat, osalari jauna. ¿Bakixu gero ez-todala gomutetan eskuma ala eskeřekua ixan dan?

Eta osalarijak, dudarik ez eukičeko, anka bijak osatu eutsozan.



## G A B O N A



- Miren Ama Neskutzaren abestija:
- Ene semetxu maŕe [maŕia,  
Ene Jaun-goiko bixija:  
Ona zeure bijotz-ama- [txuba,  
Goi ta beko Jaun andija!
- Mendi ta murubetan [eduŕ da,  
Letu ipafak latsak diŕu:  
Gixonen bulaŕ-baŕuban [bere  
Lei-bijotza auŕkituko zu.
- Ilun-ilun gauŕko ga- [ba dago,  
Ezta zeruban ixarik:  
Gixonen adimenak ber- [e-bai  
Dagoz ilun-ilundurik.
- Baña ludija poz ixan [bedi

Eguzkija urten dalako:  
 Argitzeko gixonen burubak  
 Eta bijotzak suzteko.

—¡Ene odolaren odol deuna!  
 ¡Ene begijen betseña!  
 ¡Ene bijotzaren bijotxuba!  
 ¡Ene sabelaren seña!

—Artzaintxu zerutarí laztantxuba,  
 Neuk be lagunduko zatut:  
 Artxuren bat igesten ba-yatzu,  
 Neuk eratoríko dautzut.

—Zeure begi ederetan dukust  
 Zeure bijotza osoro:  
 Zeure bixitz gustija dakust oí.....  
 ¡Ai, ene, lo, kutuna, lo!

**Arana eta Goiriñaf Sabin**



## A K E T E A

---

«Aketea» da «kafia».

Kafia gustijok dakigu zer dan. Baña ez zelan eta nun aŕtzen dan.

Aketea uŕundik ekaŕten dauskube, bero-eŕijetatik, eta on-onak da guretzat.

Aketea-aliak ori-orlegijak (berdiak) dira, eŕeta gero baltz-baltz geratzeko.

Aketearak, eŕeten danian, usain ederá botaten dau.

Eŕeta gero eyo edo biŕinduten da. Ori eginda, ur beruetara bota ta aŕtzen da.

Batzutan utzik aŕtzen dogu; bestetzutan esniaz nastauta, baña beti azukariaz, aketea, berez, mingotsa da-ta.

Aketea ona da lo-gura kenduteko ta gure zan-zurijai (nerbijuai) eragiteko.

Kafe-landarea bero-eŕijetan azten da. Otz eta axiak kalte-egiten dautsoe.

Aketea-landareak bost-sei metro eukíten dauz luzerean. Oŕijak orlegi (berde) bixijak dira ta loreak txikijak eta zurijak.

Arnari edo frutubak, kerexa-antzkuak.

Lenengo margo orlegija (kolore berdia) dau-

ke, baña elduteko dagozanian margo gorizka aítzen dabe. Elduta gero koloria ilunduten yako.

Fruto bakotxan ale bi dagoz batuta: onexek dira kafiaren aliak, kafia egiteko saltzen diranak.

Aketa-landareak ardura andija biaír dabe azteko. Leku batzutan ipiní biaír dira euren onduan beste landara batzuk, kerixea emoteko.

Aketa-landaraen luíra ondo joíratu ta garbitu biaír da, bedarí txarík ez azteko. Landara onek luír onan ba-dagoz, ogei, ogetamaír ta berogei urte ta geyago be bixi-ixaten dira.

Saldu baño len, aketa-aliai gauza asko egiten yakez: garbitu, ziketu, azala kendu ta abarí.

«Atxikoria» nastetan da askotan aketeaz. Eta ezta txarfa neste ori.

Geuk aítzen dogun aketa geyena Brasil'etik datorí. Emen aítzen ei-da iñun baño geyago. Puerto Rico'tik be etoríten da, baña au obia ta karuagua da.

Ludiko akefarik onena Arabia'kua da. «Moka» deritxo. Baña aketa au aberatsak baño eztabe aítzen.

## ABELIÑE ERUKIJOÑA

---

Abeliñe amabi urtedun neskatortxu umezuñtza zan. Soñekuak eta otondo bat eskuban ziran bere ogasun gustijak. Eskian, eñirik-eñi, zelairik-zelai ta mendirik-mendi ibilten zan.

Bein bidian aurkitu eban gosez etorán aguratxu bat, eta onek esan eutson:

—Ene alabatxu: atzo ta gauñ jan-barik nago. Eldu nazan leku gustijetan «Jaunkua lagun» erantzun dauste. Ekazu, bada, otondo oñen erdija ta ¡Jaun-goikua'k ordainduko dautzu!

Abeliñe erukitü zan eta otondo gustija emon eutsan, esanaz:

—¡Jaun-goikua'k lagundu dagigula.

Uñengo egunian jausi-alian zan eduña, ta leituta eguan eñekondo baten aurkitu eban gorputza otz-ikaraz erabilan mutikua, ta onek esan eutson:

—¡Il biañ naz otzez zeure janzkijakaz berotuten ezpa-nozu!

Eñukitü zan Abeliñe ta emon eutsan sorbal-dan eroyan zapija, esanaz:

—¡Jaun-goikua'k lagundu dagigula!

Eñukijoña zalako, aldi gitxi-bañu emon eba-

zan Abeliñe'k, bañuko estalkija itxita, beste soñeko gustijak eta geratu tan ija-biloxik ařigarizko eguraldi otzetan. Olan bide-egin eban eta eldu zan ondorengorik ezeukan etxaguntza eder batera, bera lako eřukijořak ziran senař-emaztiakana. Onek entzun ebenian Abeliñe'ren edestija, gogotsu besafkatu eben. Jantzi eben ondo ta poz-pozik ařtu eben euren alabatzat. Saři esan ebana jazo yakon: ¡Jaun-goikua'k lagundu eutsan!

**Etxeita'taf Joseba Imanol**



## A M A U M I A G A Z



Ene gotzontxu txikija,  
 Ene bijotzaren zatija,  
 Etxagok txoririk  
 Ezta lorarik  
 Eu baño politagorik.  
 Eure bařeiri gozo-gozua  
 Dok argitzen dauna  
 Neure gogua.  
 ¿Edeŕa dala zer dok goi-  
                                      [zaldia  
 Eure onduan? Ezebez,  
                                      [matia.  
 ¡Ene bijotza!, bařetxu bat  
                                      [egik...  
 Aolan... laztandu nagik...  
 Laztanduik gogoŕ eure  
                                      [ama,  
 Ama laztana.  
 Egistak ma...  
 Beste bat orain... ia bes-  
                                      [te bat...  
 Gozatsu yaukuat  
 Neure bařuba,

Ene gotzontxuba.  
 Ezinduket, ez, ordeztuko nik  
 Ludijan dan gustijagañik.  
 Eguzki neuria,  
 Amaren loria,  
 Neure bixija,  
 Neure gustija.

**Bustintza'tar Ebaista**



## AUTSA BAÑO EZKARA

---

Jai andija. Eriko Zaindarijaren (Patroyaren) jayegun-aŕatsaldia.

Zeya oztez (lagunez) beterik dago.

Arpegi argijak, gogo alayak, atsegiňa darijoen bijotzak, baŕia, poza, zorakerija...

Bat-baten kanpayaren otsa entzuten da.

Garbiŕokitik (Purgatoriotik) gogo edo arima gaxuak dagiskuben didaŕ-oyuba dirudi.

«Ilgo zara.» Jaun-goikua'k ezaŕi euskun epaya gogoratzen dausku.

Zuben jolasak, zuben atsegiňak, zuben baŕe zoruak, zuben gastetasuna... ekaitz - egunetan odehyak ziaŕkatuten dauzan tximistia lez, edo mendi-tontoŕetatik aŕu sakonetara aŕija jausi oi-dan era berberean, erijotz-aldera duaz.

\* \* \*

Emen datza... atzo eŕiko plazan jantza ta jantza ebilan gaste polit-leŕdena. Erijotzak jerijotz ankeŕak! adińik zoragaŕijenian erpe zoŕotzak ezaŕi dautsoz...

Emen datza... jauregija bixi-tokitzat, oyal bigunak estalgitzat eukazan aberats afo ta zorua...

Emen datza... jakitun ospetsuba, au, ori ta bestia ekixan jakitun entzutetsuba... Oñatiño, baña, ezeban ikasi erijotzagandik iges-egiten.

Emen datza... egunoroko ogija aterik-ate eskatzen eban txiro gaxua....

\* \* \*

—Zu, esan: azuŕ onek norenak ete-dira?

—Eztakit.

—¿Eta gorpuzkiñok?

—Órexek bez.

—¿Eztakixu gaste ala zaŕ, aberats ala txiro, jakitun ala ez-jakinenak diran?

—Ez. Illobijan baŕdinduten gara gustijok. Emen ezkara ludijan (munduban) ixan garana. Naiz jakitun, naiz aberats, naiz txiro, emen ezkara auts utza baño.

Autsagaz eginda gagozanok auts-biguŕtzen gara erijotzaz.

## AMASASPI ASTUAK

---

### (IPUNA)

Mahometar batek iru seme eukazan. Jarauntsiz edo «erentzijaz» itxi eutsozan zañenari, ainbat astoren jaube zan lez, euroen «erdijk»; bigañenari, «irutik bat»; gastienari, «bederatzitik bat».

Ora nun ata ilda, iru semiok ikusten daben amasaspi asto eukezala. ¿Zelan banandu bakotxari beriak?

Bakotxari yagokozan, ba, itxuraz, onenbeste asto ta... zati bat. ¿Zati au zelan artu bixirik?

Burubak galdua diñardube agiraka ta asareka, alkafi edozer esaten, iñundik ezin atu dirala. Azkenian, bai-duaz gixon zur bategana, lagundu egijoela eskatzen.

—Bayetz, ba. Ia zein dan okeña.

—Onantxe ta onantxe.

—Ba, ori eñaza da. ¿Nun dozubez astuak?

—Ara oñtxe.

—Zuaze euren bila.

Bai-duaz. Salto bitan an ziran beriala euren astuakaz.

—¿Or dozubez danok?

—Bai, ba.

—Ipiñi egixubez eřeskan... aolan... Tira. Ia zenbat diran: bat, bi, iru, lau, bost, sei, saspi, zořtzi, bederatzi, amař, amaika, amabi, amairu, amalau, amabost, amasei, amasaspi. Ondo dagoz. Ara zer egingo dogun. Zagoze begira.

Bere mutiletarik bati didar-egiten dautso:

—Atoř ona. Ua salto baten nire etxera. Ekařidak ona nire astoetarik bat, beriala.

Laster eltzen da mutila astuagaz.

—Ipiñi or, beste ořen eřeskan. Ia zařena: ¿zenbat itxi dautzuz atak? ¿Erdijak? Artu egixuz, ba, bederatzi asto, ta ospa. Zu, bigařena, eruan egixuz irutik bat, sei. Eta zeuri, irugařenari, bederatzitik bat dagokixu. Beraz, amazořtzitik, bi. Artu egixuz zeure bijak. Bi ta sei, zořtzi, ta bederatzi, amasaspi.

Bakotxa beriagaz joyazala, uartru eben amazořzigrařena... mutilak eroyala bařiro kortara.

*Jarduna.* —¿Uleftu edo adiū dozube zelan ixan leiken au? Esan.

## A N A I   B I J A K

## ( I P U Ñ A )

Jerosolin luŕ landuba zan. \*Anai bik erabilen orain Jauna'ren txadona (eleiza) dakuskun luŕzatija. Bata ezkonduba zan eta seme-alaba ugari ebazan. Bestia bakarik bixi zan. Bijok batera, erdi-bana, landuten eben amagandik aŕtutako luŕa.

Gari-biltzaldija (garija batuteko aldi ja edo denporia) eldu zanian, bakotxak bere eskutak egin ebazan eta soluan bertan, piŕo bi baŕdiñetan, itxi ebezan.

Gaba elduta, ezkonge egua n anayari asmo ona otu yakon. Nire anayak—iñuan bere kolkorako —emazte ta seme-alabak alikatu (jaten emon) biaŕ dauz. Ezta, ba, egoki bijok gari-piŕo baŕdiñak aŕtutia. Ixil-ixilik juanda, neure pilotik beriarri eskuta batzuk ezarí biaŕ dau tsodaz. Eztau igariko ta onetara ezetzik be ezin esan.

Otu yakon lez egin eban.

Gau atan bertan beste anayak, umiak ogeratu ta emaztiari iñotson:

—Ene anaya ondiño gastia da. Bakarik bixi

da, lagun-barik. Bere lanetan nok urgazi (lagundu) eztauko; atsekabietan nok atsegindu bez. Ezta, ba, egoki guk berak beste gari aŕtzia. Guazan eta ixil-ixilik gari-eskuta batzuk ezaŕi dayoguzan bere piluari. Eztau igaríko ta ezin ezetzik esan.

Otu ta egin.

Úrengo goxian solora juan ziranian anai bijok, gelduta (mirarifuta) lotu ziran gari-piluak baŕdin-baŕdin ikusita. Ez batak ez bestiak ezin uleŕtu ori.

Etziran, oŕatiño, aspeŕtu. Úrengo gabetan be ekin eutsoen batak bestiari eskutak ezaŕtiari, Baña piluak beti baŕdiñak, anai bijak gari-eskutak baŕdin alkaŕi emoten eutsoezan-eta.

Gau baten bijak zain geratu ziran jazoten zana jakiteko, ta batak bestiari gari-eskutak eruaten eutsozala, bijak alkaŕegaz topo-eginda, ikaratu ta gelditú ziran.

*Jarduna.*—Esan onen antzeko ipuin edo jazokunen bat.

## ERIJOTZ-GARALIA

---

Lobel-abeltxu (infusorio) bat jayo ta pozik bixi zan, baña ispel (ostra) batek jan eban.

Ispela alai (pozik) eguala, arain batek iruntsi eban.

Araña ur-azalez joyan bein, baña beragana itxas-txori batek eldu, atzaparacakaz oratu ta il eban.

Afanokumiak itxas-txorija aftu ta iruntsi eban.

Afanokumia, zorijondun, aitz-zulo baten saftu, egalpian buruba eskutau ta lotan geratu zan. Baña laster azerijkak etorri ta il eban.

Otsuak il eban azerija.

Katamotzak, otsua.

Lunak (lioyak), katamotza.

Eta orixe eginda, afo-afo esan eban: «Ni naz abere-bakalduna (animali-eřegia).»

Baña eitzari edo kazadore batek tiroka berau il eta buruba jasota esan eban: «Ni naz ludiko (munduko) bakalduna.»

Orixesanda, dardaraz asi, bekokija ixerdi otzaz busti ta lufera jausi zan, erijotzak ilda.

«Eztago ludijan nok nire aurka egin. Gustijok betu, gustijuen goitik garale lotuten naz. Ni naz ludi (mundu) gustiko eñegia: ni naz erijotza.»

Orduban agiri ixan zan gotzon edo aingeruba, odoi zuri-zuriz inguratuta ta bekokijan gurutza erakusten ebala. Alde gustijetara begiratuta, abots senduaz esan eban:

«Aloroduna (gusti-alduna) dan Jaunaren ixenian; ludi onen egilia dan Jaun-goikua'ren ixenian: ¡berbixi ilik zagozen gustijok!»

«Jaun-goikua da gauza gustijen Jauna; Jaun-goikua da bixitxaren egilia, erijotz-garale bakaña.»



*Jarduna.*—¿Zein da gauza gustijen Jauna, geure bixitxaren egilia ta geure gain dagona?

## SAGAR USTELA

---

### (IPUÑA)

Ume ona zan Andonitxu, baña azijaz joyala lagun gaizto-samañakin ibilten asi zan.

Amak bein baño geyagotan arekaná ez juateko esaten eutsan, baña alperik.

—Lagun gaiztuakin ibilten ba-zara, gaiztotuko zara.

—Ez, amatxu. Arek neugaz ta neure antzeko beste lagunakaz onduko dira laster.

Bein amak sagaí eder-ederíak aukeratu, ustel bat arekaz batian batu eta, semiak ikusten ebalia, lasto-ganian ipiñi ebazan ganbaran.

Andonitxu'k sagar ustela kendu gura ixan eban, bestiak ustelduko ebazala esanaz, baña amak ezeutson itxi, ustela zinduen aftian zindotuko zala-ta.

Aldi luzetxuba igarota, ara duaz ama-semiak sagaí arek zelan egozan ikusten, eta... geyenak ustelduta aurkitu ebezan, eta lenengoko ustelagandik uríntxu egozanak be ustelduten asifa.

—¿Eneban nik esan zer jazoko zan, amatxu? Ara, sagaí gustijak alperik galdu yakuz—negar ta negar iñuan Andonitxu'k.

—Eztira alperik galdu—esan eutson amak—, nik safi esan dautzudana goguan ondo aŕtzen ba-dozu. Sagar̄ o en ordez beste batzuk erosi leikez, ba a lagun gaiztuak nire semia usteltzen ba-dauste...  zer ixango da geugaz?

\* \* \*

Zuzen eguan Andonitxu'ren ama. Sagar̄ ustelaz sagar̄ onak usteltzen diran letxe, lagun gaiztuakaz gaiztotu ta galtzen dira ume onak.

Ez ibili, bada, lagun gaiztuakin.



## OBENAREN NEKIA

---

Ogasun-bila aberíja  
 itxi dokan euzkotaŕ:  
 uŕun ire gurarija  
 loŕtu-barik, mingarija,  
 ixango dok bixitxa.

Azan zoro ta erua  
 uleŕtuko dokanan,  
 jayoteŕiko itxasua,  
 luŕa ta aberi gaxua  
 gomutalduko dozak.

Ire guraso maŕtiak,  
 ogijaŕen itxita,  
 gomutan iraungo yazak  
 ta mingotz eure begijok  
 malkoz beteko dozak.

Gertuko az bigurŕtzeke  
 lasterén aberíra,  
 len lez zoruntsu ixateko.  
 ¡Oí, gurako dokaneko  
 ixango dok eziña!

Aizklbel'dat Bingen

*Jardune.*—Goguan euki beli oleŕki onek diñona.

## ZORIJONEKO ETXIA

---

Euzkadi'ko etxe batian Martin eta Josebe Andone senaŕ-emaztiak bixi ziran, nekazarijak baziran be, nasai-samaŕ, oso langiliak ziralako. Baňa batez-bere oso elizkoyak, bero ta zintzuak ziralako, Jaun-goikua'k euren lanak onetsi edo bedeinkatzen ebazan.

Seme bat, Joseba, ta beste alaba bat, Elixabete, Jaun-goikua'k emon cutsezan. Aňa lanian ibilten zan bitártian, amak magalian ártubaz, umiai erakusten eutsen mundu onetan bakian bixi-ixateko ta bestian zorijontsu ixateko kistaŕak (kristauak) jakin biaŕ daun gustija. Amaren esanak jaŕaŕurik, Joseba ta Elixabete eŕiko umerik zintzuena egin ziran. Gurasuak euren buruba baño askozaz geyago maŕe ebezaz. Martin eta Josebe Andone umiai begira zoratzen ziran, eta gabero (gabian-gabian) musuka ta musuka oera bidaltzen ebezaz.

Udako egun bero-bero baten, Josebe Andone'ri bere alabia egariz ikusita, bijotza bigundi yakon eta mats-mordo bat emon eutson. Alabiak pozik ártu eban eta jateko gertau zan, baňa gomutau eban gustiz maŕe eban nebia soluan la-

nian eguala, ta bere ar̄tian esan eban: «Nire neba gaxua ixerditān eta egañiz lanian dago: berari emongo dautsot mats-mordo au.»

Esan eta egin. Matsa nebiari eruan eutson. Añebiari mosu-emonda, matsa ar̄tu eban nebiak eta jateko ger̄tau zan, bera be gogoratu zanian beste solo batian goiz gustija lanian igaro (pasau) biañ ebala bere atak. Eta berialaxe matsa eruan eutson.

Atak bere emaztia laster̄ bazkarijagaz etoriko zala bai-ekijan, eta matsa jan-biafian, gorde egin eban.

Azkenez, Josebe Andone, bazkarija bere senañ ta seme-alabientzat ekañala, ageñtu zan.

Amabijetako eguzki-pian gorí-gorí etoñala, senaña bidera matsakain uñten yakon.

Josebe Andone'k beriala igañi eban alabiari emondako matsa berberea zala, ta zelan eskuz-esku ibili zan esan eutsonian, pozaren pozaz malko bi begijetan ageñtu yakozañ. Eta olako bakiaz ta alkañ ainbeste mañiaz bixi ziralako danak, Jaun-goikua'ri egin eutsozan eskañ su-tsubak.

Eta guraso ta umiak jan eben mats-mordua.

## ALKAREN ZIRIJA

---

Astakilo gixon zeken-zikotza zan. Dirurik ez eralgitiaen (gastautiaen) suñaren punta ebagiten be itxiko eban.

Bein, tripakalu-betekada bat eginda, urdalaz gexotu zan. Eta txafto geratu be.

¿Zelan osatu?

Osalarri edo medikuagana juan biañ. Eta auxe zan Astakilo'ri amuñu geyen emoten eutsona. ¡Olako «drogetan» diruba «paña-paña gastau biañ! ¡Mila arayetan!

Baña beste biderik ezeguan-eta, osalarijagana juango zan.

Mediku au entzute andiduna zan. Eñijan iñonez, ¡mutila zan bera urdalat atonduten! Baña on-on a ba-zan be, karua, gustiz karua zan. Eta onek jantza-eragiten eutsan geure gixonari. ¡Tripakalu madarikatu arek berari be egin biañ ola-ko diabrukerija!... ¡Ui! ¡Eta etzan min txikija tripakaluak eragiten eutsoena Astakilo gixaxuari, bere urdalan dantza ta dantza asten ziranetan...!

Ez, ez. Beste «eremediorik» ezeguan. Medikuagana juan biañ.

Baña itxon pizkat, gixonak.

Astakilo mutil zuña zan. Eta entzunda eukan,

osalarijok amar laurleko (peseta) kentzen eutso-zala beragana lenengoz juaten zanari, baña geruago, urengo ikustaldijetan, bost bakařik.

Au gogoratuta, Astakilo'k arnasia ártu eban. ¡Ala Jainkua! ¡Berak saŕtuko eutsan ziri galanta medikubari!

. . . . .

Otu ta egin.

Osalarijaren gelean saŕtzen zala, gure gixonak esan eutson oni:

— Emen naukazu «bařiro» diabruko min onegaz.


Osalarijak ezeutsan ezer erantzun. Astakilo pozik eguan, zirija saŕtu eutsolakuan. Eta egoteko zan be. ¡Zelan osalarijak igaři guzuŕa esaten eutsonik!... Ezin ezautu gero egunian-egunian beragana elduten ziran lagun gustijkak.

Medikuak astirotxu ta ondo begitu ta azteŕtu eutson urdala geure gixonari. Eta ori eginda, iri-bařez, esan be:

— Len lez zagoz. Emen egon zintzanetik ona etzara ezer auferatu zeure gexuaz. Orduban agindu neutzun osagai edo mediziňa berberea ártutten jařatu...

Eta Astakilo gixaxua, bost laurlekuok ordaindu ta, goři-goři eginda, kalera urten zan,

¡Etzan ziri makalagua ixan, ez, mila afayetan, osalarijak saŕtu eutsona!



## ARKUMIA TA AZERIJA

---

Ilunabarā da.

Ardijk mendijan dagoz bedar̄ samur̄a jaten.

Artzañak (ardi-zañak), txakur̄a albuauan dauka-la, txilibituba joten dau.

Arkumiak, txabola-aureko esijan, bata bestiar-en atzetik, alkařen leyan, jolas-egiten dabe.

Bat-batez azeri zař, ule-motz, begi-eře, mal-mutza ur̄teten da aitz-zulotik.

Ankiak atzeratu, eřpiak luzatu, buztanari er-agin, lepua bigundu ta agin baltz-okeřak er-akutsijaz, ařausika botaten dau nagija.

Mustur̄a jaso ta axia dator̄an alderuntz usain-eginda, bai-dator̄ astiro-astiro ardokira (ardi-tokira).

Begijk alai ta iři-bařez, ate-zir̄itutik begira jařten da.

Arkumiak, azerija ikusita. okuluau saftzen dira bildur-ikaraz.

Baña arpegi politedun, gaste, zentzunbako, baritxu bat, azerijaren abegi alai ta iri-bariaz zaletuta, bañiketan asten da beragaz.

—¿Zeren biña zatoz? —itanduten dautso.

—¿Ni?... bedar samur-biña nabil.

—¿Ezta egija, ba, geure aragijaz alikatzen zar-anik?

—Ni aragi-zalia enaz. ¿Janari ta edari eder-agorik ete-dago iñontzez bustitako bedar samurta iturritik darijon ur garbija baño?

—Guzuña da, beraz, zubetzaz geutarak esan oi-dabena.

—Geuri txikitatik irakasten dauskube, bester-ik eztagonian, gitxigaz bixi-ixaten.

—Orezkero, bijok alkañegaz bixi gatekez.

—¡Atsegin andija niretzat zeu lako arkume gozo-biguna bixi-laguntzat eukitia! Gorputza liraña, begijak argijak, gogua zindua, ulia zuri-zuriya...

Arkume gaxua, itz leun onekaz zorabijauta, tirist-tarast, esitik ufteten da. Azerijk, erpe zoñ-otzakaz aña, puskatu ta iruntsiten dau.

\* \* \*

Arduraz ibili, neskato-mutikotxuboyek, min labañaz zubekana datozanakin, geyenetan geure azerijaren lakoxe azerijk dira-ta.

## TXORI-LUMIAK

---

Neskatil bat juan zan bein Neri'tar Pilipa Deunagana (San Felipe Neri'gana) autortutene konfesetan).

Neskatil onek akatz andi bat eukan: bañitsuba zan, bai, ta bein baño geyagotan auzoko lagunakin batuta gauza txaŕak esaten ebazan iñoren lepotik. Aborik-abo ibilten ziran esanak, naiz egijak naiz guzuŕak, berak aŕtu ta gogoz erabilten ebazan. Ostantzian, neskatil ona ta Jaungozalia zan.

—Txárto egiten dozu—Santubak esan eutson —iñoren lepotik olako gauzak esan eta eldutene yatzuzan bariketiak aŕtu ta erabilijaz. Ori egitia obena (pekatuba) da-ta, oben-neke edo penitentzi bat ezafiko dautzut. Ara: merkatura juan eta edozein txori ila erosiko dozu. Gero txorijoi eskubetan aŕtu ta kalerik-kale ibilikozaran aŕtian bere lumiak azkatu ta banan-banan axetara botako dozuz. Orixo egingo dozu txori-luma gustijak zabaldu-aŕte. Zeure lana amatuta, bafiro etorriko zara nigana.

Neskiak bafegari iritxi eutson oben-nekiari, baña ezeban ezer esan.

Bijaramonian merkatura juan, txorija erosi ta ziatz-ziatz bete eban konfesoriak agindu ebana. Gero juan zan beragana.

Onek neskatiña pozik aítu ta berialaxe esan eutson:

—Penitentziaren lenengo zatija bete dozu ¿ezta? Tira, ba. Orain bete biañ dozu bigañena.

—Baña zer, ¿atal bi daukoz oben-neke onek, ala?

—Bai. Orain juan etoñi zaran kalietatik eta aítu ta batu luñera bota dozuzan luma gustijk.

—¿Lumiok batu? Ezin ori. Onezkerò axiak eruango ebazan oñtik.

—Egija, baña entzun. ¿Ezta orixe berbera jazoten (pasetan) zure abotik eta iñoren kaltez edo kontra uñteten diran esanakaz? ¡Amaika esan eta irain zabaldu dozuz zeuk of-emen! ¿Eta zelan aítu ta bildu eurok? Esan eta irain oñen batutia txori-lumiak batutia baño gatxagua da. ¡Zain, ba, miñagaz: ez lañegi erabili!



## E U Z K E R E A

---

Euzkerea da euzkotaren elia, geure asaba edo auŕekuak itxi dauskuben berbeta eder-gozua.

Baña Euzkerea euzkotaren elia ixan-ařen, euzkotar̄ gustijak eztira euzkeldunak. Eta negaŕgarí-lotsagarija da.

Negaŕgaríja da, órtik kalte andijak yatorkuzalako. Lotsagarija, beste eríjak egiten dabena geuk egiten eztogulako.

Ara: pantzetařak pantzerea (prantzes) ta ingalandar̄ak ingalanderea (inglesa) dakije ta maŕe dabe. ¿Zegatik euzkotar̄ak Euzkerea ez jakin ez maŕe?

Euzkotar̄ak Euzkerea maŕe biaŕ dogu, ez polita dalako, geure-geuria dalako baño. Naiz polita naiz itxusija, maŕe biaŕ dogu geuria dalako.

Geuk ama maŕe dogu ez onelakua edo ofelakua dalako, gure ama dalako baño. Euzkerea be ofexegatik maŕe biaŕ dogu, ba.

Ezta egon biaŕ euzkotarik Euzkerea jakin-barik. Euzkotar̄ gustijak euzkeldunak ixan biaŕko gintzazan.

Beste elerik (berbetarik) ikasi biaŕ daunak,

ikasi begi, baña ez aiztu iñoz Euzkerea. Etxekua da lenago kanpokua baño.

Eta geure etxekua Euzkerea bakařik da.

Bai-dakixube, ba, ume matiok: zuben ama ma-  
te dozuben lez ma- te biař dozube Euzkerea, Euz-  
kerea dalako gure asabeak (ařa zařak) itxi daus-  
kuben berbeta samuř-gozua, zuben guraso zin-  
duak lenen-lenen irakatsi dautzuben elia. Eta  
Euzkerea ma- te ta aldeztuten (defendiduten) ba-  
dozube, Goiko gure Jaunak bedeinkatuko zařu-  
be. Ez aiztu gero Euzkerea dala gure fediaren  
zaindarija.

¡Aupa, euzkeldun zinduok!

¡Gora ta gora Euzkerea!



## N A G I K E R I J A

---

Buffon, jakitun ospetsuba, lantzalia (lan-egiteko zalia) zan, baña berandu jagiten zan beti oetik. Eta jagita gero asafratuten zan bere burubaz, alperik galtzen eban astija gogoratuta.

Egiñalak egin-ařen, ezin bota oetik jagiteko nagija.

Bein otu yakon Joseba bere mořoiari agindutia goxian-goxian seiretan deňuteko. Ordu ofretan jagiko zan bakotxian ogerleko bat emongo eutson mořoyari.

Bijaramonian saŕtu zan mutila Buffon'en gelian, jagiteko orduba zala esaten. Baña onek, ixara-aftian ederlo eguna-eta, ezeutson jaramonik egin.

Ordu batzuk juanda Jagi zan gure gixona ta agiraka-egin eutson Joseba'ri, deňuta gero lotan itxi ebalako.

Bijaramonian mořoiak jagiteko esan bariro, baña Buffon'ek erantzun iradurik (prisarik) etzala ofetarako.

Mutila geratu zan oe-onduan bariro deňuteko, baña ugazabak, asaře bixiz, esan eutson andik uřteteko, ostantzian etxetik kanpora bidaldo

ebala-ta. Orixe entzunda, mofoia gelatik urten zan. Eta Buffon bafiro lotara.

Jagi zanian agiraka-egin eutson gogoñago mutilari.

—¿Zegatik urten zara gelatik ni oian itxitā? Zeuk egin biañko zenduban edozer gauza ni oetik atarateko.

Joseba'k ezekijan zer egin ugazabearen aginduba betetako.

Bijaramonian saftu zan gelian jagiteko esaten eta Buffon, beti lez, agiraka asi yakon.

Orduban pitxarfete ur aŕtu ta burutik bera bota eutson ugazabeari.

Egun atan goxetik lagi zan gure gixona. Eta sendo ekin eutson lanari.

Egun batzutan egin biañ ixan eban orixe moroe azkarak. Baña ibili ta ibili (obeto esanda «dutxia» aŕtu ta aŕtu) oñu zan jakituna goxeko seiretan jagiten.

Geruago aizkidiai esan ei-eutsen:

—Joseba nire moñoiari zoñ-dautsodaz nik egindako idazti (liburu) batzuk, beragatik ezpazan enebazan egingo-ta.

\* \* \*

Ez nagirik ixan oetik jagiteko.

Nagikerijak astija galtzen dau alperfik; nagikerijak galerazoten dausku gauza on asko egiten.

## ESKEKUA

Egunabafez asten naz beti  
 Aterik-ate lanian,  
 Jo batera ta jaŕai bestera,  
 Zerbait bilatzen eskian.

Ogi eta arto-ataltxu batzuk  
 Batzen dodaz ekiñian,  
 Baña diruba nekez ta gitxi  
 Ikusten dot zakelian.

Soñeko zataŕ-puzkatubakaz  
 Egunez eta gabian,  
 Ostatubetan ¡Jaungua lagun!  
 Esaten dauste atian.

Eta aterpetxu berogaŕirik  
 Bilatzen eztodianian,  
 Otzez dardarka, gustiz neketsu  
 Lo-egiten dot kalian.

Mendijk gora, basuak bera,  
 Bide-ziorŕ zikiñian,  
 Bijotzilagaz, jaŕatuten dot  
 Gelditŕ-barik, eskian.

Urdalea utzik, ankak indarǵa,  
 Beruan eta otzian,  
 Atsekabiak ugari dodaz,  
 Gorputz-atseden bagian.

Eŕukoŕ gitxi agertzen dira  
 Eŕi ta baseŕijetan:  
 Eskekuari lagundutia  
 Aiztu da ekandubetan.  
 Uŕikerija beti aldian  
 Ibilte neketsubetan:  
 Negaŕik asko egin biaŕ-da  
 Irabaspide onetan.

¡Limosnatxu bat! deika ta deika  
 Dińardut egun gustijan,  
 Gose askogaz, gustiz indaŕga,  
 Jausteko bilduŕgaŕijan.  
 Eduŕak eta oxin leŃubak  
 Ixaten diran aldian  
 Oba litzake eskeko baño  
 Bakian egon obijan.

Jaun-goiko laztan-eŕukitsuba,  
 Dana egin al-dozuna:  
 Eŕukituta, bidaldu dazu  
 Len-bai-len laguntasuna.  
 Beti dińardut otoi-egińen  
 Lońtu-guraz osasuna;  
 Eta ganera, merezi ba-dot,  
 Betoŕ zorijontasuna.

## U S O   B I J A K

(I P U Ñ A)

## I

Usotegijan usokumiak pozik eta zorijonez bixi dira. Alkaři uřuka, alkaři mustuřka, orain bata bestiaren atzetik; gero bata bestiaren iges.

¡Bai, zorijondunak alkař maře diran usokumiak!

Egaizka dabiltzala, zuri-zuri, axia bera baño ariñago, orain bera, gero gora, saři telatu-ganian, uřengo eřeka-onduan, beti azke, buru-jau-be, iňoren bilduř-barik. Benetako zorijondunak usotegijan eta ingurubetan bixi diran ařtian.

Baňa bein ¡zoritxařeko eguna! usokume areatako batzubei jakin-gurea, ikusi-naya sořtu yaken, eta... jaguř, ikusi arťe! egin eutsoen usotegijari.

Eta oftik ziař joyazan, nora jakin-bařik, uřun-uřunera, ikustera, jakitera...

Eta lenen-lenen ikusi eben miru bat edo beste, otoz-otuan; gero eitzari (kazadore) batzuk gora begira.

Eta batzuk miruben erpietan, beste batzuk eitzarijen eskubetan eta bestiak gosez ta otzez, gustijak ondatu ziran.

## II

Baserri alai-zuri baten bixi ziran aizta bi, eder, garbi ta zorijonekuak.

Alkaŕekin jasten ziran eŕira jai-egun-goxetan, alkaŕekin igoten ziran baŕiro baseŕira mezaostian.

Etxe-ondotik mor-mor joyan eŕekatxuban bijak zapijk garbitzen, bijak mendijan iria ebagiten, bijak etxeko lanak gogoz egiten, bijak goiz-aŕatsaldeko otoiaketan, bijak jolasetan... zorijon-dunak ziran gure deskatilak.

Baňa bein areitako bati sortu yakon jakin-gurea, ikusi-naya. Baserrijaz gogait-eginda, urira juan zan.

Urijan bijotza tximurŕtu yakon, bekokija ilundu, gogua (arimia) baltzitŕtu.

Erbesteko ekandubakaz zaletu ta gurasuena-kaz aiztu zan. Azkenez, aŕo-aŕo ta bijotz ustel-dubaz, betiko ondatu zan.

Baserrijan geratu zana, bekoki argija, bijotz uŕezkua, gogo garbija ta baŕuba nasai eukazala, ederto bixi ixan zan. Bere aiztiatzaz itanduten eutsoenian bakarik, arpegija goŕi-goŕi egin eta matrala-eŕtzetik negaŕ-anpulubak jausten yakozan.

## G A L E P E R A K

---

Gari-soluan eukan kabija galeper batet.

Berau beti egoten zan begira ia epaliak (garija ebagiteko gixonak) etozan. Eta kabitik alde-egin biaŕ ixaten ebanetan, jatekorik ekaŕteko, umiai esaten eutsen begi-zoli egoteko.

Bein, galepera kanpotik ebilala, gari-solora eldu ziran baseŕitaŕa ta semia. Arek, garija iku-sita, esan eutson semiari:

—Onezkerro sasoya dok gari au ebagiteko, el-duta yagok-eta. Auzokuai detuko yautseguk of-etarako.

Galepera atzera etori zanian umiak esan eutsoen baseŕitaŕari entzun eutsoena ta eskatu beste leku batera bixi-ixaten juateko.

Baňa amak erantzun eutsen:

—Ez bildurik ixan, ene umiak, ondiño astija yagok-eta. Gixon oŕek auzokuai begira ba-yago-zak, luzaro itxon biaŕko yoek.

Bijaramonian juan ziran baŕiro solora baseŕitaŕa ta semia.

Eguzkija bero-berua zan eta aŕezkerro garija eldu-elduta eguan.

—Etxuagu astirik galdu biaŕ. Auzokuak ezpa-

yatozak, senidai esango yautseguk etoríteko. Tirok. Juan ire lengusuben etxera ta esan bijar goxian garija ebagiten etoríteko.

Galepera atzera etori zanian umiak artega egozan. Eta baseñitarrak esan ebana entzunda gero, esan eutsen amak:

—Ori baño ezpa-dok, ez bilduŕ ixan. Baseñitarr onen senidiak lana ugari yaukek-eta, eztozak ain arin etoríko.

Bijaramonian etori zan bafiro baseñitara, ta garija ebagi-barik ikusita, esan eutson semiari:

—Onezkero ezin layeikek egon senidai begira. Gauŕ gabian juango az albo-erira epale batzuben biña, ta geuk, eurok lagunduta, ebagiko yuagu garijau.

Galeperak, kabira etoríta, jakin ebanian baseñitarrak esan ebana, umiai esan eutsen:

—Oin, bai, eldu yaku, umetxubok, gari-solo onetatik alde-egiteko orduba. Gixonak bere gain aŕtzen yuazanian bere lanak, ondo ta laster egi-ten yozak. Gayuazan, ba, emetik.

\* \* \*

Egija iñuan galeperak.

Ondo ta laster egi-eko, norberak egin biaŕ dauz gauzak. Onek isten ba-doguz iñoren ardurapian, txarto ta berandu egingo dira.

## A G U R I A

## (IPUÑA)

Baseí baten, bere seme, eŕain eta ilobatxu batekin bixi zan agure zaŕa, bere garayan langile bizkofa ixanda, orain zaŕtzarora eritxi ta makaldurik, lanerako gauza etzana.

Baseíko solo, baso ta mendijetan egindako lan eta nekiak ikutu egin eutson geure agure gaxuaren osasunari. Eta orain, bizkaŕa makuŕtuta, begijak lausotuta, belaŕijak goŕtuta ta an-kak aulduta eguan.

Bazkal-orduban maira uŕeratzen zanian, ezpanetara eruaten eban katiluba be ezin euki ixaten eban zuzen, dardarakin, eta askotan mai-zapijaren ganera, gura ezebala, ixurtzen yakon jatekua.

Bere semiaren emaztiak eta semiak be ezin eruaten eben agureari zaŕtasunak eragiten eutson dardar-ikarea, ta lotsa lez aŕtuten eben.

Gero ezeutsoen mayan tokirik itxi gura, ta sukaldeko bazter baten emoten asi ziran, andik auŕera, jaten, luŕezko eŕatifu zaŕ batian. Agure gixaxuari sarí agertzen yakozan malkuak.

Bein jaten asi zala, eskubetan eukan katiluba jausi ta apuŕtu yakon. Eŕanak, ori ikusita, ber-

iala ekin eutson bañiketiari, ta agure gixaxuak, buruba makuŕ-makuŕ eginda, ezeutson ezer erantzun.

Úfengo egunian zurezko katilu bat erosi eutson, eta ordutik auŕera antxe bertan emoten eutsoen jaten.

Egun gitxi igazitā (pasauta), senaŕ-emazte gastiak, lau urtedun seme kozkoŕa aizkorakin egúr txiki bat biribiltzen asi zala ikusirik, aŕak itandu eutson:

—¿Zetan asi az, seme?

—Nire aŕa ta ama zaŕak ixan datezanian jaten eta edaten emoteko, ausi ezin dan ontzi bat egiŕen diňardut—erantzun eban semiak.

Senaŕ-emaztiak, semetxubaren erantzuna entzunik, apuŕ batian alkaŕen begira jaŕi ta negaŕez asi ziran.

Apaltzeko orduba etoŕi zanian, ordurarte sukalde-bazteŕian euken aguria mayan euren eŕdijan jaŕi eben. Eta andik auŕera agure zaŕa matatuba ta zainduba ixan zan bere bixitz gustijan.

\* \* \*

Geure gurasuak erabiliko doguzan letxe erabiliko gaŕubez gure semiak.

Goguan euki beti ipuin onetan irakuri dozubena.

## IXAÑAK

¿Zenbat ete-dira ortzian ikusi leikezan ixañak?  
Begi utsez, asko-asko ez: bost mila-inguru.

Newcomb eritxon jakitunak diñonez, teleskopioz eun miloe baño geyago ikusten ei-dira. Eta Lord-Kelvin jakitun ospetsubak iñuan mila miloe ta geyago dirala ixañ gustijak, ikusten diranak eta ikusten eztiranak.

Ixañ bakotxa eguzki bixija da, gure eguzkija aña, gitxijenez. Eta asko dira gure eguzki argikof au baño askoz andijaguak eta argikoraguak diranak.

Esaterako: «Arcturus» deritxon ixañ gure eguzkija baño bost miloe bidañ andijagua ei-da. «Wega» ixenduna eguzkija baño amabi miloe bidañ andijagua.

Ixañen marguak (koloriak), -be, jakingarrijak dira. Begi utsez eztira margodun asko ikusten, zurijak baño. Baña teleskopioz, bai. Gorri-iñunak, gorri-argijak, orijak, oztinak (azulak) eta ostan-tzeko margodunak dagoz. «Aldebaran, Pollux» eta «Antares» deritxenak gorrijak dira. «Altair», bañiz, uñezkua lakua. «Leoya» deritxon taldeko ixañ bat oriya da ta bertako beste bat oflegi (berde) gorizka.

Beste ixar batzubei margua aldebijau yake. «Sirius» deritxona antziñan gorija zan eta orain zurija dakusku (ikusten dogu). Orizkea dirudi gure eguzkijak, baña Moreux-abak diñonez, oztiña da. Dakuskun margo orizkea, ludi-inguruban dagon axia igarotzian aítzen ei-dau eguzki-argijak.

Ixaŕ batetik besterañoko bidia ta ixaréstatik ludirañokua (mundurañokua) «argi-urtez» neuŕtu oi-da. «Argi-urtia» argijak urtebetian egiten daun bidia da. Argijak «segundo» bakotxian 75.000 leguako bidia egiten daula jakinda, argi-urtiak zelako bidia neuŕtuten daun oldoztu (pentsau) daikezu.

Euren argitasunatzaz, amasaspi motetan berezi edo banatu dira ixaríak.

Begi utsez, seigaŕen motarañokuak ikusten dira; beste gustijak teleskopioz bakaŕik.

Lenengo motako ixarétaraño amabost argi-urte ta erdiko bidia dago; bigaŕen motakoetaraño emeretzi argi-urte; amaseigaŕen motakoetaraño amabost mila argi-urte baño geyago, Herschell, Struve ta besteren batek diñuenez.

Orain esan daikegu Ixai Iragarriak (Profetak) esan ebana: «Ortzena begijok jaso ta ȝnok irazan (soŕtu) dauz orelako gauzok?»

ȝZer ete-da, ba, gu garuazan ludi (mundu) au,

ortze osuan betetan daun Gaudijaren (unibersuaren) aldian? Deus ez; auts-apur bat baño gitxijago; itxaso osuaren aldian ur-tantatxu bat baño askoz ta askoz gitxijago. Eta ȝzer ixan leike, ostera, gixona Gaudi ofen aldian? Alde batek, Gaudi osua baño geyago da gixona; eztau, ba, Goi-Jaunak Gaudi osuagatik Bere odola ixuri; bai, baña, gixonagatik, sarit n geronek aiztu-a en.

**Eleizalde'tar Koldobika**



## BEGOÑA'KO IXAŔ ZERUTARARI

---

Bizkai'ko mendi polit bateko  
 Artadi iluntsu ta zaŕan,  
 Gabez ilargi betia legez  
 Agertu Andra Miren zan.  
 Oña, baso ta bazteŕ gustijok  
 Bere aŕpegi edeŕak  
 Betetan euzan zeruko argiz,  
 Danoi eskińik eskaŕak.  
 Ordutik ona lioŕ ta itxasoz,  
 Miren-aŕpegi garbija  
 Aldi gustifan ta gustijontzat  
 Goiko zorundun Ixaŕa.  
 Atoz, atoz, ba, bizkaŕtań onak  
 Begoña'k daukan artera:  
 Zuben Ama ta Jaungua'rena  
 Bertan dagona Bera da.  
 Ama maŕia, entzun eiguzu  
 Geure bijotzen aŕena:  
 Zeuk emon-ezik argija geuri,  
 Oso ixutuko geu gara.  
 Gauŕko Bizkai au, Ama laztana,  
 Ezta antzińeko lakua:

Len ekandu ta lagija, ta gauŕ  
 Abenda zaŕa galdua.  
 Zaindu gagixuz geu bizkataŕok...  
 ¡Eŕuki, Ama, zakigu!  
 Eta estuntza gogoŕ-gogoŕok  
 Zeure semioi azkatu.

**Arana eta Goiriťat Sabin**



## GURUTZA


---

### (IPUÑA)

Gixon bat joyan bein eguzkijak kiskaltzen eban bide batetik, bere bixitxeko gurutza ozta-ozta eroyala.

Gaba elduta gelditu zan. Eta, arnasa-estuka, bere kolkorako esan eban:

—¡Gurutz aztuna, benetan, Jaun - goikua 'k emon daustana! Josu-Kisto'ren antzkuak ixateko gurutza eruan biañ dogu gustijok, baña nik daruadana aztun-aztuna, aztunegija da, ija zapal-tzen nau-ta... ¡Ene Jauna! ¡Ene Jauna! Zama (karga) au ñez ete-daustazu arinduko?



Orixe esanda bide-ondoko zugatz baten azpi-jan etzun eta luak artu eban.

Bat-baten Josu-Kisto agertu yakon, argi bixi-bixiz inguratuta, ta mañero esan eutson:

—¿Daruazuna baño gurutz arinagorik gura ete-dozu?

—¡Bai, Jauna, bai! Ara: txirua ta agure-aguria naz ta ezin luzaruago eruan. Larogei urtiotan eruan dot gurutz au ta pozik eruan be, Zeugandik aítu nebalako; baña, Jaunoi...

—Tira, zatoz nigaz.

Gure gixonak leiz andi ta sakona bere aufian eukan. Eta Jaunak esan eutson:

—Ara: ementxe daukazuz bilduta nire eñukiz gixonak donokiratzeko (zeruratzeko) egin doda-zan gurutz gustijak. Bertan zeuria itxi ta aítu zeuretzat egokijena deritxozuna.

Saítu zan gixona leiz atan eta ludijaren (mundubaren) asijeratik azkeneraño gixonak eruan eta eruango dabezan gurutzak ikusita, ikaratu zan gustiz.

Luzarotxu ibili zan gurutzak aztertuten: banan-banan aítu, aztatu (pixatu), batera ta bestera erabili ta lengo tokijan itxi.

Gustitariko gurutzak egozan bertan.

An ziran «kezka, bekaizkeri, eskaítxaí» ta «senítaíteko asaíe»-gurutzak. Baíta «esan gaiztuak, oben» (pekatu) «aztunak, birauak»-eta dakar-ezan gurutzak.

Eta eurok, banan-banan ikusīta, iñuan:

— Ez, ez; au bez... ¿Baña batobat aſtu biafko ete-dot, ene Jauna, nai-ta-ez?

— Ludijan gurutz-barik dagonari eztagokijo zeruban burestunik (koroyerik).

Gixona bere arluari ekiñaz, zer egin ezekijala geratu zanian.

— Ara—esan eutson Josu-Kisto'k abots bigunaz.

Eta atetik uŕ-samaŕ ikusi eban bere gogua atsegiñez bete eban gurutza. Berau aſtu ta pozafen esan eban:

— Auxe, bai, uste dot eruan al ixango dodala. Aztun-samaŕa da, baña beste oŕek ikaragarrijak dira.

Eta gurutza lepuan jaŕi ebanian igarí eban bere gurutza berberia zala, Jaunak eŕukiz emon eutson gurutza ta berak, aztunegija zala-ta, beragandik bota gura ixan ebana.

\* \* \*

Ara, umetxu: onek esan gura dau geuretzako beti dirala geure nekiak iñorenak baño andijaguak. Baña saŕi jazoten yaku gure gixonari jazo yakona: iñoren gexuak edo miňak edo nekiak ikusīta, igarí geure gexuak, geure miňak eta geure nekiak baño andijaguak dirala.

## A R I - Z E T Z A L I A

---

Ari-zetzalia da arijak zetu edo biñinduten dauzan gixona. Olako gixon asko dagoz gure eñijetako bitxabaletan (bide-zabaletan).

Ari-zetzale bat asaíe eguna bein bere burubaz txiro-txirua (*diru-bakua*) zalako.

Alako baten bere ondotik igaro zan eñegi edo bakalduna, andiki ta aberatz batzuk lagunduta.

Ori ikusi ta kolkorako esan eban ari-zetzale gixaxuak:

— «*Sikiera sikiera*» bakalduna ba'nintz!...

Jupiter'ek belarí ona eukan-eta, entzun eban gixon onen esana. Eta goi-gotik, turmoi baten bidez, itandu eutson:

— ¿Bakalduna ixan gura ete-dozu?

— ¡Bai!

— Bakalduna ixango zara, ba.

Gerotxubago bakalduna zan geure gixona.

\* \* \*

Udako egun bero-bero batian basuan ebilan eñegia. Eta eñegi-ixan-añen ¡berak botaten eban

ixerdija! Edonok esango eban lengo ari-zetzalia zala. Onegatik iñuan:

—¿Zetarako nire buruba bakaldun egin, edozein gixonen moduban ixerditān egoteko? Eguzkija ba'nintz...

—¿Zer? ¿Eguzkija ixan gura ete-dozu?—itandu eutson Jupiter'ek.

—¡Bai!

Orixo esan eta eguzki biguŕtu zan gure gixona. ¿Baña zelako eguzkija gero? Andija, edeŕa, zabala, argi-argija...

\* \* \*

Baña bein eguzki-aurian odoi txiki lotsabako bat jaŕi zan. Eta, jakiña, eguzkijaren argija moteldu eban.

—Ordu txarrian egin nabe eguzkija. ¿Zetarako eguzkija ixan? ¿Nire aurian odoi bat jaŕita, argija ilundu dagijan? Eguzkija ixan-barik, odehya ba'nintz...

Jupiter'ek, orixe entzunda, esan eutson:

—¿Odehya ixan gura ete-dozu?

—¡Bai!

—Odehya ixango zara, ba.

Eta odoi biguŕtu eban gure ari-zetzalia.

\* \* \*

Gerotxubago odeya asi zan andituten, ortze gustijan zabalduten. Eta zeruba baltz-baltzez estalduta egon zanian euri ja asi zan. Jausi ta jausi ja zapañadia!

Ainbeste ur batuta, uyol ikaragarria soñtu zan.

Baso gustija urez bete zan, bertako etxiak, zugatzak eta landareak ondatu ta ezereztutu eba-zala.

Odeya pozik eguan ondamendi au ikusita. Berak oldozten (pentsetan) eban:

—Oraintxe naz ben-benetako eñegia, almen andija daukat-eta.

Baña ainbeste ur-añtian ikusi eban zutun-zutunik eguan gauza bat. ¿Zer ixango ete-zan gauza ori uyolari arpegija emoteko, uyolak bultzaka ez eruateko?

Gauza a zan gure arí-zetzañiak geyen gorotetan ebana: gauza a zan arkaitz andija.

—¡Auxe da bañegarria!—esan eban odehyak. ¿Zetarako odeya ixan, arkaitz oñek nire lepotik bañe-egingo ba-dau? Ni arkatxa ba'nintz...

—¿Arkatxa gura ete-dozu ixan?—itandu eutson Jupiter'ek.

—¡Bai!

—Arkatxa ixango zara, ba.

Orixo esan eta gure odeya arkaitz bigurtu zan.

Ointxe nago pozik—esan eban afkatxak—. Enaz iñoren bildur: ez eguzkijarena, ez axiarena, ez eurijarena, ez...

Ezin ixan eban amatu bere «diskurtsua», ordubantxe agertu zalako bere onduan ari-zetzaile bat. Eta gixon onek arkatxa gogor jo ta erdibit tu eban.

—¿Zetarako afizkua ixan, au-lako gixontxu batek nigana eldu ta erdibituten ba-nau? Ari-zetzalia ba'nintz...

—¿Ari-zetzalia ixan gura dozu?

—¡Bai!

—Ari-zetzalia ixango zara, ba.

Eta Jupiter'ek ari-zetzalia egin eban arkatxa.

\* \* \*

Ora or gure gixona lengo moduban. Ainbeste gauza ixanda gero, lengo arira jo biañ ixan eban. Gure ari-zetzaile gixaxua, ibili ta ibili, ari-zetzalia ixaten eldu zan.

\* \* \*

Gixonaren bijotza ezta ezegaz asetzen. Gañ botaten dau bijañ eskatuko dauna, ta bijañ botako dau etzi gurako dauna. Eztaki zer eskatu bez.

## I P U Ñ A

Gixon batek onetara esaten eutson semiari:

—Seme, ez itxi bein be aurian dagon gauzia, etor̄teko dagonaren ordez, bijak galdu eztagixuzan, otsuari jazo yakon lez baseŕitarak agindu eutsozan idijkaz.

Baseŕitar au soluan ei-ebilan goldiaz, ta idijk ar̄tez ibili gura ezebelako, asaŕaturik esan eutsen:

—¡Otsuak jango al-zañubez, aŕanuok!

Au entzun eban otsuak, eta baseŕitarak golde-tik idijk azkatu ebazaneko, agertu yakon a ta esan eutson:

—Ekazuz agindu daustazuzan idijkok.

Baseŕitarak erantzun eutson:

—Nik ezer esan ba-dot bē, eztot zin edo juramenturik egin.

Otsuak, len baño gogoŕago:

—Ekazuz idijkok. Neuriak dira, agindu daus-tazuz-ta.

Ezin ziran aditu, ta erabagi eben auzi au er-uatia epaīkari edo juez bategana. Eta urirantza joyazala aurkitu (topau) eben azerija, onek iñan-du eutsela:

—¿Nora zuaze?

Jakitun ipinī eben jazo yakenaz ta orduban berak esan eutsen:

—¿Zetarako gura dozube beste epaikaririk? Neuk erabagiko dautzubet auzi ori biañ dan lez. Baña lenengo itxi nagixube itz-egiten ixilik batoregaz ta bestioregaz. Eta alkañtu al ba-zatubedaz, epaya (sententzia) ixango da ixila. Eta ostantzian, epaya ixango da agirijan.

Bijak bayetz esan eben. Azerijk lenengo itzegin eban baseñtaragaz:

—Emon egistazuz olo bat neuretzako ta beste bat neure emaztiarentzako ta idijk geratuko yatzuz zeuretzat.

Baserñtarak bayetz esan eutson.

Au eginda, juan zan azerija otsuagana:

—Aizkidia, ni zeure aldez egiteko nago. Esan dautsot baserñtar oñi idijk beretzat gura badauz, emon dagitzula euren ordez gaztai andi bat.

Otsuak be bayetz esan eban, eta orduban azerijk esan eutson:

—Itxi egijo zu baserñtarari bere idijk eruaten, eta neuk eruango zaut gaztayak egiten diran lekura, zeuk aukeratu dagixun gura ixango dozuna.

Azerijaren esanaz malmuzkauta (engañauta), otsuak itxi eutson baserñtarari juaten.

Gaba eldu zanian eruan eban azerijk otsua

patin sakon batera, uretan ikusten zala iletargi betiaren irudi zuri ederra. Erakutsi eutson, esanaz:

—Agindu neutzun gaztaya orixe da. Jatsi zadi bertara ta jan egixu gura ba-dozu.

Otsuak erantzun eutson apuñtxu bat siñistansuna (konpiantza) galdua:

—Jatsi zadi zeu lenengo, ta bakařik ezin badozu atara, defu nagixu ta neuk lagun-egingo dautzut.

Patiñak eukan soka bat txirringola batetik dingiliz balde bigaz, bata berantza joyanian bestia gorantza joyana.

Azerija, au ikusirik, saŕtu zan balde baten eta jatsi zan patiñaren ondora.

An apur bat egonda, itandu eutson otsuak:

—¿Gaztaya eztakazu, ala?

Eta berak erantzun eutson:

—Ezin dot, andija dalako. Saŕtu zadi beste baldian eta erdu neuri lagunduten, len agindu daustazun lez.

Saŕtu zan otsua beste baldian, eta azerija baño aztunagua zalako, asi zan berantza, ta era batera azerija gorantza. Eldu zan au patiñaren abora ta otso gixaxua patin-ondora, bertatik urten-eziñik.

Onan, aurian dagona, etorriko danaren ordez istiařen, galdu ebazan otsuak idijk eta gaztaya. Baňa bixitxa be.

## T X O R I T X U B A

---

- Txoritxuboi: ¿norantz ua egaz-eiñen axian?  
 Abitxuba lagatzeko eduña dok basuan;  
 atzera, txori gaxuoi, ago geldi abijan.
- Txoritxubau mañezkero ez galazo bidia;  
 antxe, uñun, itxi yuat burdiñezko kayola,  
 eta idoro gura-yuat nire abi mañia.
- ¿Nora ua, txoritxuboi, nora ua bakañik?  
 Ire eguak berotzeko eztago euzki-izpirik;  
 abitxuba idoro baño len lotuko az ilik.
- Enok bilduñ, ez ardura, abija idorozkero;  
 an yagozak umetxubak nire begira gero;  
 kayolan espetxalduta bai-nok egon luzero.
- Oyanetan eskutauta bai-yagok eiztarija;  
 bere ondoz juatian eingo dauska zaurija,  
 eta abija eztok iñoz ikusiko, txorija.
- Jaubia lotan eguan ta itxi yuat kayola;  
 bai-yakijat orain bera nire biña dagola,  
 baña nik azke betiko ixan gura yuat, ba.

—Ondo yagok, txoritzuboi, ondo yagok, zin-zimabetasunetik iges egaz-eifen dok axezi, [ñez; il-zorijan egon-ařen goi-azkatasun-atzez.

—Bai-yakijat mendijetan oin dokala eduŕa;  
bai-yakijat eiztarija begira yaguala;  
bai-yakijat ni-zorija dokan itun gogoŕa.

—Au-ta-be auŕera ua.—Auŕera, bai, nayuak;  
kayola lagatziařen iltia dok gozua.  
Egaz-eiřen, aizkidioi, itxi txori gaxua.

Aizklbel'daf Bingen



## OŁAŘA TA AZERIJA

---

Olař batet olatokijan eguala, ikusi eban berari begira eguan azeri bat.

Ori ikusita ikaraz lotu zan.

Lenengo-lenengo gogoratu yakon ondoko zugatzena (arbolara) igoñ, azerijagandik alde-egiteko. Baña azerijak, min leunaz ta betiko aizkadia ba'litz lez, esan eutson:

—Olatoki onen ondotik nembilala zeure abots (boza) eder-zolija entzun dot.

Olařa ařo-ařo jaři zan ori entzunaz. Eta zugatzena igoñ-barik, olatokijan bertan geratu zan azerijaren esanak adiñuten.

—Nik ezautu neban zure ařa—esan eutson gero azerijak—. ¡Abeslari (kantari) bikaña zan! Abestuten (kantetan) ebanetan zutun-zutunik jaři ta egalak zabalduten ebazan. Ikuskafija egoten zan. Eta gero, zoli-zoli abestuteko, begi-jak itxi egiten eban. Orain eztago, urian, bera lako abeslaririk.

¿Ezetz? Ori ikusteko eguan. Gure olařa bere ařa baxen abeslari ona zan, obia ezpa-zan. ¡Mutila zan bera ku-kuř-u-ku egiten!

Azerijari erakusteko ori, zutun-zutunik jaŕi, egalak astindu, samia luzatu ta abestuten (kantetan) asi zan. Abotsa geruago zolijago urtetan yakon estarítk. Azkenez, bere aŕak lez, begijk itxi ebazan, abestu leiken zolien abestuteko. Oŕeguan gure olaŕa ezti-eztitan.

Azeri malmutzak ori ikusi ebala, samatik oratu olaŕari, lepo-ganian aŕtu ta olatokitik atara eban.

Onetara juan ziran basora: azerija pozik, olaŕagaz egingo eban tripakadia gomutetan, eta olaŕa, baŕiz, bilduŕ-ikariaz.

Oraŕiño, baña, gauza bat otu yakon olaŕari azerijaren atzaparetatik igesteko. ¿Ondo urten-go yakon berau?

—Ni azerija ba'nintz, zeu zaran lez—olaŕak esan eutson bere aŕapatzaliari—ementxe bertan gelditu ta olaŕa jango neban.

—Bai, egija da ori. Orixe egingo dot zeugaz, ba—erantzun eutson azerijak.

Orixe esateko abua zabaldu biaŕ. Eta orubantxe «aprobetxau» eban gure olaŕak azerija-gandik igesi ta zugatz batera igoteko.

—Zeuri bilduŕa saŕtzeke baño eztautzut ori esan, olaŕ matia—esan eutson azerijak.—Ez juan, bada, nigandik. Oŕtik jatsi ta esango dautzut ondo etofiko yatzun gauza bat.

—¡Bai, zereko gauza! — erantzun eban bestiak —. Enozu beste bein ikusiko begijak itxitā abestuten. Erakutsi gura dautzut ondo ikasi dodala zeuk emon daustazun «leziñua».

—Orixet diñot neuk be—erantzun eutson azerijak.—Ondo irabaziña daukat au ¡mila arayetan!, abua zabaldu dodalako zabaldu biañ ixan eztondian.

\* \* \*

Año-ixatetik kalte andija etorri yakon olañari. Eta biañ eztanian itz-egitetik ez gitxijago azerijari.

Eta olaña ta azerijari jazo yakena sarri jazoten yaku gixonoi.

Ez ixan, ba, afuak ez baritsubak.





## E R E G E   M A G U A K

---

(I P U Ñ A)

—Atīta, ipuin bat esan.

—¿Ipuin bat gura dozube, ene mañetxubok?  
Bat esango dautzubet, ba, zuben ikasbiderako  
ixan daten.

Ba-dakixube gauř gabian Eŕege Maguak eldut-en dirala eŕi gustijetara. Uŕunetik, eurak zor-ijondun bixi diran lekutik, urtian-urtian etorthen dira. Baňa zubek, uŕian, eztakixube eztirala gel-dituten ume gaitztoen etxietan, eta bai, bańiz, ume onak diranenetan, euroi gauza politak isteko. Eta ondiño gitxijago jakingo dozube Eŕege Maguak dakijezala ele edo berbeta gustijk. Baňa gauza aŕigarria: eŕi baten saŕtzen diranian,

bertako berbetia egiten dabe, beste gustijak aizturik.

Ara ba: urte askotxu dirala, gaufr lako gau bat en egozan, zubek oraintxe lez, iru mutiko Bizkai'ko baserri-etxe baten, euren otzaratxubak geritetan Eregiak eurotan emoyak itxi eginezan.

Iruretarik bi bertakuak ziran, baseñitafak, euzkerea, geure efiko elia, polito ekijenak. Bestia zan sendi edo familia aberatsekua, Bilbao-ondoko efi txiki batekua; ta arek baxen euzkotafa odolez ixan arén, ezekian euzkerarik.

Gertau ebezan iru mutikuak euren otzaratxubok, bañuban ingi edo papelak ipinīta, Eregiak eskatzen eutsezala emoyak, bakotxak zer gura.

Baseritaf bijen ingijk euzkeraz idatzīta edo eskribiduta egozan; mutiko aberatsarena, erfderaz.

¿Eta zer jazo zan?

Eldu ziran Eretege Maguak eta gelditu ziran baserri-etxeko ate-aurian, ingijk irakuárteko.

Lenen etorfan Meltxor. Artu ebazan mutikuak itxiriko ingijk, irakuři ebazan euzkeraz egozanak eta itxi ebazan emoi bi. Baña erfderaz eguna ezin eban uleñtu, Euzkadi'n sañtu zanetik eze kijan euzkeraz baño ta. Emon eutsen ingija Kaispar ta Baldasar bere lagunai irakuárteko. Baña onek be ezeben uleñtu, ta emoyak itxirik

mutiko euzkeldun bijen otzaratxubetan, utsik itxi eban beste mutikuarena, euzkerarik ezeki-jarena.

—¡Ori da tamala!—esan eban onetan, ixilik egon-eziñik, entzule txikijetarik batek.

—Bai, ene matia—erantzun eutson atitak—. Tamal andija dok euzkotaŕ batek euzkerarik ez jakitia.

—Atita, niri tamal egiten yat emoi-barik istia euzkeraz ezekijan mutikua.

—¡A gixaxua! I ondiño txikija az ta eztok uleŕtzen au. Baña euki egixak beti goguan atitaren esanak, andija azanian gomutateko: tamalik andijena dok euzkotaŕ mutiko bat egotia euzkeraz jakin-barik.

—¿Eta Eŕege Maguak alde-egin eben?

—Bai, alde-egin eben. Euren gorputzak estalduta, zuri-zuri euren ganera jausten zan eduŕaz, juan ziran ludija (munduba) ibiltera, lepuak emoit zamatu edo kargaturik. Eta Euzkadiŕtik uŕten ziranian aiztu eben euzkerea ta asi ziran beste berbeta bat egiten.

—Eta atita, ¿emoi-barik geratu zan mutikuak negaŕ asko egin eban?

—Asko, negaŕ asko egin eban mutiko arek. Eta beste bijak, euzkotaŕ onak lez, beragaze ur-en emoyak banandu ebezan-aŕen, mutiko aber-

atsak ar̄tu eban asmo sendua euzkeraz ikasteko.  
Eta aldi gitxi-baŕu eder̄to ikasi eban.

\* \* \*

Bai-dakixube, ene umetxubok, Eŕege Maguak  
eztautsela emoirik isten eŕdeldun diran mutiko  
euzkotarai.

Aulestia'taf L.



## TXORI GAXUA

## (IPUÑA)

Neguba da, negu gogofa. Mendi ta basuak zuri-zuri dagoz, eduŕ-zapijaz apainduta.

«Bitxabal»-basetxeko eskaratzian, su-onduan, bertako lagunak dagoz Andoni zaŕa buru dala.

Eduŕa ziri-ziri jausten da.

Kanpuan otz andija; etxe-baŕuban berua.

Etxeko andereak (Andoni zaŕaren alabeak) aparija geftetan dau. Umiak atitaren onduan dagoz, berari begira, ipuñik entzuteko geŕtu (prest).

—Ara, enetxubok — dirautse Andoni zaŕak ilobatxubai— : apalorduba elduten dan biŕartian, adi-adi entzun ointxe esango dautzubedan ipuña.

\* \* \*

Euzkadi'ko mendi loratsubetan txori edeŕ bat jayo ta azi zan. Luma politaz jantzita, zugatzetako (arboletako) adaŕik-adaŕ ibilten zan, azke (libre) ta pozik, beti pioka, beti alai.

Abija mendijan bertan eukan. Bere lagunak be menditaŕak ziran. Bera euzkotaŕa zan eta maŕerik eukazan Euzkadi'ko mendi ta zugatzak, baso ta ituŕijak. ¡Eta beria ixaten zan poza adaŕ

batetik bestera, mendi-ziaŕ ibiliŕa gero, abira etoŕten zanian! ¡Beria ixaten zan poza umiai jaten emoten eutsanian pikuan ekaŕten eban janarija!

Geure txorija zorijonduna zan, buruba azke ta nasai ta umiak abijan ikusita.

Baňa bein ikuskurea saŕtu yakon. Eta umiak azita, oŕtik uŕun, beste eŕi ta mendijk, beste zugatz eta basuak ikusten juan zan. Lagunakin batu ta arin eta bizkoŕ alde-egin eban.

Egaiz ta egaiz, gure txoritzuba galdu zan. ¡Eta a zan esturia! ¡Arek ziran negaŕak!

Oŕ-emen begiratu ta txori-lagunik ikusi ez. ¿Nun ete-eguan? ¿Nun ziran bere lagunak?

Emen igon, an jatsi, aufkitu edo topau eban mendi bat. Baňa bertan ezeguan zugatzik (arbolarik), eta bero itxela zan.

Eŕi a etzan bere eŕija. Efi a atzerija, erbestia zan...

\* \* \*

Udea juan eta neguba etofi. Eta euzkotaf txoritzuba atzeŕijan eguan bakaf-bakaŕik bere burubaz.

Bertako mendi soletan txori askotxu ebiltzan, baňa etziran aizkidiak. Ezeukan bere lumarik, ezekijen bere berbeta gozua. Artu-emonik ezeu-

ken beragaz... Atzerítarafak (erbestetafak) ziran-  
eta.....

Geure txori gaxua aři baten ganian iřun-iřun  
(triste-triste) bein eguala, Euzkadi'rako bidia  
zein ete-zan igaři-nairik, gixonen eskubetan jausi  
zan, tiro batek ilda. ¡Gixaxuari erijotza etoři  
yakon bere aberijatzaz oldoztutene (pentsetan)  
eguanian!

Orixo jazoten yako, enetxubok, etxiagaz nai-  
kua eztaukela, kanpora juaten diranai.

Andoni zařa ixildu da. Ilobeak berari begira  
dagoz, adi-adi.

Eduřa gelditu ta oskarbijan ilargi betia agiri  
da. Bere argijaz baseřija ikusten da zapi zuri-  
zurijaz estalduta.

Aparija geřtu dagola, «Bitxabal»'eko lagunak  
mai-ondora uferatzen diranian, abesti (kanta)  
samuř-samuřa elduten yake belarjetara...

Txoritxuba:

¿Noranz ua

Egaiz-eiřen axian?

Euzkadi'ra juateko

Eduřa dok mendijan.

Jungo gozak alkařekin

Bera urtu datenian.

## A S A B E N F E D I A

¿Zer zare zubek, aitz ain goitsubak,  
 Zer zare, mendi txit zaŕak,  
 Zer zare, gure eŕekatxu ta  
 Zer zare, zer, ibai-tzaŕak?  
 ¿Zer zare, gure itufitxubak,  
 Zer zare, itxas zabalak?  
 ¡Zer zaren zubek eztakit, baña  
 Zare euzkeldun leyalak!  
 Gustijok zare euzkeldun beti,  
 Euzkeldun bere ixango,  
 Euzkeldun dabe zuben ixenak  
 Munduba mundu iraungo.  
 Eta berbetan ba'zenkije gauŕ  
 ¿Zer zendukie esango?  
 «Érdeldun ixan baño gustijok  
 Il gura dogu lenago.  
 Érdeldun ixan baño lenago  
 Atxok nai dogu zelaitu,  
 Mendi-tontofok bera jausirik  
 Landa-egiñik geratu;  
 Ibai-eŕekok agortu eta  
 Itufitxubak mututu,  
 Érdeldun ixan baño lenago  
 Lufa itxasua biurtu.»

---

## EROTAZURI'KO URETXINDORA

---

¡Katariñe gaxua, «Erotazuri»'ko atso mañagaři-guřgařija!

Beria baño buru-zapi zurijagorik, ez gogo zinduago ta bijotz oberik ezeguan Nabařa osuan.

¡Katariñe gaxua! Eguzkija mendi-ostez sařtuta, basotik etxera elduten zanian, ilobatxubak mañero ařtu ta zainduten ebazan, euroi abestutten (kantetan) eutsezalarik Bertizarana'n entzun eta ikasita eukazan abesti samuř-gozuak.

Eřiko txadon-jualiak (eleiz-kanpayak) «Angelus» samuřkiro joten ebela, Katariñe'k bere etxe-kuakin egiten eban ařatsaldeko otoya. Gero, suonduan jaři ta goruba eskubetan ařtuta, gogoz ekiten eutson ařdatzari, larohei urte ta geyago euki-ařen. Ori ikusita, etxeko umiak bere inguruban jezařten ziran, amamaren ipuňak pozik eta adi entzuteko.

Bein auxe entzun neutson, «Erotazuri»'n bertan, Katariñe'ri.

\* \* \*

Ni txikija nintzanian, efota-ostian dagon ar-

eitz-onduan abi polit bat eguan, sasi ta baso-loraz estalduta.

Abi onetan egoten zan uda-gau ixarotsu ta ber-oetan abesti (kanta) gozuak egiten ebazan ur-etxindofa.

Bein, Kepatxu'k, «Gazteluzar»'eko semiak, lakkija ipini, beragaz txorija aftyu, ta, pozik, etxera eruan eban. Kayola eder baten uretxindofa jañi eban eta jatekorik asko emon eutson.

Baña txori gaxuak ezeban gura jan, ez abestu. Itxuraz, bere gogora etorkijon baso ta ifuri, mendi ta zugatz eta abi matiaren gomutea, ta, itun-itun (triste-triste) eguan. Bere iñarkun ba-kaña zan batetik bestera ibili kayola-bañuban, espetxe (kartzeleko) loruai pikua ezañi, eurok ausi ta bertatik alde-egiteko.

Baña egunak juan, egunak etorri, asi zan geure uretxindofa bareuten, geldituten. Begijak lengo poza ta argija erakusten ebezan. Edonok esango eban aiztuta eukala bere zoritxaña.

Kepatxu, kayolaren onduan jañi ta luzaro egoten zan eresijk (tonadiak) txistu-egiten, ur-etxindorak eurok ikasi egixantzat. Eta ibili ta ibili, onek ikasi be.

Au zala-ta, Kepatxu poz-pozik eguan. Baña bein bere amak esan eutson azke (libre) ta nasai baso-ziañ ibilten ekanduta (oituta) eguan txori

arentzako zoritxaŕ andija zala kayolan estu-estu egotia. Gomutaratu eutson uretxindofaren zorijona uda-gabetan, buruba nasai, abestuten (kantetan) ebanian. Onen antzeko beste gauza asko be esan eutsozan amák.

Eurok entzunda, Kepatxu'k (okerá, baña bijotz ederđuna zana) erantzun eutson:

—Orain igaŕten dot txárto egin nebala txori gaxo ori aŕapatziaz, ta lengo aztakasuna emon gura dautsot, len lez alai ta pozik bixi daten.

Eta au esanda, kayola aŕtu ta berarekin ariñe-ketan juan zan. Eŕota-osteko areitz-ondora elduta, kayola luŕian itxi eban. Atia zabalduta, atzera -egin eban, txorijaren poza ta zorijona ondo adiŕuteko egaz-egingo ebanian.

Uŕetxindofa kayolatik pioka urten, areitz-adaŕ baten jaŕi, bere abija ikusi ta ..... ¿bai-dakixube zer egin eban?

—Bertara saŕtu ta kukuŕtu—esan eban mutiko batek.

—Abijari mun-egin — esan eban beste batek.

—Antziñan lez, pozaren pozaz txioka asi, — esan eban irugaŕenak.

—Ez olakorik — erantzun eutsen amamak — Txorijak ezebazan gomutetan bere gurasuen abestijak, ez bere etxia, ez txikiŕatiko azkatasuna. Aulan, ba, adaŕik-adaŕ ibili, lufera jatsi, Ke-

patxu bere jaubiagandik ikasitako soñu bat egin eta .... bañiro sañtu zan kayolara.

«Erotazuri»'ko umiak ikaratuta lotu ziran, entzuten ebena ziñestu-eziñik. Ori igarita, Katarine zinduak, bekokija esku tximurtsu-ganian ezañita, esan eutsen:

—Iñoz zuben guraso edo aberijagandik gura-ta-ez alde-eragingo ba-dautzube, ta gero eureka-na etorri al ixango ba-dozube, jiez egin, ene umiok, «Erotazuri»'ko uñetxindoñak egin ebana!



## A I Z T A   B I J A K

## (EРЕГЕ - ИПУНА)

Imanole'k eta Eduſne'k, euren oe zuri txikijetan etzunda, olan jarduten eben:

—¿Uste ete-don etořiko donazala?

—Etxakiňat. Eurek etxonez ume okeřak maře ixaten.

—Eta ni okeř-okeřa ixan non ¿ezton? Etxaus-ten parkatuko.

—Parkatu, bai, baňa.....

—Baňa ¿zer?

—Eskatu biařko dautsen.

—Eta ¿uleřtuko ete-yausten? ¿Euzkeraz be ete-yakinē?

—Eurek uleřtzen yone umiak esaten yautsenagun gustija.

—Eta auřerantzian ona ta zuřa ixango nonala esango ba-yautsenat, ¿uste ete-don.....?

—Ziuř nayagon, eta neuk irekin batera eskatuko yautsenat.

Esku politak baturik, asi ziran otoika (erěguka).

Gau atan Bakaldunak (Eřegiak) etořiko ziran; baňa onak diran umientzat bakařik, eta Eduřne

etzan ona ixan. Bere aizteari txitximurka-egin eutson eta neskamiari aginka. Eta gomuta onek negar-eragin eutson egun atan. Urtian-urtian Bakaldunak bitxi politak ekaři dautsoez, baña onetan..... Orañño, berak parkamena eskatu dautse, ta..... luak aŕtzen dau.

Polito-polito atia zabalduten da ta Bakaldunak (Erengiak) saŕtzen dira..... Imanole'k mosu gozo biguna susmau dau bere bekokijan. Itxaŕtutene da ta begiratu: bere ama da. Onek dirautso:

—Ago ixilik; Eduŕne'ren oñetakuan etxonat deusik itxi. ¡Gaxua! ¡Bijaŕ berak egingo yon negar! Baña biaŕezkua don; okeŕa ixan don eta etxon parkamenik eskatu.

Imanole'k uleŕtu dau. Bakaldun - ordelarija bere ama da. Baña..... ¿ez-ete-dautsoe esan Eduŕne'k parkamena eskatu dautsela? Urían, eztau-tsoe esan, baña berak bai-daki. Orduban, polito-polito oetik jagiten da ta bere oñetakuaren onduan dagon bitxi-pilua erdibitü ta bere aiztearen oñetakuaren onduan erdiya jaŕten dau.

Eduŕne'k, itxaŕtu zanian, poz-oyuba egin eban.

—¿Ikuston, Imanole? ¿Ikuston? Bakaldunak entzun yausten.

Eta aizta bijak poz-pozik, euren bitxijak begiratzen eztira aspeŕtutene.

Une atan atia zabaldu ta ama saŕtzen da. Ben-ben datorí, Eduŕne negaŕez dagola uste ixanik. Baña onek, laztandurik, dirautso:

—Parkamena eskatu dautset bakaldunai (eŕegiai) ta gusti au bidaldu dauste.

Amak dana igaŕten dau. Imanole besarkatuta, onek maŕero dirautso:

—Zu nire Bakalduna ixan zara ta ni neure aiztearena ixan gura ixan naz.

**Eratzl'iaf Karmele**



## TXIRUA TA ZORIJA

---

### (IPUÑA)

Eskale bat, zoño (zaku) zaŕ andija lepuan eba-la, etxerik-etxe ebilan ogi ta diru-eske.

Bere zoritxaŕatzaz oldozten (pensetan) eban eta ezeban uleŕtzen (aituten) zelan egon leikezan diru asko euki-aŕen pozik bixi eztiran gixonak.

—Ona emen etxe onen jaubia. Saloskarija (komertziantia) ixan zan antziñan ta diru-meta ixugarijak irabazi ebazan.

Ainbeste dirugaz ederŕto bixiko zan edonun, ezer egin-barik, besuak eunduta. Baña berak ezeban gura ori: geítu ta geítu gura eban diruba. Eta ȝzer egin eban?

Itxas-ontzi andijak egin ebazan zamaz (kargaz) batetik bestera bidalduteko. Uste ixan eben one-tara diru asko irabaziko ebala.

Baña gixona dabil eta Jaun-goikua'k darabil. Ekaitz andijak ondoratu ebezan itxas-ontzijok eta euren baŕuban joyazan gauza ta diru gustijak.

Gixon oni jazo yakona beste askori jazoten yake. Baña niri etxatan olakorik jazoko. Jateko ta janzteko biaŕ dana eukita, eneban besterik

eskatuko. Oñegaz pozik eta zorijontsu bixiko nintzan.

Orixo esanda, Zorija ageñtu yakon gure eska-liari.

—Zu, gixon—esan eutson Zorijak—, gauza bat esan biañ dautzut. Itxura negañgarí oñetan emetik auñera ibili etzatezan, diru-apuñ bat emongotzut. Lepuan daruazun zakuba zabaldu ta bertan añtu botako dautzudan uria. Baña lenago entzun: zaku-bañura jausiko dan gustija uñe-gor-ija ixango da, baña zakutik kanpora jausiko dana auts biguñtuko da.

—Tira ba—erantzun eutson, pozaren pozaz, eskaliak.

Zorijak ugari bota eutson uñe-gorija.

—¿Naikua daukazu?—iñandu eutson.

—Ez, ondiño ez.

—Zorua zañ-zaña dozu, ta ñezta uñatuko geyago botaten ba-dot?

—Ez, ezta uñatuko.

Eta Zorijak uñe-gorí geyago bota eutsan.

Eskalia, zorua eskubetan ebala, dardaraz egulan. ¡Uñe-iñuri ori betiko ba'leuko....!

—Tira, munduko gixonik aberatsena zara orain—esan eutson Zorijak.

—Ez, ondiño ez—erantzun eban eskaliak—. Bota geyago.

—Baña gixona, zoŕua bete-beterik daukozu, ta geyago botetan ba-dautzut, estanda-egingo dau.

—Ez, ondiño ez. Bota geyago.

Zorijak uŕe geyago bota ta zofuak estanda-egin eban. Diru gustija luŕera jausi ta auts biguŕtu zan.

Ori ikusiŕa, Zorijak baŕe-egin eta alde-egin eban.

Eskalia zofo utsagaz geratu zan, baña auxe be uŕatuta.

\* \* \*

Ipuin onek adirazoten dausku gixonak dauken uŕe-egaŕija eztala iñoz ta ezegaz asetuten. Asko euki, geyago gura.

Oŕtik etoŕten yakun kaltia kalte andija ixaten da guretzat. Baña geu beti diru-biŕa.



## EDURNE'REN LORIA

Baratz-zokuan,  
 Luf gantzatsuban,  
 Esiz josita  
 Txukunki,  
 Eduŕne'k eukan  
 Lora zurija,  
 Lirain, garbija  
 Maŕteki.

Goxetako intzez,  
 Eguzki-beroz,  
 Zimaŕ-indaŕez  
 Egunez,  
 Lorategira  
 Epeletara  
 Aldatzen eban  
 Aŕatsez.

Ain maŕtekiro  
 Zintzo ta astiro  
 Zainduba ixan zan  
 Loria  
 Sotil ta usaintsu,  
 Mardul ta guri  
 Gorantz etoŕen  
 Ordia.

¡Aŕats edeŕa...  
 Ikuskurea,  
 Jolas-gogua

Ta dantza!...  
 Aiztu yakon, ba,  
Eduŕne'ri bein  
Loratxubaren  
Aldantza,

Ixotz goŕijak,  
 Zítal, ankeŕak,  
Neskatilaren  
lñartziz,  
 Ikol eta igeŕ,  
 Berantz begira,  
Zaurituten dau  
Il-zauriz.

—¡Au bai tamala!,  
 ¡Au bai gaŕbaya!—  
 Negaŕez diño  
Eduŕne'k—.  
 Egun bateko  
 Ardura-bagez  
 Lora txukuna  
 Galdu det.

—Adi-egixu,  
Eduńne mate,—  
 Dirautso ama  
Zinduak—  
 Eztau egundo  
 Nagi ixan biaŕ  
 Bijotz garbija  
 Nai daunak.



## IRU AUNTZAK

---

(NORUEGA'KO IPUÑA)

Mutiko batek iru auntz eukazan.

Egunez basuan ibilten ziran bedarā jaten, eta  
gabez kortara saftzen ebazan.

Bein euren biña juan zala, ikusi eban mutikuak  
arbi-solo baten egozala, landara au jan eta jan.

Alegin andijak egin ebazan bertatik atarateko,  
baña ezin.

Orduban mutikua ari baten ganian jafi ta ne-  
gafez asi zan.

Negaŕ ta negaŕ eguala, erbi batek eldu ta  
itandu eutson:

—¿Zer dala-ta negaŕ ori?

—Saŕtuta dagozan solotik auntzak atara ezin dauzalako.

—Neuk atarako dodaz, ba.

Erbi ja auntz-ondora juan, alegiñak egin, bana ezin atara. Orduban mutilagana juan, beste aŕi baten ganian jaŕi ta negarez asi zan.

Gerotxubago azeri bat uŕeratu yaken.

—¿Zer dala-ta negar ori?—itandu eutson erbijari.

—Negaŕ-egiten dot, mutiko onek egiten daulako. Eta mutikuak egiten dau, arbi-solo oŕetatik auntzak atara ezin dauzalako.

—Neuk atarako dodaz, ba.

Azerija auntz-ondora juan, alegiñak egin, bana ezin atara. Orduban mutiko ta erbijakana juan, beste aŕi baten ganian jaŕi ta negarez asi zan.

Gerotxubago otso bat uŕeratu yaken.

—¿Zer dala-ta negar ori?—itandu eutson azerijari.

—Negaŕ-egiten dot erbijak egiten daulako; erbijak egiten dau mutikuak egiten daulako, ta mutikuak egiten dau arbi-solo oŕetatik auntzak atara ezin dauzalako.

—Neuk atarako dodaz, ba.

Otsua auntz-ondora juan, alegiñak egin, bana ezin atara. Orduban, mutiko, erbi ta azerija-

kana juan, beste afi baten ganian jafi ta negaŕez asi zan.

Gerotxubago efle bat uŕeratu yaken.

—¿Zer dala-ta negaŕ ori?—itandu eutson otsuari.

—Negaŕ-egiten dot azerijk egiten daulako; azerijk egiten dau erbijak egiten daulako; erbijak egiten dau mutikuak egiten daulako, ta mutikuak egiten dau arbi-solo ofetatik auntzak atara ezin dauzalako.

—Neuk atarako dodaz, ba.

Ori entzunda, mutilak, erbijak, azerijk eta otsuak negaŕari itxi ta burla-egin eutsoen eŕliari. ¿Zelan berónek atara bestiak atara ezin ebezan auntzak?

Eŕlia, baña, arbi-solora juan eta auntzen belaŕijetara saŕtu zan. Bere salto ta dantzakaz go-gait-eragin eutsen auntzai. Eta orain bat eta gero bestiak, iru auntzak urten ziran arbi-solotik.

\* \* \*

Saŕi jazoten da ori: andijk egin ezin dauna txikijk egin.

## JOSU · KISTO TA JAKITUNAK

---

Orain bi mila urte-inguru batu ziran zelai an-di baten munduko gixon gustijak. Eurok deitu-ta, jakitun gustijak be erdu ziran.

Jakitunak gixoztiaren aúfez-aúf jaíri ziran.

Gixonen artetik aguratxu zimel bat lagi zan gustijoen ixenian itz-egiteko.

—Jikitun oyek—asi zan esaten—: gixon gustijok daukogu egija jakiteko ta zorijonekuak ixateko egari bixi-bixija. Egija ezagutu ta zorijona loftu gura dogu.

¿Zer da, baña, egija? ¿Zer zorijona?

Baúu-baúutik urteten yakuzan itaun bi oñei erantzun gura dautsegu. Baña eztakigu erantzuten.

Bein baño safijago irakuí doguz zuben idaztjak (liburubak), eurok zerbait erakutsiko euskubelakuan; baña alpeñik: len lez edo len baño ilunago geratu gara.

Ori ikusita, batzaí onetara deitu zaitubegu, itaun oñei zer erantzuten dautsezuben jakiteko. Entzun, ba, gure eskarija.

Jikitunak adi-adi lotu ziran.

—Guk eskatzen dautzubegu—esan eban aguratxubak—idaztiño (liburutxu) bat, ogeiren bat

ořiduna, egin dagixubela, egi utza ta zorijona erakusteko. Idaztiño au gustijentzako ixango da: naiz txiro, naiz aberats, naiz jakitun, naiz ez-jakinentzat. Auxe da gure lenengo eskarija.

Jakitunak, alkaři begira, euren kolkorako iñuen:

—¡Leku onetara egijaren bila! ¡Ondo yagok gixona guk irakatsiko dautsogun egijaren zain ba-yagok!

Eta euretarik batzuik iges-egin eben andik.

Agureak, jakitunen igestiari jaramonik egin barik, jařatu eban:

—Irakaskintzeak bakarik eztoguz eskatzen. Geuk gura-dogu zubek irakatsiko dauskuzubena egiñenakaz (obrakaz) egiztu dagixubela.

Jakitun geyenak alde-egin eben.

Baňa ezta ori gustija—esan eban aguratxubak—. Irakaskintza ta egiñen oneik aldi (den-pora) gustijetako gixonai irakasteko ikastola (eskola) bat biař dogu, bertakuak ekandu (ořitura) on gustijen eredu (modelo) ixateko.

Au esanda, jakitun-aldera begiratu ta bat be ezeguala ikusi eban, gusti-gustijok alde-egin eben-eta.

Baňa nundik ezekijela agertu zan janzki edo soňeko lузedun gixona, gurutz-antzeko eguřa lepuan eroyana.

Nor ete-zan begira-begira jaři ziran eta ikusi eben bere uliak goři-gofí, odolez beterik, eukazala, ta odola erijola ugari arpegi ta gorputzaz -ziař.

Onek begirada gozo-biguna ango gixonai egin eta eurekana elduta, leunkiro esan eutsen:

—¿Egija ta zorijonaren bila zabiltze? Neuk dakařtzubedaz, ba. Ona, idaztiño (liburutxu) au: egi gustijak daukoz. Edonok irakuri ta ikasi daikez bertan. Auxe «Ikasti kistařa» (Kristiñau-Dotriňia) da.

Gixon gurutzedunak jařatu eban esaten:

—Baña zubek eztozube irakaskintza bakařik eskatu: zubek ekandu on gustijen ereduba be gura dozube. Amen naukazube: Neu naz. Neu naz zuben Jaun-goikua, zorijon-bidia zubei erakustiařen gixon egin nintzana.....

Eta azkanez, gauza oneik beti irakatsiko dauzan eskola edo batzařa eskatu dozube ſezta? Oř daukozube neure Doibatz edo Elexa, ba: Berari entzun eta jařatu.

Gusti au ikusi ta entzunda, gixonak auzpeztu ta guřtu eben Josu-Kisto gure Jauna.

## LULU TA MANU

## LULU

Neuk ikusi neban nire ondotik joyala. Guri, galanta, apain eta afo, alde gustijetara ziaŕetara begiratubaz. Kaleko aŕijak ofpuakaz indaŕtsu joten euzan.

Etxe andijan jayua, alaba bakaŕa, palaguz betia, zurikerijen aŕtian azija, gura ebana egiten oituta eguan eta bere gogo aldakoŕa eukan lagitzat.

Begi ederén jaubia zan. Begi arekaz askotan begiratu oi-eutson gozoro bere aŕpegijari.

Begi aer subak saŕi piztu ebazan gixonen bijotzak. Baña Lulu'k ezeban iñor maŕe, beretzat aňakorik ezeguan-eta.

Buruba argiz baño axezi betiagua eukan; bijotza andikeriz gañeza.

Txalo-bila ebilan eta gastien txaluak ugari aŕtu euzan.

Aizkide askok iñartziz (enbiriz) begiratzen eutsaen Lulu'ri, baña Lulu'ren goguan abi andija eukan naigabiak.

¡Etzan bera bakaŕik edera ta aberatsa!

Goiz baten, aizkidien artekoko jolasetik, ero ta ameslari, apain baña erdi-jantzijan etxera joyala, axiak albuau ukutu ta gexotu zan.

Neuk lagundu neutson azken-orduban. ¡Erijotz samiña Lulu'ren erijotza!

—Begiratu egixu zeru-aldera — esan neutson.

—Nire aŕpegija zan nire zeruba — erantzun eustan — ¡ta luŕ-pian saŕtu gura nabe! ¡O, ni enaz ilgo! ¡Nik eztot il gura!

—Maŕtagaŕija da bixitxa, baña luŕekua ezta betiko.

—¡Ni gastia naz! ¡Nik eztot il gura!

—Gomutau egixu Jaun-goikua'rena zarala, Beragana juan biárko dozula.....

—¡Nik eztot il gura!

Baña il zan. Luŕian gura ebana jaritxi baño len il zan, negafez, ikaraz, gogo-ilunaz, itxaropenik baga.....

#### MAÑU

Soñeko zaŕ-zaŕez jantzita, oñetako leŕtubakaz, makilatxu bat eskuman eta eskerian otzara txiki-ja euzala, nire ondotik igaro (pasau) zan, argal ta erkin, Mañu eŕukafija.

Biaŕtsuben alabia, umezuŕtza, eskian ebilan eŕijan eta kanpuan, noxian-bein lagunakin, safi lagun-barik.

Añpegi zuri aingerutara eukan eta begi zabal-andijak, argi-bakuak.

Ezeban ezer ikusten: itxuba zan gaxua.

Ezeban ezer ikusten bere inguruban: lañuak estalduten eutson begijen argija. Baña bañuban, bañuban berak aña ikusten ebanik ezeguan.

Juan ziran urte batzuk, ez asko.

Jaun-goikua'k zigorikada gogoñak emon eutso-zan aldi oretan. Baña etxakon Mañu'ri bañuko argija itxali, gogo-bakia ezek ezeutson kendu.

Neguko egun baten, berandutxu, bakañik ebi-lala, bidia galdu ta sasi-onduan igaro (pasau) biañ ixan eban gaba, euritán, basatan, arantza-añtian, ekatxaren ofu itxelak entzunaz.....

Gexotu zan eta neuk lagundi neutson azkenengo ordubetan.

¡Mañu'ren erijotza erijotz edera!

Eskubetan eukan Josu-Kisto Gurutzalduba ta espanetatik begi-aurera eruaten eban.

—¿Zerbait ikusten dozu, ala? —itandu neutson.

—Bai, zorijona—erantzun eustan.

—¿Zorijona?

—Bai, beti ikusi dot uñundik, baña orain uñ-uñ daukot.

—¿Nok irakatsi eutzun zorijona ikusten?

—Nire amak. Askotan susmau neban negañez, ni e seaska-onduan, itxuba nintzalako. Baña ge-

yagotan esaten eustan, laztanga-laztanga, begi-argidun itxubak zirala efukaři. Jaun-goikua'k ni oso maře nindubala ta betiko argija gordeta eukala niretzat. Orixe da zorijona ta nire onduan dakust.

Mañu il zan. Poz-pozik emon eban azkenengo arnasa, nasai ta bigun, baře-antzera.....

**Agife'taf Domeka (Bizkayeralduta)**



## ARTZAÑAREN EDESTIJA

Artzaña mendi-mendijan,  
 ardijkak zaindutiaz,  
 alai eguan eŕutsu  
 otso uzu-aŕtian;  
 eduŕa mendijan zala,  
 naiz eguzki berua,  
 bai neguban, bai udean,  
 bera zan zoruntsuba.

Ule zuridun artzaña  
 berarekin bixi zan,  
 antziñeko jazokunak  
 edesten eutsazana.

Zoruntsu zan artzaintxuba,  
 azke-azke zan-eta;  
 ezeban beste jaberik  
 Urtzi baño, ta ardijkak.

Bein mendijan gixon batek  
 aurki-eban artzaña,  
 ta gixon aberats ari  
 begikua ixan yakan.

—¿Nirekin urira juan  
 gura-dok, artzaintxuba?  
 Antxe nire jauregijan

oparo bixiko az;  
 emen lez otz ez goserik  
 eztok ixango bertan.  
 Artzaintxubak, zoratuta,  
 bayetz esan eban, ba,  
 eta artzain zaŕa lagatzen  
 jauregira jatsi zan.

· · · · ·  
 ¡Gixaxua! Jauregijan  
 oparo bixi-ixan zan,  
 baña azkatasun ederá  
 betiko galdu eban.

Mendijan jaube bakaŕa  
 Jauna eban gaxuak,  
 eta urijan oro ziran  
 jabe uzbak beretzat.  
 Eta baŕiro mendira  
 bigurŕtu gura ixan zan,  
 baña bere ugazabeak  
 juten galazo eutsan.

· · · · ·  
 Laster̄ artzaintxu zorua  
 itun-itunez il zan;  
 ta mendijan artzain zaŕa  
 erail eban otsuak.

Aizkibel'daf Bingen

*Jarduna.* — Ondo gogaldu oleŕki onek esan gura dauna.

## A L D A K E R I J A

## (IPUÑA)

Kayola polit-polit baten bixi zan txori afe za-tar-samar̄txu bat, gusti zorijontsuba zana. Ezter-itxot, ba, egija danik giltz-pian dagozanak men-betasuna gōrotetan dabela beti. Asko māte eban beria geure txoritxubak.

Leyo (bentana) andi baten egon oi-zan kayola, lora usaintsubakaz inguratu ta apaindutako leyo eder batian. Andik agertzen zan azkatasuna, beste edozein kayolpetutako txoririk gogo-miñaz iltzeko aña ba-zan noski..... Ibañ zabalak, efekatxu argitsubetz ziañkatubak, lora-zélai gus-tiz alayak, eta an, azkenian, mendi luziak, margo (kolore) urdin-antzeko garbijaz estaldubak. Goi-goyan eguzki berua, ta axian udearen arnasa gozo-gozua.....

Danori agertzen zan leyo atatik, baña ofatiño, pozkaríjagotzat eukan geure txorijak bere kayola.

Askotan txolafe bizkoír bañitsubak leyoraño elduten ziran, kayolan eguan janarija eruan-gur-ari. Elayak be, aren auñetik aguñ alaya egiñaz,

egazka jolastuten (olgetan) ziran, leyoko goi-aldeko baztertxu baten euken abijari begiratu ta zaindubaz. Baña be iñunabar-aldian laster-lasterika-ibili oi-diran softbeltz-talde oyularijak, euren ego baltz luzziakaz leyo-oŕmeak ikututeko zorijan.... Ezeban, baña, gure txoritxubak, danau ikusita be, euren lagun zorijondunakanako juateko guraririk.

Ezta, noski, ulefkatxa ori, jabetzat neskato polit zoragarria eukala jakinda. Uŕezkua irudijan bere uliak; begi andi-baltzak eukazan, eta gorputza lirain-liraña.

Goxetik juan oi-zan neskatua txorijagana, ta baŕe-algaraz kayola-baŕu bere atzamaŕ zuri-goŕijak saŕtu ta eskeintzen eutsozan, txoritxubak mokokatu eutsozala. Gero kayola-atia idegiŕa (janarija aldatzeko atxakijaz) igesten zan egazka txorija, poz-pozik, eta neskiaren buru-ganian geldituta lenengo, geruago arek zabaltzen eutson eskuban jaŕten zan. Neskatilak egin oi-eutson mun gozua aftuta, atseginez biguŕtzen eutson.

Oŕetara, itxusi-samaŕa ixan-aŕen, ta margo (kolore) politik ez eukita, abesti (kanta) samur- etarako bere estafija ez ixanda be.... pozik eguan beti, munduko txoririk zorijondunena zan-eta.

Udea juan zan. Leyoko loriak asi ziran igaf-

tuten. Elayen soñua pizka-pizkaka osoro ixiltze-ko bidian eguan. Sofbeltzak be beste eri bero uŕutijetarantz abijau ziran..... Bein, axiak batera ta bestera eruan oi-dauzan orbelak leyua oritu eben, eta zugatzak ija adaŕ-utzik agiri ixan ziran.

Beste egun baten, eduŕak landa-mendi gusti-jak osoro zuritu ebazan. Goiz atan be, oi-eban lez, etori zan uŕe-uledun neskia. Ezerabilan, baňa, baŕerik espanetan. Etzan txoritxubarekin bere atzamaŕ bizkoŕakaz jolastu..... Nik jakin dodanez jezeutson begiraderik be egin!.... Kope-ta ilun-ilunaz, leyora zuzen juan eta zabalik itxi eban. Orduban axe otz-otza saŕtu zan gelara. Berialaxe txorijari atia idegi eutson..... Jagi zan ikaraz gaxua. Bere jabiaren ilun-aldi ja igari eban, eta beragana egazka juan zanian, eskuka-da batez ixutu ta leyotik alde-eragin eutson nes-kiak, beriala itxijaz.....

Asi zan oyuka..... ¡Alperik! Bere maŕale eskaf-bakuaren arpegija leyotik baŕurantz ostendu zan, eta axe otz zoŕtzak txoritxubaren gorputz biguna josi eban.....

Onazez zoratzeko zorijan, an eguan egazka ta laŕi geure txori gaxua. Gorputz osua eduŕ-estalki edeŕ ixugaŕi arek estalduta eukan, eta ezeban zor-igaiatzdunak adaŕtxu bat be auŕkitzen (topetan) atsedenduteko (deskantsetako), ezta bere gosia

kenduteko aletxu bat bez..... Bixi-bixiro gomutetan eban orduban kayolatxuban jateko gozoz betia egoten zan jatokijaz ta bere neskato matiaren mate-egin mañagafijetaz. ¡Eta negaŕ ta negaŕ egiten eban gaxuak!....

Gaban erijotza uferatzen yakola igari eban. Gelditu-barik asi zan edufa baŕiro jausten eta berari indaŕa motelduten. Ezin eban edufa sońetik kendu.

Egunabafaren lenengo argijaz batez, azken -indaŕ-aldija egiñaz, leyo maŕerantz abijau zan, eta itxiŕa topau-aŕen, saŕtu gura ba’leu lez, eguetaz asi zan, saminkiro, leyaŕak (kristalak) joten... Ordubantxe ikusi cbanak bijotza gelditu-erazo eutson: antxe, gela-baŕuban, eguañ bere ure-kayola, ez utsik baña..... Bertan lo-egiten eban, nasai-nasai, beste txoritxu batek..... ¡bera baño edeŕagua, bera baño abeslari (kantari) obia zan txorija!....

¡Txori aŕe gaxua! Leyo-aŕi-ganian jausi zan bat-batez, gezi zoŕotzen batek zauritu ba’leu lez..... Begijak betiko ilundubaz, pustu-nastuta egakijak, ankatxubak teink, eguak zabalik.....

\* \* \*

Eguna osoro argitu zanian agertu zan neskati-

Ia, ta algaraz txori barijarekin edefto jolastu zan, lenenguarekin oi-eban lez. Leyora uferatu zanian, landa-mendi eduftubak ikusteko, ari-ganian ilda eguna txoritzuba ikusi eban..... Baña laster ezagutu ta pizkat atsekabetu be. Zabaldu eban leyua, ta bere eskubetan gorputz ilà airturik, geldi-geldi egon yakon begira, eruki-antzez. Eta, azkenez, begi zabaletatik malko andija igesi yakon, txoritzubaren bulañ-ganera jausi zana.....

¡Zorijontsu il ixan etekian txori gaxua, erijotz-auñetik bere mate-matiaren azken-opari ori igañi ba'leu....!

Bitartian; arrotza, danau ikusirik, asafatuta, neskatilari deika asi yakon. Eta onek, orixe entzunda, esku bataz begijak igoñtzi ta bestiaz, bere naibagia bat-baten aiztuta, kayola idegitzen juan zan arintxu, leyua itxi-ondoren.

Eta mate barija polito-polito bere ingurubetan egazka ikusita, eta aren abesti (kanta) samurak entzunda, zoratuta eguna..... eta, azkenez, esku-ba zabalik eskiñi ta bertan jañi yakon, ¡baña mun gozua pikuan emon be!

\* \* \*

Bitartian, edur-ganian, txori afe gaxua eguna... Itxalita begijak, egakijak pustu-nastuta, anka-

txubak teink, eguak zabalik..... Eta gora biuſtuta eukan bulaſ-ganian leſuten asi zan bere maſe eskarbakuaren malko ixuri-baſija.....

\* \* \*

Olakoxiak ixaten gara gixasemiak: gauf mate-maſero aſtzen doguna bijaf ezesten (desprezietan) dogu.

Ipuin onek ederlo erakusten dau ori.



## LORIAK

Nadie come flores, y flores  
da la tierra.

BENAVENTE, *La noche del  
sábado.*

Liraña, lirain-liraña, polīten aŕtian polita zan,  
ondiño bederatzi urte ezebazan neskatal maŕa-  
garí a.

Mirentxu eretxon eta zerutik iges-egindako  
aingerutxuba irudijan.

Esne zuri-zuriz ta lafosa gofizkiaz egiña zan  
bere arpegi gozua; eguzkijari kendutako uŕezko  
efanubak ziran uliak; erdibitutako kerexa goŕi  
-goŕija espanak, eta bein be geldi ezin egoten  
ziran tximeleta jolastarijak ziran bere begijkak.

Bixija, azkaŕa zan gure Mirentxu. Mitxeletak,  
lorak eta txorijak eŕeginarik gura ixan-ezkerro,  
antxe eguan Mirentxu euren eŕeginā ixateko.

Etxeko baratzan ebilan, jo batera jo bestera,  
mitxeleta margodun (koloredun) eta edeŕ-edeŕ  
bat arapau-ezińik. ¡Mitxeleta bat beste mitxeleta  
baten atzetik!

Batetik bestera, landara au itxi ta bestian gel-  
dińu, madarifík sagaŕera, sagaŕetik okaranera,  
puntarik-punta bedaŕik-bedaŕ, arantz, onuntz,  
ebilan beti mitxeletia, axia baxen arin. Baŕa Mir-

entxu bere atzetik be. ;Elduko eutson, bai, nun  
-edo-nun!

Juan zan Mirentxu ixil-ixilik, mitxeletia lañosa baten ganian ikusi ebanian. Uferatu zan..... oraintxe ba..... polito-polito eskuba luzatu eban..... ;esku polit-polita mitxeleta bat bere ganian jaíteko!.... beste pitin batian ba'lego..... Baña ;bai, zera! Juan zan mitxeletia Mirentxu'ren atzamarratistik.

—;Ene! Ara, antxe dago orain, klabeliña zuriaren ganian. Nuan bañiro beragana... ixo... ix... o.....

—;Mirentxu! — esan eban orduban baratz-ate-ondotik etofan abots eztitsu batek.

Mirentxu gelditu zan. Urezko uliak aztinduta, atze-aldera biguítu eban buruba.

Baratz osua Mirentxu'ren leporañoko afi-ofmeaz inguratuta eguan, eta ofmaz-goitik esi apañaren buñdin ondo landubak egozan zuzen-zuzen jaíta.

Buñdin biren artetik ume baten aípegi argala agiri zan.

—;Zer da? — itandu eban Mirentxu'k umia eguan tokirako bidia aítuta.

Umiak ezeban erantzun. Mirentxu uferatu zan. Gitxi gora-bera, adin batekuak ziran ume bijak. Esiz beste aldera agertzen zana argala zan.

Órtosik eguna, soñeko zaŕ-arabatuz jantzita. Eŕaz igaften zan ume arek ezebala asko jaten, bere aŕpegi orizka ta indaŕ gitxiko gorputza ikusita.

— Eztaukat ogirik emen—esan eutson Mirentxu'k—. Zuaz nire etxeko atera ta an zeozer emongo dautzube.

— Nik eztot ogirik gura, Mirentxu—erantzun eban ume gaxuak, buruba makur-makur egiñaz.

— ¿Zelan dakixu ni Mirentxu nazala?

— Markesaren alabeak zein ixen daukon ¿nok eztaki eŕijan?

— ¿Eta zeuk zelan dozu ixena?

— Nik Mikeltxu.

— Baña..... ogi-eske etzatozala esan daustazu.

— Enatorŕ-ta.....

— ¿Zer gura dozu, ba?

Mikeltxu ixilik eguna, begijak luŕ-jota. Bai, Mirentxu'ri eŕaz deitú eutson, baña orain gura ebana esatia ain eŕaza etzan.

Mitxeletiaren atzetik, jo batera ta jo bestera ebilala ikusi ebanian, beste umiak lakoxia zalkuan deitú eutson, baña orain, bere aufian ger-  
tu (prest) ikusita, lotsatu egiten zan. ¡Zer egingo eban, ba, ume biaŕtsu, txiro, soñeko zaŕdun arek Markesaren alabatxu txukun eta politaren aufian!

- ¿Ezer gura dozu ala ez? Esan.
- Bai... an... bazterian... bost larosa gorí-gorí...
- ¿Ikusi ete-dozuz?
- Bai, ba.
- ¡Kontxo! Iñundik etzirala ikusten uste neban. ¿Eta zer?
- Emoteko.
- ¿Zeuri emon? ¡Bai, zera!
- ¿Eztaustazuz emongo?
- ¡Ezta... ezta...!
- ¿Zer ba? Beste lora asko bai-daukazuz baratzan.

—Oñelakorik ez, baña. Larosa oñeiak bai-dabe euren zera. Zeuretzat eztira larosaok. Ogija gura ba-dozu, ekañiko dautzut, baña larosa oñeiak ¡ezta!

—Zeu be bestiak lakoxia zara, Mirentxu, danak lakoxia. Emen nabil aterik-ate eske. Iñok eztaust ifanduten zer gura dodan. Ikusi-orduko ogija emon eta atia itxi. ¡Beti ogija! ¿Zer, ba? ¿sabela baño eztaukagu biañtsbak, ala? Iñok eztaust ondiño mosurik emon, mañasun-apurik bez. ¡Beti ogija ta ogija! ¡Beti sabelerako gauzak! Bijotzerako iñok ez. ¿Soñeko zañen azpijan bijotzik ezta ixaten, ala? Nik bai-dot, ba, ta ofegatik larosak eskatu dautzudaz. Eta zeuk, beste gustijak lez, larosak ukatu ta ogija eskiñi. Eztot gura, ez, ogirik. Sabelerako gauzaen gose-naz,

baña batez-bere bijotzerako gauzaen gose. Eska-tu-biañiañ, ixil-ixilik eta zeuk etzengozanian, aftu ba'neuz lañosaok, neuriak ixango litxakez oin. Baña olakorik eztala egin biañ amak irakatsi eustan-eta, eztodaz artu. Orain eskatu ta ezetz... ogija jateko.

—¿Eztakixu, ba, Mikeltxu, bijañ nire amatxubaren eguna dala ta berari emoteko ixil-ixilik daukadazala bazter atan? Beste gustijak uñezko ta zidañezko oparijaz etxia beteko dautsoenian, lañosa eder oñeiñ eruango dautsodaz nik, eta beste opari gustijak baño geyago poztuko dabe nire amaren bijotza. ¡Egi-egijazkua, bijotz-bijotzez eskiñija ixango da-ta!

—¿Eta eztakixu zeuk bijañ nire amatxubaren eguna dala, ta bakañ-bakañik dagola ta inok eztautsola ezer esango ta ezer eruango, nik eruaten ezpa-dautsot, eta eruateko ezer eztaukadala zeuk lañosa eder oyek emoten ezpa-daustazuz?

—¿Nun da, ba, zure ama?

—¡Hobijan!

Mikeltxu'ri begira apur baten egon-ondoren, Mirentxu juan zan lañosak egozan tokira, ebaziñ ebañan eta eurekaz txorta bat egin eban. Onen inguruan ipiñi ebañan lorategiko lora ederík ederénak, pilo andi ikuskarifa egiñaz, ta ari batez lotuta, Mikeltxu'ri emon eutsozan, esaten:

—Eutsi, Mikeltxu. Zure amari mosurik emoterik eztaukazu zeuk. Emon egijozuz, bada, Mirentxu'k eskintzen dautzuzan laŕosa ta lora oneik. Nik nire amari, laŕosak emon-biaŕian, mosu bero-bero bi emongo dautsodaz, ta kitu.

Ártu euzan Mikeltxu'k lora usaintsubak eta pozez beterik bere bidiari jaŕatu eutson, esaten:

—Ezta beste gustijak lakua, ez. Lorarik eder-ena bertan itxi dot, ¡Mirentxu da-ta!

Eta Mirentxu'k, baŕiz, txorta ikuskari apain-duba mutilaren eskubetan ikusita, esan eban:

—Ondo egin dot. Umiak be, gixonak lez, ez-kara ogiz bakarik asetzen. Umiaren bijotzari, be, dagokijona emon biaŕ yako.

**Muxika'tar Gergori (Bizkayeralduta)**



## MENDIKO NEGARA

*Ene Aberi laztana  
Jausi zara erbestepian.....  
¡Obia erijotza da!*

Zeure basotik  
Atzo igoten zan  
Eskari ona  
Zerura.  
Gauř eřdeldunak  
Sařtuta,  
Axia amen  
Birauz bete da.  
¡Zelan ondiño il etzara!

Ekandu onak  
Asabeari  
Zoruna emon  
Len eutsen;  
Ara motzenak  
Gauř emen  
Zeure bijotz  
Garbija usteltzen.  
¡Ta zeu, ama, etzara iltzen!


Gurutz zurija  
 Baltziñu da ta  
 Areitz orleya  
 Oritu.  
 Geratzu ezer  
 Etxatzu:  
 Seme onik,  
 Ama, eztozu.  
 ¡Il, Aberíja, zakigu!

. . . . .

Ez egin negarí:  
 Etzaut, Ama, nai  
 Negañ-egiñik  
 Zu ikusi:  
 Zeure negañok  
 Motzari  
 Eragiten  
 Dautso bafe-iñi.  
 ¡Il, Ama, laster! ¡Il zadi!

**Arana eta Goiriñaf Sabin**

*Jarduna.*—Buruz ikasi oleñki eder au.



## AZTO BIZKAÍR

---

Garazi ta Ořeaga (Roncesvalles) - bitar̄teko mendi jagi ta ařu sakonetatik ibil̄ta gero, Azto-bizkaír-baso itxaltsuko basetxe zař batera eldu nintzan Dagonila (Abustu)'ko 14'gafeneko iluntzian, agura batek lagun-eginda.

Nik gura neban Ořeaga'n gaba igazi edo pasau, baňa ezin. Bertara juateko bide latzak egozan, eta ařezkero berandu zan. Basetxion lotu biař, ba.

Abegi ona egin eusten, etxeko aizkidia ba'nintz lez, ta mai-onduan jařita, bertakuakin apaldu neuzan esne egosija, artua ta gastaňak.

Larogei urtedun ařitak maya onetsi edo bedinkatu ta otoi-eginda gero, ekanduba oi-dan lez, izketan asi giňian gogoz baseřit ai yagoke-

zan arazuetzaz: gari-biltziatzaz, gastañen gexuatzaz ta basuan ebiltzan artaldiatzaz. Azkenez, atatu genduban bijaramonian ikusi gura neban lekaretxe edo monasteriju.

—¿Zenbat asti (denpora) biaŕko dot bijaŕ Oŕeaga'ra juateko? — itandu neban.

—Bide labuŕetatik juanda, ordu bi ta erdi.

—¿Eta Aztobizkar-tontoŕ-ganera igoteko?

—Anka ariňak ba-daukazuz, ez asko-asko — esan eustan etxeko seme nagusijak —. Baña etzirafte itxonezkero, ederlo juan zatekez, bertora juango diran ikazkiňen mando-ganian jesarita.

—Ezin itxaron — erantzun neutson —. Mendi oŕetako tontoŕ gorenguan bijaŕ gabian egon biaŕ-naz.

—¿Gabian diňozu? Egunez gitxi ikusten da bertan laňuaz, ta gabez gitxijago.

—Ezer ikusiko ezpa-dot be, zerbait entzungo dot.

—¿Ezer entzun? An gustija dago ixilik.

—¿Bijaŕko gabian be?

—Bai, ba, beti lez.

Au entzunda, agureak, neu begiz jo ta esan eustan:

—Zuzen zagoz: bijaŕko gaba ezta ixaten bestiak lakua, oraingo gastiak ziňesten ezpa-dabe

be. Ni mutila nintzala, bertan egon nintzan bein gau ofetan, eta ikarea saítzen yat ondiño, entzun nebana gomutetan dodanetan.

—¿Zer, ba? ¿Zorgiñik ete-dago Aztobizkař-atxetan, ala?—iribařez esan eban ilobeak.

—Eztago zorgiñik, ez akelaŕerik. Baña tontoř atan entzuten da 15'kafen egunian iļen gudakearen (batallaren) zaratia.

Aguriaren itzak (berbak) poztu ninduben. Eurek iragarten eusten ondiño bixi zala mendi ta aru aretan Irati baso andi itxaltsuban Ořeaga'ko baseřitāř agura bati entzun neutson aselia (leyendia). Bai, ondiño bixi zan geure baseřitāřen ařtian iļen gudakearen aselia (iļen batallaren leyendia), asele ikaragarija. Asele ori zala-ta, antxe nenguan, nire begi ta belarrijakaz bera egiztuteko.

\* \* \*

Bijaramonian, Ořeaga'ko jaupaltxaun (kolegiata) ospetsuban jaupea (mezia) entzunda gero, asi nintzan, agura biderakusliak lagunduta, lañoz estaldutako Aztobizkař-tontořera igoten.

Bidia latza zan, ziñez, ařiz betia. Aři-ařtetik ira ořlegijak (berdiak), ezpel bijuřak eta gorostijak agiri ziran. Baña lañua uřatuta, an goi-goyan agiri ziran aitz urdiňak ikusijaz bijotz-ikara ea saítu yatan.

Eta geu igon eta igon, gelditū-barik, aitz eta zañ-zañez jausitako edo ekatxak eratsitako zugatz-enbor-aŕtetik. Batzutan naŕezka, bestietan jauzka (saltoka), an genbiltzan laŕi ta arnasa -oska, eskuban makil sendua geukala.

Geruago ta zugatz eta sastraka gitxijago.

Bat-batez, lañuak geugana etorri ta inguratu ginduzan. Laŕi ikusi genduban geure buruba.

Iluntzia zan.

Aztobizkaŕ-tontorŕ gorengora eldu giñian. Ger-otxubago ilundu zan: gabak zapi baltzaz euzko -eŕija estaldu eban.

Nire janzki bustijk iragari eusten odoi-aŕtian gengozala. Eta auxe igaŕita, otz-dardarea saŕtu yatan baŕura.

Mantiaz gorputza estaldu ta toki arek ondo ezautzen euzan agura biderakusliari elduta, berarekin niñoyan astirotxu, ozta-ozta. Ibilí ta ibili, aitz-afteko zulo andi batera saŕtu giñan.

\* \* \*

Luzaro egon giñian ixil-ixilik. An etzan ezer entzuten: gustija zan ixil utza.

Bat-batez ta ufundik ba'letozan lez, entzun geuzan erloyu batek jo euzan amabi danbadeak: erloyu ori zan an bian, aŕu sakonian antzin-anziñetik eguna txadonekua (elexakua).

Erloyubaren azkenengo otsaz batez, astiro ta leun igon zan aŕu-baſutik ots ikaragafija. Ots au geruago ta andijagotu zan. Esan eikian beragaz batutene zirala beste abots samin-mingotsak.

Gero entzun genduban udagoyeneko axiak of-bela batera ta bestera erabiltiaz egiten daun zaratia, baſa pago ta areitz tantayai adaŕak moz-tuten yakezanian ixaten dan kaŕaska-otsa be.

Axia geruago ta indaŕtsubago. Ofu itxela egi-naz ta araneko bazteŕ batetik bestera juanda gero, mendijetako aŕubetara saŕtu zan. Toki gus-tijetan kalte ixugaríjak egin ebazan, atxak men-difík bera eratsijaz, zugatz-adaŕak ausijaz.....

Geruago argi bat agiri zan, argi itxala, ta onen osteko durunba ikaragaŕijak mendijk..... igitu ebazan.

Zarata onen ostez beste ots andijk urten ziran of-emetik, eta eurok ziran gudari edo soldau askoren oin-otsak lakuak eta abesti edo kanta pozkoŕak egiten ebezan abotsak..... Gero, ixila, ta baŕiro guda edo geŕa-santsuak, zaunka ta zaunka egozan txakuŕen abotsak (bozak), didaŕ-oyubak, iríntzi zolijak..... Baňa gusti au baño zo-ljago entzuten zan, argi ta gaŕatz, euzkotafen guda-santso ikaragaŕija.....

Gero..... izkilubak (armak) jaso ta alkaŕen auŕka (kontra) buŕuka gogoŕa, aitz eta aŕijak

menditik bera, didaŕ zolijak, oyu mintsubak, eŕ-bestetaŕen berbetaz esandako ayenak eta bir-auak..... Onein ostian, garaitz-santsuak, alayubak, euzkeraz egiñak.....

Triskantza goŕijon entzun zan Rotland'en turutuba, sorosi (laguntza)-eske. Gudari eŕbestetaŕ ospetsu onek bixitxa galdu eban bertan, euzkotafak erailda.

Baŕiro ixila, ixilune luzia, ta gero beko aranetik igo zan amaika euzkotafek egindako iŕintzija, ifintzi zoli-zolija, aranik-aran, mendirik-mendi ta afurik-afu zabaldu zan iŕintzija... Garaitz-iŕintzija zan, aŕotza zapaldu ta biŕindu ixan ebenaren iragaŕkuna.

\* \* \*

Amaŕu zan gustija.

Lurian ilda lotu ziranen ganera mendi-tontoríetatik jatsi zan laňua, zapi zurijaz euren gorpubak estalduteko.

\* \* \*

Sofkaldian dizdizka asi ziran eguzkijaren izpijak. Euren argijaz laňua uŕatu ta mendi-ar-anak agiri yatazan.

Aitz-aŕtetik urten ziran, egazka, Aunamendi'ko afanuak.

Aztobizkar ta Ibańeta mendijk zuri-urdindun margua (koloria) aŕtu eben. Eta bertako ixila

ausi eben Oñea-ga'ko Lekaretxeko jualiak (monasterijoko kanpayak), goxeko «Angelus» joten.

Gustija itxaŕtu zan. Basuan txorijen txirulijak, ardiyen txiliňak eta artzaňen abestijak entzuten ziran.

Gustija zan bakia, gustija zan poza orain amabost eungi (siglo) buŕuka ixugaríja ixan zan tokijan bertan. (1)

Atzeko gabian nire irudimenaz ikusi nebanaren ostez, bakia ta zorijona etori yatazan. Egun atan, Oñea-ga'ko gudakearen urteuŕena betetan zan egunian bertan, Doibatz edo Elexa gure Amak ospatuten eban Ama Neskutza zeraura jasotia, ta Oñea-ga'n dagon bere Irudijaren aurian auzpeztutzen ziran Aunamendi'ko (Pirineo'ko) alde bijetako nabaŕtaŕak, euzko-odol berbera daukelarik, Aztobizkaŕ, Ibaňeta ta Andre-saro'n alkafrekin eta anayak letxe aberijaren aldez gudaldu ebenak.

(1) *Oñea* (efderaz *Roncesvalles*) dago Nabaŕa'ko aran eder baten. Ipaŕ-aldetik, Ibaňeta bizkaŕa. Ibaňeta'tik bera, Laburdi'rano duan bidia. Eta eskuma-aldetik, Aztobizkaŕ mendija, mendi jagia ta entzutetsuba.

Mendi ofetatik igaro edo pasau zan VIII eungilan (sigluan) Carlo Magno eretxon gudari pantzetaŕ ospetsuba, Espaňa'n arazuak atonduteko. Baňa Nabaŕa'z-ziaŕ igaroteko ezeusen nabaŕtaŕai baimenik eskatu, ta ofez ganera, bere arazuak atonduta, atzera egin-ebanian, Iruňa'ko guda-jauregijak suzi.u ta birindu euzan.

Au zala-ta, nabaŕtaŕak asaſatu ta Aztobizkaŕ mendijan gertau ziran Carlo Magno'ren gudarozte edo ekertzio ugarijari gogor jaŕkifeko.

Gertau ta egin.

Buŕuka itxala eginda gero, nabaŕtaŕok lotu ziran garaitsu.

Mendi-bizkaŕak eta arana odolez gofiru ziran. Bertan auŕkiŕu edo topau eben er-lijotza Carlo Magno'ren mila ta mi a gixonek.

Gudaka edo buŕuka onetan nabaŕtaŕ gustijak gudaldu (gefa-egin) eben alkafrekin, abeŕi baten semiak lez.

Orain, baňa, nabaŕtaŕ zindo ofen ondorenguak banatuta dagoz, batzuk pantzetaŕitzat eta bestiak espaňaŕtzat euren buruba daukela...

# BIŁABIDIA

	INGOSKИJA
MUTIKO - NESKATO EUZKELDUNAI . . . . .	5
Lugiñaren esanak . . . . .	6
Platon'en gixona. . . . .	8
Bidaztija . . . . .	9
Geidia. . . . .	11
Euzkotara	12
Axia . . . . .	14
Sugia . . . . .	15
Erđel-erifik . . . . .	17
Kipula ta arbija . . . . .	18
Latarija ta baseritara . . . . .	19
Umiak . . . . .	21
Jakifuna ta umia . . . . .	22
Euzkelduna . . . . .	24
Esan, bai, baña... . . . . .	26
Jakin-eza . . . . .	28
Astakilo ta Alkatia . . . . .	29
Ez.buruba goraldu . . . . .	30
Begijak . . . . .	31
¡Lenago il!	33
Iñuritxuba . . . . .	35
Katiluba ta lapikua . . . . .	37
Osasun ona eukileko . . . . .	39
Iru anayak . . . . .	41
Ordu batek balijo dauna . . . . .	43

Zugatzak mañe . . . . .	45
Egariz . . . . .	47
Jayotzak . . . . .	49
Ez ogasunik itxi iñoren ardura-pian . . . . .	51
Gure Txomin. . . . .	54
Ogija . . . . .	55
Juizioko egunerako edo . . . . .	57
Oluak . . . . .	58
Egiñen ona . . . . .	60
Amanial bijak . . . . .	62
Belen'eko kortan . . . . .	64
Batu ta indara eukiko dozube . . . . .	67
Txorijaren abestija . . . . .	68
Mokolua ta kakaua . . . . .	70
Jolasak . . . . .	72
Abadiaren aspeikundia. . . . .	74
Ez astirik galdu . . . . .	76
Ura . . . . .	78
Baratzaña . . . . .	80
Gastetasuna . . . . .	83
Gure atezaña . . . . .	85
Irakaspide ona . . . . .	86
Katuba ta azerija . . . . .	88
Ez bata, ez bestia . . . . .	90
Ondo esanda. . . . .	92
Kontu bijak . . . . .	94
Itxasua ta bijotza . . . . .	96
¡Gomutau egixu!	98
Gurasuen agindubak . . . . .	100
Bultzi, taranta ia egazkiñak . . . . .	102
Bakotxak bere ustia. . . . .	105
Ankia ausi . . . . .	107

Gabona . . . . .	109
Akefeña . . . . .	111
Abeliñe erukijoña . . . . .	113
Ama umiagaz . . . . .	115
Autsa baño ezkara . . . . .	117
Amasaspi astuak . . . . .	119
Anai bijak . . . . .	121
Erijotz-garalia . . . . .	123
Sagaŕ ustela . . . . .	125
Obenaren nekia . . . . .	127
Zorijoneko etxia . . . . .	128
Alkaŕen zirija . . . . .	130
Arkumia ta azerija . . . . .	132
Txori-lumiak . . . . .	134
Euzkerea . . . . .	136
Nagikeria . . . . .	138
Eskekua . . . . .	140
Uso bijak . . . . .	142
Galeperak . . . . .	144
Aguria . . . . .	146
Ixaŕak . . . . .	148
Begoña'ko Ixaŕ Zerutaŕari . . . . .	151
Gurutza . . . . .	153
Aŕi-zetzalía . . . . .	156
Ipuña . . . . .	160
Txoritzuba . . . . .	163
Olaŕa ta azerija . . . . .	165
Eŕege Maguak . . . . .	168
Txori gaxua . . . . .	172
Asaben fedia . . . . .	175
Eŕotazuri'ko uŕetxindóra . . . . .	176
Aizta bijak . . . . .	180

---

**INGOSKIA**

Txirua ta zorija . . . . .	183
Eduŕne'ren loria . . . . .	186
Iru auntzak . . . . .	188
Josu-Kisto ta jakifunak . . . . .	191
Lulu ta Mañu . . . . .	194
Artzañaren edestija . . . . .	198
Aldakerija . . . . .	200
Loriak . . . . .	206
Mendiko negarā . . . . .	212
Aztobizkar̄ . . . . .	214

---







